

**573/1991 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 23koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea onetsi dituenak.**  
**ALHAO, 1991ko uztailaren 29a**

"Langileen kopurua" eta "lokalen azalera" zerga elementuak zehazteko, ikusi Arabako 12/2003 Foru Arauak, martxoaren 31koak, toki ogasunak aldatzen dituenak, 2. xedapen gehigarrian ezartzen duena («ALHAO», apirilaren 11koa).

**ATARIKOA**

I.-

Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak, ekonomia jardueren gaineko zergarenak, honako hau ezartzen du 8. artikuluan: «Zergaren tarifak (gutxieneko kuotak finkatzen dituztenak) eta horiek aplikatzeko jarraibidea araugintzako foru dekretuaren bidez onetsiko dira. Dekretua araugintzarako eskuordetza honen bidez emango da.»

Araugintzako foru dekretu honen helburua da ekonomia jardueren gaineko zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea onestea da. Tarifa horietan ez dira sartzen abeltzaintzako jarduera independenteak.

II.-

Zerga honen aplikazio praktikorako ezinbestekoa da erroldak eratzea, eta horretarako tarifak onetsi behar dira, subjektu pasiboak behar bezala sailkatzeko. Gainera, ekonomia jardueren gaineko zerga berria 1992ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Bada, hori guztia kontuan hartuta, tarifak eta jarraibidea ahalik azkarren onetsi behar dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bilkuran eztabaidatuta, uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 8. artikuluan eta Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan Foru Aldundiari emandako eskudantziak erabiliz, presazkoa dela eta, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

Artikulu bakarra

Ekonomia jardueren gaineko zergaren tarifak onesten dira (araugintzako foru dekretu honen I. eranskinean daude), bai eta horiek aplikatzeko jarraibidea ere (II. eranskinean daude).

**AZKEN XEDAPENA**

1.- Foru Aldundiari baimena ematen zaio araugintzako foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

2.- Araugintzako foru dekretu honen berri emango zaie Arabako Batzar Nagusiei, indarreko legeriak ezartzen dituen izapideak egin ditzaten.

I. ERANSKINA

TARIFAK

LEHENENGO ATALA

ENPRESA JARDUERAK: ABELTZAINZAKOAK, MEATZARITZAKOAK,  
INDUSTRIAKOAK, MERKATARITZAKOAK ETA ZERBITZUETAKOAK

0 SAILA.- ABELTZAINZA INDEPENDENTEA.

01 multzoa.- Behi aziendaren ustiapena.

011 TALDEA.- BEHI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,967629 euro abereko.

012 TALDEA.- ESNETARAKO BEHI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 1,929249 euro abereko.

013 TALDEA.- GIZENTZEKO BEHI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,967629 euro abereko.

01 MULTZO OSORAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta sei hilabetera arteko abereak ez dira multzo honetako taldeetan zenbatuko eta beren etekina ugalketarako aziendaren etekinaren barruan sartuko da.

02 multzoa.- Ardi eta ahuntz aziendaren ustiapena.

021 TALDEA.- ARDI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,252425 euro abelburuko.

022 TALDEA.- HAZTEKO ARDI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,312526 euro ugalketarako abelburuko.

023 TALDEA.- GIZENTZEKO ARDI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,156263 euro abelburuko.

024 TALDEA.- AHUNTZ AZIENDAREN USTIAPENA.

Kuota: 0,210354 euro abelburuko

02 MULTZO OSORAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta hiru hilabetera arteko abereak ez dira multzo honetako taldeetan zenbatuko eta beren etekina ugalketarako aziendaren etekinaren barruan sartuko da.

03 multzoa.- Txerri aziendaren ustiapena.

031 TALDEA.- TXERRI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,282476 euro abelburuko.

032 TALDEA.- HAZTEKO TXERRI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,829397 euro ugalketarako abelburuko.

033 TALDEA.- GIZENTZEKO TXERRI AZIENDAREN USTIAPEN INTENTSIBOA.

Kuota: 0,192324 euro abelburuko.

03 MULTZO OSORAKO OHARRA: Ustialekuan jaio eta lau hilabetera arteko abereak ez dira multzo honetako taldeetan zenbatuko eta beren etekina ugalketarako aziendaren etekinaren barruan sartuko da.

04 multzoa.- Hegazti hazkuntza.

041 TALDEA.- ARRAUTZATARAKO HEGAZTI HAZKUNTZA.

041.1 epigrafea.- Arrautzatarako ugaltzaileak.

Kuota: 0,024040 euro bakoitzeko.

041.2 epigrafea.- Arrautza erruleak, lau hilabetetik aurrera.

Kuota: 0,012020 euro bakoitzeko.

041 TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Lau hilabetera arteko arrautzatarako oilandak ez dira zenbatuko.
2. Talde honetako epigrafe bateko kuotak ordaintzeak oilandak inkubatzeko eta hazteko edo berrazteko ahalmena ematen du, beti ere subjektu pasibo beraren arrautzatarako ustiategiatarako badira.

042 TALDEA.- HARAGITARAKO HEGAZTI HAZKUNTZA.

042.1 epigrafea.- Haragitarako ugaltzaileak.

Kuota: 0,024040 euro bakoitzeko.

042.2 epigrafea.- Haragitarako oilaskoak eta ahateak.

Kuota: 0,006010 euro bakoitzeko.

042.3 epigrafea.- Indioilar, faisai eta palmipedo ugaltzaileak.

Kuota: 0,012020 euro bakoitzeko.

042.4 epigrafea.- Haragitarako indioilar, faisai eta palmipedo ugaltzaileak.

Kuota: 0,018030 euro bakoitzeko.

042.5 epigrafea.- Haragitarako galeperrak.

Kuota: 0,006010 euro bakoitzeko.

Oharra: Talde honetako epigrafe bateko kuotak ordaintzeak inkubaziorako ahalmena ematen du, betiere hegaztiak subjektu pasiboaren beraren talde honetako ustiategietarako badira.

05 multzoa.- Untxi hazkuntza.

051 TALDEA.- UNTXI HAZKUNTZA.

Kuota: 0,108182 euro ugalketarako bakoitzeko.

06 multzoa.- Abeltzaintzako beste ustiapen batzuk (BISG)

061 TALDEA.- ZALDI, MANDO ETA ASTO AZIENDAREN USTIAPENAK.

Kuota: 0,625053 euro abelburuko.

062 TALDEA.- ERLEZAINNTZA.

Kuota: 0,054091 euro erlauntzako.

069 TALDEA.- ABELTZAINNTZAKO BESTE USTIAPEN BATZUK.

Kuota: 66,95 euro.

OHARRA: Talde honetan daude sail honetan zehaztu ez diren abeltzaintzako ustiapenak, hala nola, zeta harren hazkuntza, larrugintzarako animalien hazkuntza, ehiza itxian haztea, laborategiko animalien hazkuntza, barraskilo hazkuntza, etab.

07 multzoa.- Ustiapen mistoak.

071 TALDEA.- USTIAPEN MISTOAK.

Kuota: Egiten diren aurreko multzoetako talde eta epigrafeetako jarduera guztien kuota partzialen batura.

OHARRA: Talde honetan daude ustiategi berean sail honetako 01 - 06 arteko multzoetako jarduera bat baino gehiago egiten dituzten subjektu pasiboak.

## 0 SAIL OSORAKO OHARRAK:

1. Ustiategi berean egiten diren sail honetako jardueren kuoten guztirako zenbatekoa 37,32 euro baino gutxiago izanez gero, subjektu pasiboaren kuota 0 izango da.
2. Abeltzaintzako jarduera “abeltzaintza integratua” deritzon araubidean egiten bada, horren kuotak “abeltzain integratzaileak” edo azientaren jabeak ordainduko ditu.
3. Sail honen ondorioetarako, hauxe da ustiapen estentsiboa: lursail bat (osorik edo zati bat) belardi edo larre modura aprobetxatzea azienda bazkatzeko.

## 1 SAILA.- ENERGIA ETA URA

11 multzoa.- Erregai solidoak erauztea, prestatzea eta aglomeratzea, eta koke zentralak.

111 TALDEA.- HARRIKATZA ERAUZTEA, PRESTATZEA ETA AGLOMERATZEA.

111.1 epigrafea.- Harrikatza erauztea eta prestatzea (azpibituminosoa izan ezik).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,271826 euro.

Kw-ko: 3,828447 euro.

111.2 epigrafea.- Harrikatz azpibituminosoa (lignito beltza) erauztea eta prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,271826 euro.

Kw-ko: 3,828447 euro.

111.1 ETA 111.2 EPIGRAFEI BURUZKO OHARRAK:

1. Elkarren ondoan dauden ustiategi, meatze emakida eta meategien arteko zona frankoak ustiategi edo emakida bakartzat hartuko dira, bai eta, elkarren ondoan ez egon arren, ustiapen unitatea osatzen dutenak ere.
2. Benetan ustiapenean egon beharrean meategi barruti bateko erreserbak diren ustiategiak, meatze emakidak eta meategien arteko zona frankoak ez dira zergapean egongo, nahiz eta urteko lan planean azaldu.
3. Epigrafe hauek ahalmena ematen dute beste erregai mineral solido batzuk erauzteko eta prestatzeko.

111.3 epigrafea.- Harrikatza prestatzea beste lantegi batean edo meatze emakidatik edo ustiapenetik kanpo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 9,333718 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du beste lantegi batean beste erregai mineral solido batzuk prestatzeko.

111.4 epigrafea.-Harrikatza aglomeratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,974060 euro.

Kw-ko: 14,183886 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du beste erregai mineral solido batzuk aglomeratzeko.

112 TALDEA.- ANTRAZITA ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.

112.1 epigrafea.- Antrazita erauztea eta prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,367988 euro.

Kw-ko: 4,014761 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeari buruzko oharrak aplikatzen zaizkie.

112.2 epigrafea.- Antrazita prestatzea beste lantegi batean edo meatze emakidatik edo ustiapenetik kanpo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 9,333718 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du beste lantegi batean beste erregai mineral solido batzuk prestatzeko.

113 TALDEA.- LIGNITO ARREA ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.

113.1 epigrafea.- Lignito arrea erauztea eta prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,367988 euro.

Kw-ko: 4,014761 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeari buruzko oharrak aplikatzen zaizkio.

113.2 epigrafea.- Lignito arrea prestatzea beste lantegi batean edo meatze emakidatik edo ustiapenetik kanpo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 9,333718 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du beste lantegi batean beste erregai mineral solido batzuk prestatzeko.

114 TALDEA.- KOKEGINTZA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,445170 euro.

Kw-ko: 6,749366 euro.

12 multzoa.- Petrolioa eta gas naturala erauztea.

121 TALDEA.- PETROLIOAREN ETA GAS NATURALAREN PROSPEKZIOA ETA MEATZE IKERKETAKO LAN OSAGARRIAK.

121.1 epigrafea.- Zundaketetan denetarikoz azterketak egitea zenbait gauza zehazteko: igarotako formazioen ezaugarriak, sakonera eta norabidea, formazioen okerdura, eta abar.

Udal kuota, gutxienez: 1.741,73 euro.

Probintziako kuota: 5.225,20 euro.

Estatuko kuota: 15.551,19 euro.

Epigrafea 121,2.- Zundaketak desbideratzeko eta putzuak zimentatzeko lanak, harkaitzak haustea edo azidifikatzea eta produkzio probak.

- Kamioi gaineko punpatze unitate bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 1.648,425949 euro.

Probintziako kuota: 4.976,380224 euro.

Estatuko kuota: 14.929,140673 euro.

- Kamioi gaineko nahasgailu bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 590,945152 euro.

Probintziako kuota: 1.803,937831 euro.

Estatuko kuota: 5.598,427752 euro.

- Produkzio probak egiteko ekipo bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 43,543327 euro.

Probintziako kuota: 155,511882 euro.

Estatuko kuota: 497,638022 euro.

- Zundaketak desbideratzeko ekipo bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 43,543327 euro.

Probintziako kuota: 155,511882 euro.

Estatuko kuota: 497,638022 euro.

121.3 epigrafea.- Putzu hondoko presioa neurtzeko lanak; putzuak irekitzea eta ixtea neurtzeko lanak; lurrizaleko tenperatura, presioa, emaria eta abarrak neurtzea; putzuetako eta lurrizaleko elementuak elkarrekin lotzeko kableen zerbitzuak.

- Putzu hondoko eta lurrazaleko tresnak lotzeko kablea duen kamioi edo atoi bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 684,252281 euro.  
Probintziako kuota: 2.177,166348 euro.  
Estatuko kuota: 6.842,522808 euro.

- Putzu hondoa eta behera doazen hodiak ixteko eta zabaltzeko ekipo bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 286,141863 euro.  
Probintziako kuota: 870,866539 euro.  
Estatuko kuota: 2.799,213876 euro.

- Jarioa eta presioa lurrazalean kontrolatzeko, neurtzeko eta banatzeko ekipo bakoitzeko:

Udal kuota, gutxienez: 211,496160 euro.  
Probintziako kuota: 622,047528 euro.  
Estatuko kuota: 1.866,142584 euro.

- Putzu barruko berotze ekipo bakoitzeko, biltontzia eta bere akzesorioak:

Udal kuota, gutxienez: 211,496160 euro.  
Probintziako kuota: 622,047528 euro.  
Estatuko kuota: 1.866,142584 euro.

121.9 epigrafea.- Petrolioaren eta gas naturalaren prospekzioarekin eta meatze ikerketarako lan osagarriekin lotutako beste jarduera batzuk, hala nola petrolioaren geofisikakoak, zundaketen geologiako kontrola etab.

Udal kuota, gutxienez: 497,64 euro.  
Probintziako kuota: 1.555,12 euro.  
Estatuko kuota: 4.976,38 euro.

## 122 TALDEA.- PETROLIO GORDINA ERAUZTEA ETA BANATZEA.

122.1 epigrafea.- Petrolio gordina erauztea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 87,711707 euro.  
Kw-ko: 64,073900 euro.

122.2 epigrafea.- Petrolio gordina banatzea.

Udal kuota, gutxienez: 3.110,24 euro.  
Probintziako kuota: 12.440,95 euro.  
Estatuko kuota: 43.543,33 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honetan dago petrolio eta petrolio produktu finduak oliobideak bakarrik erabiliz banatzea, eta banaketarako behar diren oliobide sareak instalatzea ere bai.

123 TALDEA.- GAS NATURALA ERAUZTEA, ARAZTEA ETA BANATZEA.

123.1 epigrafea.- Gas naturala erauztea eta araztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 87,711707 euro.

Kw-ko: 64,073900 euro.

123.2 epigrafea.- Gas naturala banatzea.

Udal kuota, gutxienez: 3.110,24 euro.

Probintziako kuota: 12.440,95 euro.

Estatuko kuota: 43.543,33 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago gas naturala (mota guztiak) gasbideak bakarrik erabiliz banatzea, eta banaketarako behar diren gasbide sareak instalatzea ere bai.

124 TALDEA.- ARBEL BITUMINOSOAK ERAUZTEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,971740 euro.

Kw-ko: 4,669864 euro.

13 multzoa.- Petrolio fintzea.

130 TALDEA.- PETROLIOA FINTZEA.

Kuota:

Urtean tratatzen den 1.000 tona petrolio gordineko edo zatikiko: 55,984278 euro.

14 multzoa.- Mineral erradiaktiboak erauztea eta eraldatzea.

141 TALDEA.- MINERAL ERRADIAKTIBOAK ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,971740 euro.

Kw bakoitzeko: 4,669864 euro.

142 TALDEA.- MINERAL ERRADIAKTIBOAK PRESTATZEA BESTE LANTEGI BATEAN EDO MEATZE EMAKIDATIK EDO USTIAPENETIK KANPO.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,635594 euro.

Kw-ko: 8,149724 euro.

143 TALDEA.- MINERAL ERRADIAKTIBOAK ERALDATZEA ETA HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK TRATATZEA ETA BILTEGIRATZEA.

143.1 epigrafea.- Mineral erradiaktiboak eraldatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,121465 euro.

Kw-ko: 10,517712 euro.

143.2 epigrafea.- Hondakin erradiaktiboak tratatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,635594 euro.

Kw-ko: 8,149724 euro.

143.3 epigrafea.- Hondakin erradiaktiboak biltzea.

Kuota: 31.102,38 euro.

143.2 ETA 143.3 EPIGRAFEEI BURUZKO OHARRA: Epigrafe hauek ahalmena ematen dute instalazio nuklearrak desegiteko eta hondakin erradiaktiboak garraiatzeko.

15 multzoa.- Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta ur beroa sortzea, garraiatzea, banatzea eta merkaturatzea.

151 TALDEA.- ENERGIA ELEKTRIKOA SORTZEA, GARRAIATZEA, BANATZEA ETA MERKATURATZEA.

151.1 epigrafea.- Energia hidroelektrikoa sortzea.

Kuota:

Sorgailuen potentziako Kw-ko: 0,721215 euro.

OHARRA: Energia hidroelektrikoa sortzen duten "ponpaketako" zentralen gaineko karga epigrafe honetako kuotaren % 50 izango da.

151.2 epigrafea.- Energia termoelektriko konbentzionala sortzea.

Kuota:

Sorgailuen potentziako Kw-ko: 0,420708 euro.

151.3 epigrafea.- Energia termonuklearra sortzea.

Kuota:

Sorgailuen potentziako Kw-ko: 0,510860 euro.

151.4 epigrafea.- Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energia sortzea: marea energia, eguzki energia etab.

Kuota:

Sorgailuen potentziako Kw-ko: 0,721215 euro.

OHARRA: Ez daude epigrafe honetan zentral mistoak, hau da, energia zenbait modutan sortzen dutenak. Horiek jarduera nagusiari dagokion epigrafean sailkatu behar dira.

151.5 epigrafea.- Energia elektrikoa garraiatzea eta banatzea.

Kuota:

Kontratutako potentziako Kw-ko:

Udal kuota, gutxienez: 0,042071 euro.

Probintziako kuota: 0,066111 euro.

Estatuko kuota: 0,066111 euro.

151.6 epigrafea.- Energia elektrikoa merkaturatzea.

Kuota.

Udal kuota, gutxienez:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuko kuota:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 137,48 euro.

#### 151 TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Sorgailuen potentzia zehazteko, korrante altxatua denean, zentrallean neurtutako potentzia faktorea hartuko da, edo, hori ezean, alfaren kosenoaren balorea = 0,8
2. Zentral hidrauliko edo termikoak direnean, zergapean dagoen kw kopurua sorgailu elektrikoen potentzien batura izango da, erreserban dauden sorgailuak sartu gabe, baina turbinak edo motore termikoek eman dezaketen potentzia lehengoa baino txikiagoa bada, sorgailuei eragiten dieten turbina edo motor horiek eman dezaketen potentziaren arabera ezarriko da kuota.
3. Ur eskasia, uholde edo matxurak direla eta ohizko errendimenduaren beherakadari erantzuteko erreserba gisa sorgailu termiko bat duten zentral hidraulikoetan, edo, helburu bererako beste fabrikatzaileari argindarra erosten dioten zentrallean baldin erabilitako potentzia osoa, hau da, hidraulikoa eta erreserbakoa batuz, aitortutako kantitatea edo txikiagoa balitz, ez da egongo erreserbako potentzia aitortu beharrik. Handiagoa denetan, diferentzia zergapetuko da.
4. Zentrallean bertan indar eragile gisa erabilitako potentziagatik ez da zergarik ordainduko.
5. 151.5 epigrafea aplikatzeko, kontratuan agertzen den entrega lekuan neurtuko zaizkio azken kontsumitzaileari kontrolatutako kilovatioak.

#### 152 TALDEA.- GASA EKOIZTEA, BANATZEA ETA MERKATURATZEA.

152.1 epigrafea.- Gasa ekoiztea eta banatzea.

Kuota:

Kw bakoitzeko: 15,86 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da gasa banatzeko sareak instalatzea.

152.2 epigrafea.- Gasa merkaturatzea.

Kuota.

Udal kuota, gutxienez:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuko kuota:

1.000 harpidedun edo zatikiko: 137,48 euro.

153 TALDEA.- LURRUNA ETA UR BEROA SORTZEA ETA BANATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 9,393819 euro.

Kw-ko: 5,661534 euro.

OHARRA: Talde honetan dago lurruna eta ur beroa banatzeko sareak instalatzea.

16 multzoa.- Ura biltzea, tratatzea eta banatzea eta izotza ekoiztea.

161 TALDEA.- HIRIGUNEETARAKO URA BILTZEA, TRATATZEA ETA BANATZEA.

161.1 epigrafea.- Hiriguneetarako ura biltzea, tratatzea eta banatzea.

Udal kuota, gutxienez: 0,156263 euro aurreko ekitaldian hornitutako 100 metro kubiko ureko edo zatikiko, kontagailuan erregistratutako kontsumitzailearen kontsumoen arabera.

Probintziako kuota: 0,156263 euro aurreko ekitaldian hornitutako 100 metro kubiko ureko edo zatikiko, kontagailuan erregistratutako kontsumitzailearen kontsumoen arabera.

161.2 epigrafea.- Hornidurarako ura biltzea.

Kuota: 0,024040 euro aurreko ekitaldian hornidurarako bildutako 100 metro kubiko ureko edo zatikiko, ura hartu den tokian jarritako kontagailuan edo bestelako neurketa elementuan erregistratutako kontsumitzailearen kontsumoen arabera.

OHARRA: Ur bilketan sartzen dira ura bere inguru natural edo fisikotik ateratzeko lanak eta gero, tratatzeko edo banatzeko asmoarekin, eskueran jartzeko edo emateko egin beharreko lanak.

161.3 epigrafea.- Hornidurarako ura tratatzea.

Kuota: 0,024040 euro aurreko ekitaldian tratatutako 100 metro kubiko ureko edo zatikiko, tratamendu zentroko irteera tokian jarritako kontagailuan edo bestelako neurketa elementuan erregistratutako kontsumitzailearen kontsumoen arabera.

OHARRA: Tratamenduaren barruan sartzen dira ura osasun aldetik giza kontsumorako zilegi edo edangarri izateko, erabiltzeko moduan jarri edo banaketa sarean sartu arte egin beharreko lan eta prozesu guztiak.

161.4 epigrafea.- Hiriguneetarako ura banatzea.

Kuota: 0,096162 euro aurreko ekitaldian hornitutako 100 metro kubiko ureko edo zatikiko, kontagailuan erregistratutako kontsumitzailearen kontsumoen arabera.

OHARRA: Banaketaren barruan sartzen dira ura kontsumitzailearen etxebizitzara edo lokalera eramateko egin beharreko lan eta ekintza tekniko guztiak.

161.1 ETA 161.4 EPIGRAFEI BURUZKO OHARRA: Epigrafe horietan sartzen da ura banatzeko sareak instalatzea.

162 TALDEA.- SALTZEKO IZOTZA EKOIZTEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,809046 euro.

Kw-ko: 1,809046 euro.

OHARRA: Baldin eta fabrikatzen den izotza arrantzontzi flota hornitzeko bada edo, bestela, garraiatu den arraia prestatzeko, lehen aipatutako kuotaren %50 aplikatuko da.

2 SAILA.- ENERGETIKOAK EZ DIREN MINERALAK ETA BEREN PRODUKTU ERATORRIAK ERAUZTEA ETA ERALDATZEA. INDUSTRIA KIMIKOA.

21 multzoa.- Mineral metalikoak erauzte eta prestatzea.

211 TALDEA.- BURDIN MEAK ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.

211.1 epigrafea.- Burdin meak erauzte eta prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,692534 euro.

Kw-ko: 2,536271 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeei buruzko 1. eta 2. oharrak aplikatzen zaizkio.

211.2 epigrafea.- Burdin meak prestatzea beste lantegi batean edo meatze emakidatik edo ustiapenetik kanpo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 5,355018 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen dira meategi zuloan edo beste lantegi batean meak kontzentratzeko egiten diren eragiketa fisiko guztiak (sinterizazioa, peiletizazioa eta antzekoak barne).

212 TALDEA.- BURDINAZKOAK EZ BESTE MINERAL METALIKO BATZUK ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.

212.1 epigrafea.- Burdinazkoak ez beste mineral metaliko batzuk erauztea eta prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,173344 euro.

Kw-ko: 3,425769 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeei buruzko 1. eta 2. oharra aplikatzen zaizkio.

212.2 epigrafea.- Burdinazkoak ez beste mineral metaliko batzuk prestatzea beste lantegi batean edo meatze emakidatik edo ustiapenetik kanpo.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,100273 euro.

Kw-ko: 6,785427 euro.

22 multzoa.- Metalen ekoizpena eta lehen eraldakuntza.

221 TALDEA.- SIDERURGIA INTEGRALA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,625053 euro.

Kw-ko: 0,997680 euro.

OHARRA: Talde honetan dago berotan edo hotzean ijertzitako burdingintzako produktuen eta horien eratorrien fabrikazioa, lehengai burdin mea dela, labe garaiak eta oxigenozko altzairu olak erabiliz.

Bereizita ezin sailkatu diren ikatz burdinaren edo arrabioaren produkzioa eta labe garaiko ferroaleazioak eta koke olasiderurgikoak ere talde honetan daude.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

221.1 epigrafea.- Lehen mailako siderurgiako produktuak.

221.2 epigrafea.- Altzairu landugabea.

221.3 epigrafea.- Produktu amaitugabeak.

221.4 epigrafea.- Beroan ijertutako produktuak.

221.5 epigrafea.- Hotzean ijertutako produktuak.

221.6 epigrafea.- Aurrekoetatik eratorritako produktuak, 223 taldekoak barne.

221.7 epigrafea.- Beste produktu eta azpiproduktu batzuk.

## 222 TALDEA.- SIDERURGIA EZ INTEGRALA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,588992 euro.

Kw-ko: 0,733235 euro.

OHARRA: Talde honetan dago berotan edo hotzean ijertutako siderurgiako produktuen eta horien eratorrien fabrikazioa, lehengai txatarra dela, altzairutegi elektrikoak erabiliz.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

222.1 epigrafea.- Altzairu landugabea.

222.2 epigrafea.- Produktu amaitugabeak.

222.3 epigrafea.- Beroan ijertutako produktuak.

222.4 epigrafea.- Hotzean ijertutako produktuak.

222.5 epigrafea.- Aurrekoetatik eratorritako produktuak, 223 taldekoak barne.

222.6 epigrafea.- Beste produktu eta azpiproduktu batzuk.

## 223 TALDEA.- ALTZAIRUZKO HODIAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,625053 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Talde honetan dago soldatutako edo soldatu gabeko altzairuzko tutuak fabrikatzea, estaliak zein estali gabeak, bai eta altzairuzko tutuak luzatzea eta hari elektrikotarako tutu, lotune, juntura eta antzeko materialak fabrikatzea ere.

Altzairuzko tutuak berotan ijertzea ere talde honetan sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

223.1 epigrafea.- Soldadurarik gabeko altzairuzko hodi produktuak (hodiak eta profil hutsak).

223.2 epigrafea.- Luzetara soldatutako altzairuzko tutu produktuak.

223.3 epigrafea.- Helizean soldatutako altzairuzko tutu produktuak.

223.4 epigrafea.- Hodietarako osagarriak {burdinurtuzkoak izan ezik}.

224 TALDEA.- ALTZAIRUA HOTZEAN TREFILATZEA, TENKATZEA, PROFILATZEA ETA IJEZTEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,625053 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Talde honetan daude altzairua hotzean teinkatzea, altzairuzko zumitza hotzean ijezte, altzairuzko produktu lauak hotzean eratzea eta tolesduraren bidez profilak ijezte eta altzairua trefilatzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

224.1 epigrafea.- Altzairuzko alanbrea.

224.2 epigrafea.- Teinkaketaren bidez kalibratutako produktuak.

224.3 epigrafea.- Tornuaren bidez kalibratutako produktuak.

224.4 epigrafea.- Artezketaren bidez kalibratutako produktuak.

224.5 epigrafea.- Hotzean eratutako profilak.

224.6 epigrafea.- Hotzean ijetzitako altzairuzko zumitza.

224.7 epigrafea.- Hotzean ijetzitako zumitz magnetikoa.

224.8 epigrafea.- Estalitako zumitza.

225 TALDEA.- BURDINAZKOAK EZ BESTE METALEN EKOIZPENA ETA LEHEN ERALDAKUNTZA.

225.1 epigrafea.- Aluminioaren ekoizpena eta lehen eraldakuntza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,811366 euro.

Kw-ko: 2,241775 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen dira: lehen urtuketako aluminio produkzioa (mea, hondakin, hondar, hausterre, eta soberakinetatik aterata) bigarren urtuketako aluminio produkzioa (urtuketaren bidez); burdingintzatik kanpo, aluminio aleazioak egitea (aluminioterma); aluminio eta aluminio aleazioen lehen transformazioa, ijetze, teinkatze, trefilaketa, estrusioa, eta abarren bidez.

225.2 epigrafea.- Kobrearen ekoizpena eta lehen eraldakuntza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,811366 euro.

Kw-ko: 2,241775 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen dira: findu gabeko kobrea egitea mineraletatik abiatuta (blister eta beste batzuk); kobre elektrolitikoak; termikoki araztutako kobrea; bigarren fusioko kobrea; kobre aleazioak; baita ijezketa, teinketa, trefilaketa, estrusio eta abarren bidez egindako kobre eta bere aleazioen lehen eraldakuntza.

225.9 epigrafea.- Burdinazkoak ez beste metalen ekoizpena eta lehen eraldakuntza (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,811366 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da burdina ez beste metal batzuen produkzioa eta lehen eraldakuntza: zinka, beruna, eztainua, antimonioa, bismutoa, wolframioa, merkurioa, urrea, zilarra, e.a. Lehen eta bigarren urtuketaz egindako produkzioak sartzen dira hemen, baita ijeztuz, teinkatuz, trefilatuz eta estrusioz egindako lehen transformazioa eta metal horien aleazioak ere.

23 multzoa.- Ez metalikoak ez energetikoak ez diren mineralak erauztea; zohikaztegiak.

## 231 TALDEA.- ERAIKINTZAKO MATERIALAK ERAUZTEA

231.1 epigrafea.- Buztingaiak erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da buztina erregaitz eta zeramikoak, tuparriak, kaolin, eta beste buztina gaiak erauztea, bai eta erauztearekin batean egiten diren hausketak, birrinketa e.a. ere.

231.2 epigrafea.- Eraikuntzan erabiliko diren harkaitzak eta pizarrak erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da harria, arbela, marmola, kareaitza, granitoa, porfidoa eta basaltua erauztea, bai eta erauztearekin batean egiten diren lantzea, hausketak, birrinketa eta abarrak ere.

231.3 epigrafea.- Eraikuntzarako hareak eta legarrak erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da eraikuntzako hareak eta legarra erauztea, bai eta erauztearekin batera egiten diren uharri kentzea eta hausketak, birrinketa eta gainerako lanak ere.

231.4 epigrafea.- Igeltsua erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen dira igeltsua erauztea eta erauztearekin batera haustea, birrintzea eta beste lan batzuk ere.

231.9 epigrafea.- Eraikuntzako beste material batzuk erauztea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago eraikuntzako materialen erauzketa (serpentina, sienita, diabasa, ofita, toba, fonolita, e.a.), bai eta erauztearekin batean egiten diren hausketa, birrinketa eta beste lan batzuk ere.

232 TALDEA.- POTASIO GATZAK, FOSFATOAK ETA NITRATOAK ERAUZTEA.

232.1 epigrafea.- Potasio gatzak erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago potasio gatzaren erauzketa (kainita, silvinita, eta abar), bai eta erauztearekin batean egiten diren hausketa, birrinketa eta beste lan batzuk ere.

232.2 epigrafea.- Fosfatoak eta nitratoak erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago fosfato mota guztien (kaltzio fosfatoak, aluminio kaltzio fosfatoak, fosfatatutako kretak) erauzketa, bai eta erauztearekin batean egiten diren hausketa, birrinketa eta beste lan batzuk ere.

233 TALDEA.- GATZ ARRUNTA ERAUZTEA.

233.2 epigrafea.- Iturburuko gatzak eta gatzarria erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago erreka eta meategiko gatz erauzketa, baita erauztearekin batean egiten diren ehotzea, eraikitzea eta fintzea ere.

## 234 TALDEA.- PIRITAK ETA SUFREA ERAUZTEA..

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean dago sufre naturala, sufre mea, pirita eta pirrotita erauztea, bai eta erauztearekin batean egiten diren ehotzea, hausketa eta birrintzea ere.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

234.1 epigrafea.- Txigortu gabeko burdin piritak.

234.2 epigrafea.- Sufre naturala.

## 239 TALDEA.- EZ METALIKOAK EZ ENERGETIKOAK EZ DIREN BESTE MATERIAL BATZUK ERAUZTEA: ZOHIKAZTEGIAK.

239.1 epigrafea.- Fluorita erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean dago fluorita (fluor espatua) erauztea, bai eta erauztearekin batean egiten diren ehotzea, hausketa eta birrintzea ere.

239.2 epigrafea.- Zohikatza erauztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 2,055461 euro.

239.9 epigrafea.- Ez metalikoak ez energetikoak ez diren beste material batzuk erauztea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,974060 euro.

Kw-ko: 2,488190 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan daude: zoikatza erauzketa, sodio mearena (thenardita, glauberita), boroa, barioa (baritina), kuartzoa, silizea, eraikuntzan erabiltzen ez diren silize hareak, tripoliko lurrak, feldespatoa, pegmatita, dolomia, magnesita, talkoa, esteatita, sepiolita, asfalto eta betuna, harribitxiak, granateak, grafitoa, amiantoa, mika, okreak, arsenikoa, litioa, estrontzioa, eta abarren erauztea, bai eta erauztearekin batean egiten diren ehotzea, hausketa eta birrintzea ere.

24 multzoa.- Metalikoak ez diren mineral gaien industriak.

241 TALDEA.- ERAIKUNTZARAKO LUR EGOSIZKO PRODUKTUAK FABRIKATZEA (ERREGOGORRAK IZAN EZIK).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,428089 euro.

Kw-ko: 2,554301 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan dago eraikuntzarako diren lur egosizko gaien fabrikazioa, erregaitzak ezik, hala nola, adreiluak, teilak eta akzesorioak, zorua eta estaldurak egiteko lauza eta lauxak, hodi eta tutuak, erlaitzak, zerrendak, sapaierresumak eta eraikuntzako beste pieza berezi batzuk.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

241.1 epigrafea.- Adreiluak, blokeak eta forjatuetarako pieza bereziak.

241.2 epigrafea.- Teilak, lauzak eta eraikuntzako lur egosizko beste material batzuk.

242 TALDEA.- ZEMENTUAK, KAREAK ETA ISELTSUA EKOIZTEA.

242.1 epigrafea.- Zementu artifizialak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,866828 euro.

Kw-ko: 6,533002 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan hauen fabrikazioa dago: klinkerrak, porlana (arrunta igeltsu uretan zaila den porlana, burdingintzakoa, e.a.), aluminioidun zementuak, puzolanidun zementua eta beste zementu artifizial batzuk.

242.2 epigrafea.- Zementu naturalak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,866828 euro.

Kw-ko: 4,171024 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan mota guztietako zementu naturalen ekoizpena sartzen da.

242.3 epigrafea.- Kareak eta igeltsuak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,866828 euro.

Kw-ko: 4,171024 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hauen fabrikazioa dago: karebisia, hidraulikoa eta arruntak, kare hilak edo itoak, igeltsu zuria eta beltza; eskaiola eta klariona, e.a.

243 TALDEA.- ERAIKUNTZAKO HORMIGOIZKO, ZEMENTUZKO, ISELTSUZKO, ESKAIOLAZKO ETA BESTELAKO MATERIALAK EKOIZTEA.

243.1 epigrafea.- Hormigoi prestatua ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,440951 euro.

Kw-ko: 8,708665 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan hormigoi egin berriaren edota nahastutako hormigoia fabrikazioa dago, hormigoiontzia daten kamioi berezietan obretara zuzen emandakoa barne.

243.2 epigrafea.- Fibrozementuzko produktuak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,044811 euro.

Kw-ko: 5,102593 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan dago fibrozementu eta amianto zementuzko produktuen fabrikazioa, besteak beste, plakak, tutuak, hodietako akzesorioak, eta eraikuntzako beste elementuak.

243.3 epigrafea.- Zementutik eratorritako beste produktu batzuk ekoiztea, zoladurak izan ezik.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.

Kw-ko: 3,053141 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hauen fabrikazioa dago: hormigoi arin, pisu eta aurrez tenkatutako hormigoiez fabrikatutako eraikuntza elementuak, bai eta zelulosa zementuzko eta pomez zementuzko gaiak, zolaztaketan erabilitako zementuzko gaietatik erakarritakoak izan ezik.

243.4 epigrafea.- Zementutik eratorritako zoladurak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,642133 euro.

Kw-ko: 2,644453 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan dago zolaztaketan erabiltzen diren zementuzko produktuak fabrikatzea.

243.5 epigrafea.- Igeltsutik eta eskaiolatik eratorritako produktuak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,913959 euro.

Kw-ko: 5,601433 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan igeltsu eta eskaiolaz eginiko eraikuntzagaiak sartzen dira, hala nola, xaflak, panelak, lauxak, zerrendak eta antzekoak.

## 244. TALDEA.- HARRI NATURALAREN INDUSTRIAK.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,749366 euro.

Kw-ko: 6,100273 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ondokoak hartzen ditu: marmolgintza (apaingarriak eta hilobiak) eta arbel langintza, eraikuntza harri eta harri naturala harrobitik kanpo lantzea, eta legar eta harearen industria ere bai.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

244.1 epigrafea.- Birrindu eta sailkatutako harri naturala.

244.2 epigrafea.- Harri naturala, tailatu eta zerratu besterik egin ez dena.

244.3 epigrafea.- Harri landua.

## 245 TALDEA.- URRATZAILEAK EKOIZTEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,370308 euro.

Kw-ko: 2,181674 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hau sartzen da: ehotarrigintza, harlatxen fabrikazioa, harraitz, esmerila, liz paperak eta lizohialak, leuntzeko oreak eta egikera mekanikoko beste gezterak fabrikatzea, bai naturalak bai aglomeratu artifizialak edo, bestela, diamante natural edota sintetikoekin artifizialki fabrikatuta daudenak. Halaber, oinarri gainean urratzailea fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

245.1 epigrafea.- Makinetarako ehotarriak eta antzeko produktuak, eta eskuz zorrozteko edo leuntzeko harriak.

245.2 epigrafea.- Beste urratzaile batzuk.

## 246 TALDEA.- BEIRAREN INDUSTRIA.

246.1 epigrafea.- Beira laua ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,181674 euro.

Kw-ko: 4,826127 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan sartzen da tenkatutako, ijeztutako edo urtutako beira laua ekoiztea.

246.2 epigrafea.- Beira hutsa ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,181674 euro.

Kw-ko: 5,661534 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan prozedura automatiko, erdiautomatiko eta eskuz fabrikatutako beira hutsa sartzen da. bai eta beirazko ontziak, prensatu gabeko mahairako eta etxerako beirazko gauzak, prentsaturako beira eta beste beira huts batzuk fabrikatzea ere.

246.3 epigrafea.- Beira teknikoa ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,181674 euro.

Kw-ko: 5,661534 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hau sartzen da: optikagintzarako beiraren fabrikazioa; bonbila, balbula eta lanpara elektrikoetarako beira (tutuak eta hagaxkak barne); laborategitarako beira graduatua, higiene, botika eta mediku erabileretarako beira; beira erregaitza; urtutako kuartzo eta silizezko gaiak; beira esmaltatuzko tutuak, hagaxkak eta borobilak; ortopediarako beira, e.a.

246.4 epigrafea.- Beira zuntza ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,181674 euro.

Kw-ko: 5,661534 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hau sartzen da: beira zuntzaren fabrikazioa (beira, kariketa eta zentrifugatuta) ohialgintzarako dena eta ez dena; etenik gabekoa eta etenekin; sartzen da hemen, era berean, arrokazko artile eta beirazko artilea, eta zuntz horrekin egindako gaiak, hala nola, panelak, koltxoiak, bela eta mastak, oihal eta zintak, hari eta metxak.

246.5 epigrafea.- Beira manipulatzeara.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,440951 euro.

Kw-ko: 14,123784 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan beira laua maneiatzeara (tenplatzea, leuntzea, pinttorratzea, grabaketa, lantzea, zilarbizitzea, zilartzea, e.a.) sartzen da, baita beira hutsa maneiatzeara (lantzea, apaintzea, e.a.) ere, eta beira sopleteaz maneiatzeara eta beste beira maneiaketak ere bai.

246.6 epigrafea.- Zeramikazko fritakinak eta esmalteak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,601433 euro.

Kw-ko: 8,402149 euro.

## 247 TALDEA.- ZERAMIKAZKO PRODUKTUAK EKOIZTEA.

### 247.1 epigrafea.- Produktu erregogorrek ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,160374 euro.

Kw-ko: 6,971740 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan mota guztietako produktu (silizedunak, aluminiadun, grafitodun, ikazdun, kromitadun, magnesitadun, bausitadun eta dolomitadunak) erregaitzen fabrikazioa sartzen da, hala nola adreiluak, blokeak, piezak, e.a.

### 247.2 epigrafea.- Zolatzeko edo estaltzeko lauzak ekoiztea, berniz eta esmalterik gabekoak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,659214 euro.

Kw-ko: 10,205186 euro.

### 247.3 epigrafea.- Zolatzeko edo estaltzeko lauzak ekoiztea, bernizdunak edo esmalteadunak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,659214 euro.

Kw-ko: 10,205186 euro.

### 247.4 epigrafea.- Zeramikazko baxerak, etxeko gauzak eta apaingarriak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 7,656894 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hau sartzen da: buztinezko gauzak (eltzegintza) fabrikatzea; toska arrunta, maiolika eta finazko gauzak; portzelana (zuria eta kolorekoa), gresa, bai eta ontziteria, etxerako gauzak eta apaingarriak fabrikatzeko den edozein material zeramiko ere.

### 247.5 epigrafea.- Lozazko, portzelanazko eta gresezko tresna sanitarioak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 7,656894 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da gres, toska eta portzelanaz higienarako eta komuneko denetarikoko aparatuak fabrikatzea.

### 247.6 epigrafea.- Instalazio elektrikoetarako zeramikazko isolatzaile eta pieza isolatzaileak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 7,656894 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da kanpoko eroanbide elektriko eta instalazio elektrikoetarako zeramikazko isolatzaileak eta pieza isolatzaileak fabrikatzea.

247.9 epigrafea.- Zeramikazko beste produktu batzuk fabrikatzea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,976380 euro.

Kw-ko: 7,656894 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hau sartzen da: eltzegintza industrialia;portzelana termikoa, teknikoa, laborategikoa, ontziak eta, pote bereziak; maira, aspil, pegar eta antzeko ontziak, eta eraikuntza eta arkitekturako material zeramikoa.

249 TALDEA.- METALIKOAK EZ DIREN BESTE PRODUKTU MINERAL BATZUEN INDUSTRIAK (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,659214 euro.

Kw-ko: 6,034162 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan dago amiantoazko, grafitozko, mikazko, asfaltozko eta antzeko materialez egindako produktuen fabrikazioa.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

249.1 epigrafea.- Asfaltozko produktuak.

249.2 epigrafea.- Amiantoazko produktuak.

249.9 epigrafea.- Metalikoak ez diren beste material batzuek eginiko produktuak.

25 multzoa.- Industria kimikoa.

251 TALDEA.- OINARRIZKO PRODUKTU KIMIKOAK FABRIKATZEA (OINARRIZKO FARMAZIAKO PRODUKTUAK IZAN EZIK).

251.1 epigrafea.- Petrokimikatik eratorritako produktu kimiko organikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,533002 euro.

Kw-ko: 14,556513 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan hidrokarburoak eta hidrokarburoen deribatuak fabrikatzea sartzen da monomeroak barne, hala nola azetilenoa benzenoa etilenoa butadienoa, nitrobenzenoa naftalenoa, propilenoa etilo bromuroak eta kloruruak, eta betilo, metilo eta beste batzuenak; baita hidrokarburo deribatu-halogenatu, nitratu eta nitrosatuak.

251.2 epigrafea.- Beste produktu kimiko organiko batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,533002 euro.

Kw-ko: 14,556513 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan karbokimikako produktuak eta sintesi bidez edo bestera fabrikatutako beste produktu organiko batzuk sartzen dira, hala nola, azido organikoak eta beraien deribatuak; alkohol eta deribatuak; aldehido eta zetona eta deribatuak; nitrogeno konposatuak (amidak, aminak, nitriloak) eta deribatuak; etereak eta deribatuak; fenolak eta deribatuak; karbono hidratoak eta deribatuak; eta harrikatza eta deribatuen destilazioa (benzola, mundruna) eta asfalto betun oxidatuak fabrikatzea ere bai.

251.3 epigrafea.- Produktu kimiko inorganikoak fabrikatzea, gas industrialak (gas konprimituak ez beste guztiak) barne.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,370308 euro.

Kw-ko: 0,937579 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan honako hauek biltzen dira: azido sulfurikoa eta produktu eratorriak (anhidrido sulfurosoa eta beraren eratorriak; kobre sulfatoa; aluminio sulfatoa; karbono sulfuroa; sodio sulfatoa eta sodio sulfuroa; sufre sublimatuak, birfinduak eta hauspeatuak, eta abar) sortzea; gas industrialak fabrikatzea, likidoak zein gasak (gas konprimituak ez beste guztiak; hauek dira gas konprimituak: fabrikatu ondoren, likido zein gas modura 150 bar-etik gorako presioan ontziratzen diren gas industrialak); elektrokimika; kaltzio karburoa sortzea; fosforoa, kaltzioa, artsenikoa, zianuroa, bromoa, iodoa sortzea; azido inorganikoak, baseak, hidroxidoak eta peroxidoak sortzea; haluro ez-metalikoak fabrikatzea; gatzak eta oinarriko beste produktu kimiko inorganiko batzuk sortzea; isotopo erradioaktiboak sortzea.

251.4 epigrafea.- Lehengai plastikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,211725 euro.

Kw-ko: 3,359658 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gordin egon eta itxura likidoa, hautsezkoa edo pikorduna duten lehengai plastikoen fabrikazioa biltzen du, hala nola fenoplastoak, aminoplastoak, poliesterak, poliamidak, poliuretanoak, silikonak, polimerizaziokinak (binilo polikloruroa, binilo poliazetatoa, akriliko, metakrilikoak, etab.), bai eta zelulosa azetatoz eta beste gai plastiko batzuz egiten diren gai plastikoena ere.

251.5 epigrafea.- Kautxu eta latex sintetikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,211725 euro.

Kw-ko: 3,359658 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kautxu eta latex sintetikoen lorpena biltzen du, hala nota, butilokautxua, polibutadienoa, estireno-polibutadienoa, akrilonitrilopolibutadienoa, poliklorobutadienoa, kautxuzko latex sintetikoa, estireno-polibutadienozko latexa eta beste batzuk.

251.6 epigrafea.- Zuntz artifizialak eta sintetikoak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,984710 euro.

Kw-ko: 8,708665 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zuntz artifizial-sintetikoen ekoizpena biltzen du, direla etengabeak, direla etenak, nahiz polimerizazioz edo monomero organikoen kondentsazioz edo izadiko polimero organikoen transformazioz lortuak izan, hala nola erraiona eta zelulosazko beste zuntz batzuk, zuntz akrilikoak, nylona eta beste zuntz poliamidiko batzuk, poliesterrezkoa, polipropilenoazko haria, etab.

251.7 epigrafea.- Azido eta anhidrido fialikoa eta maleikoa eta azido isoftalikoa eta tereftalikoa fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,244095 euro.

Kw-ko: 0,312526 euro.

252 TALDEA.- BATEZ ERE NEKAZARITZAN ERABILTZEN DIREN PRODUKTU KIMIKOAK FABRIKATZEA.

252.1 epigrafea.- Ongarriak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw-ko: 5,228805 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da fosfatodun ongarriak, nitrogenodunak, potasikoak eta beste batzuk (organikoak, konposatuak eta konplexuak) fabrikatzea. Azido sulfuriko, fosforiko eta nitrikoen fabrikak ere sartzen dira honen barruan, baldin eta ongarri fabrikekin batera badihardute eta bereizita sailkatu ezin badira.

252.2 epigrafea.- Pestizidak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 30,483334 euro.

Kw-ko: 28,427873 euro.

OHARRA: Epigrafe honek nekazaritzan erabiltzen diren zomorro-hilkari mota guztien fabrikazioa biltzen du, hala nola, ekoizkin organikoak eta ez-organikoak egiten diren nekazal intsektu-hilkariak; birbiraketa eta hausketarako formulazioak (kloratuak, fosforatuak, karbamatoak); bikorrezko formulazioak; keztakariak; akaro-hilkariak; nematizidak; zabarkenkariak eta hazien desinfektakariak; belar-kenkariak; molusku-hilkariak, etab.; abeltzaintzan erabiltzen diren mota guztietako ekoizkin kimikoak, bai eta intsektu-hilkariak eta etxean erabiltzen diren landare-sanitatezko beste ekoizkin batzuk ere.

253 TALDEA.- BATEZ ERE INDUSTRIAN ERABILTZEN DIREN PRODUKTU KIMIKOAK FABRIKATZEA.

253.1 epigrafea.- Gas konprimituak eta anhidrido karboniko solidoa (izotz lehorra) fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,173344 euro.

Kw-ko: 3,299556 euro.

OHARRA: 251.3 epigrafeko gas industrialak gas konprimituzat jotzen dira, 150 bar-etik gorako presioan ontziratuz gero.

253.2 epigrafea.- Koloragarriak eta pigmentuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,462250 euro.

Kw-ko: 12,194536 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da koloragarri eta pigmentu mineralak, organikoak eta sintetikoak fabrikatzea, hala nola, albaialdea, Prusiako urdina eta itsasosteko urdina, itopona, minioa, intxaur-tindua, okreak, titanio bioxidoa, burdinazko oxido gorriak (naturalak eta sintetikoak), zink oxidoak eta berun oxidoak, anilinazko koloragarriak, purpurinak, etab.

253.3 epigrafea.- Pinturak, bernizak eta lakak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,892551 euro.

Kw-ko: 17,669756 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan honako hauen fabrikazioa biltzen da: ur pinturak; ore koloreak; marrazkigintza eta arte pinturarako koloreak; zelulosatik eratorritako gaiez egindako pinturak, bernizak eta lakak; erretxina natural, artifizial eta sintetikoak edota kautxuaren, asfaltoaren eta olioaren eratorriez egindako pinturak, bernizak eta lakak; pinturrekin, bernizekin eta lakekin lotutako produktuak, hala nola olioeko mastikak, lehorkariak, desugertzaileak, disolbatzaileak eta beste batzuk.

253.4 epigrafea.- Moldiztegiko tintak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,892551 euro.

Kw-ko: 17,669756 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da hauen fabrikazioa: arte grafikoetarako tintak, helio-ediziorako tintak, offset motako tintak eta moldiztegiko beste tinta batzuk.

253.5 epigrafea.- Industrian erabiltzeko olioak eta koipeak tratatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 16,239347 euro.

Kw-ko: 10,577813 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da olioak eta koipeak bereiztea glizerina, estearina, lanolina, oleina, gantz azidoak eta detergenteak fabrikatzeko oinarritzko produktuak ekoizteko, eta koipe industrialak honako hauek lortzeko kimikoki eraldatzea ere: sulfonatoak, estearatoak, gantz alkoholak eta eratorriak, etab.

253.6 epigrafea.- Esentzia olioak eta substantzia aromatiko naturalak eta sintetikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 21,149616 euro.

Kw-ko: 23,205077 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen dira esentzien, esentzia olioien eta lehengai aromatiko naturalen fabrikazioa; elikagaien industriarako lehengai aromatiko naturalak destilatzea eta lurrin naturalez edo sintetikoaz egindako konposizioak fabrikatzea lurringintzarako eta elikagaien industriarako.

253.7 epigrafea.- Kolak eta gelatinak eta produktu osagarriak fabrikatzea ehungintzaren, larrugintzaren eta kautxuaren industriarako.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,761807 euro.

Kw-ko: 12,440951 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da honako hauek fabrikatzea: erretxina naturalez, zelulosikoez eta animalia jatorrikoez egindako kolak eta gelatinak, bai eta kaseinazkoak, elastomerozkoak eta plastomerozkoak ere; mastik itsagarriak eta aprestuak; larruak ontzeko produktuak (landare jatorrikoak eta sintetikoak) eta larrua ontzeko beste produktu kimiko osagarri batzuk; karbono beltza, kearen beltza eta azetileno beltza; alga aterakinak eta beste landare eta animalia gai batzuen aterakinak; ehun eta larruetarako labaingarriak etab.

253.8 epigrafea.- Lehergaiak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 20,656786 euro.

Kw-ko: 20,656786 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da denetariko lehergaiak eta bolborak fabrikatzea, hala nola binitrotoluenoa, dinamitak, nitrozelulosak, nitroglizerina, trilita, tretalita, kapsula fulminanteak, detonagailuak, metxak eta leherketa kordioak eta denetariko bolborak.

Gerrako munizioak fabrikatzea ere epigrafe honetan dago.

253.9 epigrafea.- Industrian erabiltzen diren beste produktu kimiko batzuk fabrikatzea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 9,706345 euro.

Kw-ko: 11,575493 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da industrian erabiltzeko diren beste produktu kimiko batzuk fabrikatzea, hala nola ikatz aktiboak eta artifizialak, lur aktibatuak eta beste mineral aktibatu batzuk (bentonita, koloregarri lurrak etab.); metalak, olioak eta ura tratatzeko produktu kimikoak

eta erabilera mekanikokoak (landare labaingarriak eta mistoak, transmisio hidraulikoetarako likidoak eta izotzaren kontrako likidoak, erregai eta labaingarrietarako, desugertzaileetarako, inskrustazioen kontrakoetarako gehigarriak); urratzaile kimikoak; erretxinadun gai naturalak eta horietatik eratorriak, etab.

## 254 TALDEA.- FARMAZIAKO PRODUKTUAK FABRIKATZEA.

254.1 epigrafea.- Oinarrizko farmaziako produktuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 16,551873 euro.

Kw-ko: 14,808938 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan biltzen da honako hauek fabrikatzea: alkaloideak, antibiotikoak, eratorri salizilikoak, pirazolak, barbiturikoak, sulfamidak, bitaminak, hormonak, medikuntzako landare aterakinak, erabilera opoterapikoetarako guruinez eta beste gai batzuez egindako prestakinak, serumak eta txertoak eta oinarrizko farmaziako beste produktu batzuk.

254.2 epigrafea.- Farmaziako espezialitateak eta beste produktu batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 13,685046 euro.

Kw-ko: 9,706345 euro.

OHARRA: Epigrafe horren barnean sartzten da giza medikuntzarako eta albaitaritzako medikuntzarako farmaziako espezialitateak eta pentsuen zuzentzaileak fabrikatzea, bai eta farmaziako beste produktu batzuk fabrikatzea ere, hala nola, aposituak, gasa esterilizatua, katguta, esparadrapua, analisisetarako erreaktiboak, preparatu galenikoak, etab.

## 255 TALDEA.- BATEZ ERE AZKEN KONTSUMORAKO DIREN BESTE PRODUKTU KIMIKO BATZUK FABRIKATZEA.

255.1 epigrafea.- Xaboi arruntak, detergenteak eta lixibak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,196856 euro.

Kw-ko: 13,438631 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzten da xaboi arrunta eta industrialak, detergenteak eta lixibak fabrikatzea.

255.2 epigrafea.- Apain mahaiko xaboiak eta lurringintzako eta kosmetikako beste produktu batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,393711 euro.

Kw-ko: 26,125996 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan honako hauek fabrikatzea sartzten da: norbere garbitasunerako produktuak (apain mahaiko, bainuko eta bizarra mozteko xaboiak, bainuko gatzak, desodoranteak, etab.); koloniak, lozioak eta lurrinak; edertzeko produktuak eta larrua zaindu eta

kontserbatzekoak; aho higienerako produktuak; ilea zaintzeko eta kontserbatzeko produktuak; lurringintza eta kosmetikako beste produktu batzuk.

255.3 epigrafea.- Argizarien eta parafinen eratorriak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 31,601216 euro.

Kw-ko: 19,100165 euro.

OHARRA: Epigrafe horren barnean argizariak prestatzea sartzen da; oinetakoak kontserbatu eta garbitzeko produktuak egitea; etxea kontserbatu eta zaintzeko argizarien eta parafinen deribatuak (zoru eta altzariendako enkaustikoak, metaletarako lustreak, e.a.); ibilgailuak kontserbatu eta garbitzeko argizarien eta parafinen deribatuak; kandelak, bujiak eta antzeko artikulua eta argizarien eta parafinen beste deribatu batzuk fabrikatzea.

255.4 epigrafea.- Argazkigintzako material sentsiblea fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw-ko: 25,380741 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: argazkigintza eta zinemarako pelikulak, plakak eta paperak; planoak kopiatzeko paperak (heliografikoak, azografikoak, e.a.); argazki laborategirako preparatu kimikoak (enfokatzailak, errebelatzaileak, finkatzaileak, gutxitzaileak) eta argazkigintzako beste material sentsiblea.

255.5 epigrafea.- Artikulu piroteknikoak, pospoloak eta supiztekoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,905521 euro.

Kw-ko: 31,787530 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da pirotekniagaiak fabrikatzea, hala nola, zuziak, gai fosforikoak, seinaleak egiteko gaiak eta salbamendurako gaiak, suziriak, trakak, trumoiak eta su artifizialak, baita mixtoak eta poxpoluak fabrikatzea ere.

255.9 epigrafea- Batez ere azken kontsumorako diren beste produktu kimiko batzuk fabrikatzea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,905521 euro.

Kw-ko: 31,787530 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da nagusiki azken kontsumorako diren beste produktu kimiko batzuen fabrikazioa, hala nola, bulego eta idaztegirako produktu kimikoena (tintak, klitxeak, ikatz-papera, e.a.); garbiketarako produktuena (beirak garbitzekoak, metalak garbitzekoak, mantxak kentzekoak, giroa garbitzekoak, e.a.) eta beste batzuen.

### 3 SAILA.- METALAK ERALDATZEKO INDUSTRIA, DOITASUNeko MEKANIKA

31 multzoa.- Metalezko produktuak fabrikatzea (garraioko makinak eta materiala izan ezik).

#### 311 TALDEA.- GALDAKETAK.

311.1 epigrafea.- Burdinazko eta altzairuzko piezen galdaketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,811366 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan sartzen da galdaketaren bidez, edozein prozedura erabiliz, burdinazko edo altzairuzko denetariko piezak ekoiztea.

311.2 epigrafea.- Burdina ez beste metal batzuek eta haien aleazioek egindako piezen galdaketa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 0,811366 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan sartzen da burdina ez beste metal batzuek eta haien aleazioek egindako piezen galdaketa (kobrea eta beraren aleazioak eta beste aleazio batzuk, arinak eta ultrarinak barne), bai eta presiozko galdaketaren bidez burdina ez beste metal batzuek eta haien aleazioek egindako produktuak ekoiztea ere.

#### 312 TALDEA.- FORJATZEA, ESTANPATZEA, ENBUTITZEA, TROKELATZEA, MOZTEA ETA SAKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,800716 euro.

Kw-ko: 2,181674 euro.

OHARRA: Talde honetan sartzen dira burdinazko metalak, burdinazkoak ez direnak eta aleazioak forjatzea, estanpatzea, moztea, trokelaetzea, sakatzea eta enbutitzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

312.1 epigrafea.- Pieza forjatuak.

312.2 epigrafea.- Pieza estanpatuak edo trokelatuak.

312.3 epigrafea.- Pieza enbutituak, moztuak edo sakatuak.

#### 313 TALDEA.- METALAK TRATATZEA ETA ESTALTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,367988 euro.

Kw-ko: 1,556621 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan sartzen dira metalak estaltzea edo janztea, tratamendu termikoa ematea, apaintzea eta apainduz babestea. Honako hauek biltzen ditu: elektrolisiz, oxidazio anodikoz eta fosfatazioz estaltzea, murgiltze bidez estaltzea, pintura metalikoa ematea, esmaltea ezartzea, lakaz estaltzea, leuntzea, etab.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

313.1 epigrafea.- Metalak tratatzea (tenplaketa, iraoketa, etab).

313.2 epigrafea.- Estaldura metalikoak.

313.9 epigrafea.- Metalak babesteko tratamenduak (BISG).

314 TALDEA.- EGITURAKO PRODUKTU METALIKOAK FABRIKATZEA.

314.1 epigrafea.- Zureria metalikoa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 3,858498 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da aroztegi metalikoko gaiak fabrikatzea, hala nola, ateak, leihoak, ate eta leihoetarako markoak, bastidoreak, markesinak, burdinesiak, hesiak, barandak, hormak, tabikeak, panelak, erlaitzak, lukanak, berokuntza, aireztapen, aire egokitu, estolderia, e.a.erako elementuak; baita bereizirik sailkatzea ezinezkoa den instalazio atxikia ere.

314.2 epigrafea.- Egitura metalikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 3,858498 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da egitura metalikoak fabrikatzea, hala nola, eraikinen armazoiak, hangar aurrefabrikatuak, zubietako elementuak, pasarelak, zutabeak, egitura elementu metalikoak, burdinbide, lehorreraleku, nasa finko, esklusa, e.a.etarako material finkoa eta bereizirik sailka ezin den instalazio atxikia.

315 TALDEA.- BILTEGI HANDIAK ETA GALDARA SENDOAK ERAIKITZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,228805 euro.

Kw-ko: 3,858498 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: likido edo gasetarako biltontzi handiak, tamaina handiko hodiak, galdara sekzioak, lurrunezko galdarak (multitubularrak, semitubularrak eta beste batzuk), tximiniak, metalezko tangak eta horien instalazio atxikia, horien eraikuntzatik bereizirik sailkatzea ezinezkoa denean.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

315.1 epigrafea.- Galdara handiak.

315.2 epigrafea.- Metalezko biltegi handiak eta beste galdara sendo batzuk.

316 TALDEA.- METALEZKO ERREMINTAK ETA GAI AMAITUAK FABRIKATZEA, MATERIAL ELEKTRIKOA IZAN EZIK.

316.1 epigrafea.- Esku erremintak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: nekazaritzako, baratzeko eta oihaneko esku-erremintak (palak, igitaiak, segak, aitzurrak, zerrak, e.a.); etxerako eta industriarako esku-lanabesak (mailuak, orrikak, giltz inglesak, e.a.); zura eta metalak lantzeko esku-lanabesak (zerrak, zerra-lamak, limak, zurzizelak, terrajak, mailuak, zulagailuak, e.a.); industriarako ganibetagaiak; errementerietako materiala (ingudeak, forjak, e.a.); eraikuntza, meatzaritza, txapistegi, e.a.etarako esku-lanabesak.

316.2 epigrafea.- Burdindegi eta sarrailagintzako produktuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da industriarako ez diren ganibetagaiak fabrikatzea; lamak, labanak eta bizarra kendu eta ilea mozteko makinak, elektrikoak ez direnak; sarrailagintzako gaiak; iturgintzako (balbulak eta kanilak izan ezik) eta lanpisteria eta latorrigintzako gaiak (ontzikiak izan ezik); fumisteria eta errementeriako gaiak (burdineria oro) eta burdindegiko beste gai batzuk.

316.3 epigrafea.- Torlojugintza eta alanbrearen eratorriak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da torlojuak, pernoak, azkoinak, arandelak, errematxeak, terrajak, e.a. fabrikatzea; malgukiak, balaztak eta kateak, erositako biribiletatik ateratako alanbrea, arko erako soldaketarako elektrodoak, iltzeak, metalezko ehunki eta mallak, alanbre ziztakaria, kableak (hari eta kable elektrikoak izan ezik), orratzak, izkilinbak eta alanbrearen deribatuak diren metalezko beste gai batzuk.

316.4 epigrafea.- Etxeko gauzak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da mahaiko tresnak fabrikatzea (metal bitxiez edo metal arrunt xaflanduez egindakoak izan ezik); sukaldeko eltzeria, baldeak, harraskak, bainerak, e.a., metalezkoak eta etxerako tresnak, energi bidez ibiltzen ez direnak (kafegailuak, ehogailuak, hozkailuak, lisakinak, e.a.).

316.5 epigrafea.- Elektriako ez diren sutegiak, berogailuak eta etxea berotzeko tresnak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da sukaldeak, berogailuak, estufak, suontziak, erradiadoreak eta berokuntzarako mota guztietako etxeko tresnak, egokitzapen elektrikorik gabeak, fabrikatzea.

316.6 epigrafea.- Metalezko altzariak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da honako hauek fabrikatzea: metalezko oheak, somierrak, matalaz malgukidunak; metalezko beste altzari batzuk, etxeakoak; bulegokoak; terraza eta lorategietakoak; osasun erabileretakoak eta ospitaletarakoak; diru kutxak, jatetxe, denda, ileapaindegietako osagarriak (metalezko besaulkiak, erakusmahaiak, beirategiak, e.a.); telefono kabinak, e.a. Baita pieza eta osagarriak fabrikatzea ere.

316.7 epigrafea.- Metalezko ontziak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da edukinontziak, altzairuzko xaflaz, latorriz eta aluminioz egindako ontzikiak, presioan dauden likido eta gasetarako ontziki bereziak eta metalezko beste ontzi batzuk fabrikatzea.

316.8 epigrafea.- Arma arinak eta haien munizioak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da arma arinak, ehizakoak, kirol orotakoak, neumobalistikoak, arma zuriak, e.a. fabrikatzea; baita horien proiektil eta munizioak eta horietarako ekipo, pieza eta osagarriak fabrikatzea ere. Gerrako armak ez daude epigrafe honetan.

316.9 epigrafea.- Metalekin bukatutako beste artikulua batzuk fabrikatzea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 3,173344 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: balbuleria eta txorrotak; iluminazio, seinalizazio eta iragarpenerako aparatu metalikoak, alde elektrikoa osagarria denean (lanparak, eskuargiak, iragarpen kartelak, seinalizazio plakak, e.a.); inprimategi-tipoak eta arestion sailkatu ez diren metalezko beste gai batzuk (metalez egindako edergailuak, eskuko grapagailuak, kanpaitxoak, e.a.)

319 TALDEA.- TAILER MEKANIKO INDEPENDENTEAK.

319.1 epigrafea.- Mekanika orokorra.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,168704 euro.

Kw-ko: 2,800716 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da makina-erreminten bidez metalak eraldatzeko prozedura desberdinen aplikazioa, enkarguz edo makineria edo material mekanikoa egiten duten enpresek ekarritako planoen arabera egiten badira.

319.9 epigrafea.- Tailer mekanikoak (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,603753 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da nekazaritzako materialaren konponketa espezializatua, soldadurako eta ferratzaile-forjatzaileen tailerrak, e.a. eta arestiko multzoetan zehaztu ez diren tailer independente guztiak.

32 multzoa.- Makinak eta tresna mekanikoak fabrikatzea.

321 TALDEA.- NEKAZARITZAKO MAKINAK ETA TRAKTOREAK EGITEA.

321.1 epigrafea.- Nekazaritzako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,357338 euro.

Kw-ko: 3,359658 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina hauek egitea: laborantza, ereintza, ongarrizketa eta bilketarako makineria; plagei aurre egitekoa; uztak bildu eta kontserbatzekoa; oihergintzako makineria eta ekipoa; loregintzako; jeizteko makinak eta aparatuak; dolaretako makineria; abeltzaintzako ustiategietarako aparatu eta osagarri bereziak; hegazti, erle, arrain, untxe-hazkuntzakoak, e.a. eta makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea.

321.2 epigrafea.- Nekazaritzako traktoreak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,357338 euro.

Kw-ko: 3,359658 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da nekazaritzako motokultore eta traktore gurpildunak eta traktore beldardunak egitea.

322 TALDEA.- METALAK, ZURA ETA KORTXOA LANTZEKO MAKINAK EGITEA; MAKINETARAKO TRESNAK, EKIPOAK ETA ORDEZKOAK.

322.1 epigrafea.- Metalak lantzeko makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina hauek egitea: metalak hotzean eta beroan lantzekoak, hala nola, ijjetzi eta trefilatzeako makineria, forjarakoa, estrusiorakoa; soldatzeko aparatu ez-elektrikoak; txirbilak kenduz mekanizatzen duten makinak, forma ematen dutenak eta antzeko beste makineria, eta makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea.

322.2 epigrafea.- Zura eta kortxoa lantzeko makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina hauek egitea: zerrategietarako makineria egitea (azala kentzekoak, adabakiak kentzekoak, desenrolatzaileak, zerrak); zura orokorrean lantzekoak (leuntzekoak, ijjetzekoak, tupiak, biribiltzekoak, lisatzekoak, prentsatzekoak; xaflak egitekoak eta kontraxaflatzekoak; zuntzak, txirbilak eta zerrautsa aglomeratzekoak; gogortu eta murgiltzekoak; altzarigintzako industriarako makineria; upelgintzarakoa; zurean egindako enbalaje eta beste gai batzuei bukaera ematekoak (zurezko zapatak eta orkoiak, saskigintza eta antzekoak, parketa, e.a.) eta kortxo, zume, e.a.erako industriarakoak eta makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea.

322.3 epigrafea.- Makina-erremintetarako gailuak, ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da makina-erremintetarako tresna, ekipoa, pieza eta osagarri oro fabrikatzea, hala nola, barautsak, mandrilak, fresak, daratuluak, kalibratzaileak, e.a.

### 323 TALDEA.- EHUNGINTZA, LARRUGINTZA, OINETAKOGINTZA ETA JANTZIGINTZA INDUSTRIETAKO MAKINAK EGITEA.

323.1 epigrafea.- Ehungintzako makinak eta beren osagarriak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makineria hau egitea: ehun zuntzak prestatzekoak, hariak prestatzekoak, ehunkiak fabrikatzekoak, puntuzkoak fabrikatzekoak, ehunkiak zuritu, tindatu, estanpatu eta bukaera ematekoak eta ehungintzako beste makineria; baita makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere.

323.2 epigrafea.- Larrugintzako eta oinetakogintzako industrietarako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina hauek egitea: larruak eta larrukiak prestatu eta lantzekoak (haragia kentzekoak, mailu edo zilindrodun triminak, arraskatzekoak, moztekoak, satinatu eta bikorra ateratzekoak) eta oinetakoak eta beste larruki eta larru antzeko batzuk fabrikatu eta konpontzeko makineria; baita makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere.

323.3 epigrafea.- Josteko makinak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da etxean eta industrian erabiltzeko josteko eta brodatzeko makinak fabrikatzea, baita horietarako ekipoa, piezak eta osagarriak ere.

### 324 TALDEA.- ELIKAGAIEN, PRODUKTU KIMIKOEN, PLASTIKOAREN ETA KAUTXUAREN INDUSTRIETARAKO MAKINAK ETA APARATUAK EGITEA.

324.1 epigrafea.- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industrietarako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean ondoko industrietarako makina eta aparatuak egitea: haragi industrietarakoak, esnetarakoak, kontserbatarakoak, oliotarakoak eta koipetarakoak, ehogintzarakoak, ogigintzarakoak, azukregintzarakoak, kakaorakoak eta txokolaterakoak, alkohola distilatzeakoak, ardogintzakoak, garagardotakoak, edariak fabrikatu eta ontziratzeakoak, tabakorakoak, e.a. Halaber, makina horietarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

324.2 epigrafea.- Industria kimikorako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da industria kimikorako eta petrolio errefinategietarako makinak eta aparatuak egitea (sailkatzeak, bereizteak, nahasteak, erreakzioa egiteak, e.a.), bai eta makineria horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere.

324.3 epigrafea.- Kautxua eta gai plastikoak eraldatzeko industrietarako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina eta aparatu hauek egitea: plastikoa eraldatzeko industrietarakoak (estrusatu, injektatu, moldeatu, e.a.etako makineria) eta kautxua eraldatzeko industrietarakoak (prestatu, errekauxutatu, e.a.etako makineria). Halaber, makina horietarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

325 TALDEA.- MEATZARITZARAKO, ERAIKUNTZARAKO ETA HERRILANETARAKO, SIDERURGIA ETA FUNDIZIORAKO ETA JASO ETA ERABILTZEKO MAKINAK ETA EKIPOA EGITEA.

325.1 epigrafea.- Meatzaritza, eraikuntza eta obra publikoetarako makinak eta ekipoa egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina eta ekipoa hauek egitea: meatzaritza eta harrobiarakoak (zundatu, atera eta erauzteko makineria; petrolio bilatu eta erauztekoak; mineralak garbitu eta prestatzekoak; segurtasun eta salbamendurako ekipoa, e.a.) eta eraikuntzarako eta herrilantzarako makineria eta ekipoa (hondeamakinak, zapalgailuak, konpaktatzeko makineria eta errepideak eraiki eta kontserbatzekoak, hormigoioentziak, zelatzeak, e.a.). Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

325.2 epigrafea.- Metalikoak ez diren produktu mineralen industrietarako makinak eta ekipoa egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makineria eta ekipoa egitea: beiraren, zeramikaren, harri naturalaren, zementuaren, kareen eta igeltsuaren industrietarakoak eta metalezkoak ez diren produktu mineral batzuen industrietarakoak (xehe, bahetu, garbitu, hauts

bihurtu, nahasi, eho, e.a.atarako makinak). Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

325.3 epigrafea.- Siderurgiarako eta galdaketarako makinak eta ekipoak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da siderurgia eta fundiziorako makineria eta ekipoa egitea, hala nola, bihurgailuak, isurketako bertzak, lingotontziak, isurketako makineria, ijzterko trenak eta fundiziorako makinak eta materiala. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

325.4 epigrafea.- Jasotzeko eta manipulatzeko makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da eraikin, meategi, establezimendu, geltoki, kai, aireportu, e.a.etan jendea edo materialak igo, goratu eta lekuz aldatzeko makineria egitea, hala nola, igogailuak, muntakargak eta eskailera mekanikoak egitea; bagoneta eta traktore industrialak; garabi errodatzaileak, zubi-garabiak eta erre bakarreko garabiak; garraiaigailu mekanikoak (zinta bidezkoak, arrabolen bidezkoak, kateen bidezkoak, e.a.); metatzeko makinak, bagoi baskulatzailak, e.a. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Halaber, epigrafe horren barnean sartzen dira teleferikoak, funikularrak eta kableen bidez herrestan ekarri eta erremolkatzeko beste ekipoak eta, gindaxak, debiletak, katu hidraulikoak eta katu neumatikoak, e.a.

326 TALDEA.- TRASMISIORAKO ORGANOAk FABRIKATZEA.

326.1 epigrafea.- Engranajeak, transmisio kateak eta beste transmisio organo batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: abiadurak aldatu eta erregula daitekeen abiaduran jartzeko aparatuak, abiadura-kutxak, erregula daitekeen abiadurako mihizadura hidraulikoak; abiadura murriztu eta handitzekoak; enbrageak, engranajeak eta engranaje-trenak; transmisio kateaduna eta gurpil katalinoduna (bizikleten kateak barne); artikulazio-junturak, mota hidrauliko malgukoak eta unibertsalak barne eta transmisiorako osagarriak, hala nola, transmisio-ardatzak, bolanteak, poleak, e.a. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

326.2 epigrafea.- Errodamenduak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da errodamendu eta kuxinete leun, boladun, arraboldun, orraztunak, e.a. fabrikatzea, baita haien piezak eta osagarriak ere.

329 TALDEA.- BESTE MAKINA ETA EKIPO MEKANIKO BATZUK EGITEA.

329.1 epigrafea.- Paperaren, kartoiaren eta arte grafikoen industrietarako makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako makina hauek egitea: paper-orea, papera eta kartoia ekoiztekoak (zatitzeoak, zuntza kentzeoak, xehatzeoak, loditzeoak, ore-errotak, Foudrinier erako makinak eta zilindro erakoak kartoia fabrikatzeko eta aurrebobinatzaileak, eta paperari dirdira eman, trenpatu, satinatu, arraiatu eta kizkurtzeoak); papergaiak prestatzeko makinak (poltsak, kartazalak, papera eta kartoi ondulatua, kaxak eta kartoizko beste ontzi batzuk egiteko, papergaiak moldeatzeko, papera moztu eta zulatzeko, e.a.) eta inprimategi eta enkuadernaziorako makineria eta ekipoa (linotipia, estererotipia, minerbak, errotatiba-prentsak, offset erako makina litografikoak, tolestatzekoak, gomatzekoak, grapatzeoak, liburuak prentsatzekoak, jostekoak, e.a.). Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

329.2 epigrafea.- Lehorrean ikuzteko eta garbitzeko makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da tindatu, lisatu, garbitu, lehortu eta lehorrean garbitzeko makinak egitea, bai eta makina horietarako ekipoa, piezak eta osagarriak ere.

329.3 epigrafea.- Motorrak eta turbinak fabrikatzea (garraiorako direnak izan ezik).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako hauek egitea: motor eta turbina hidraulikoak; lurrin makinak; lurrin eta gasezko turbinak; diesel eta semidieselak diren motorrak; aire edo gas konprimatuko motorrak; e.a. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

329.4 epigrafea.- Fluidoak manipulatzeko makinak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako hauek egitea: transmisio hidrauliko eta pneumatikoak (zirkuitu oleohidraulikoetarako metagailuak, presio biderkatzaileak, presio eta emariaren mugatzaile edo murriztaileak, likido goratzaileak, e.a.); aire eta gasen konpresoreak eta gasetarako makina bereziak; likidoetako eta hutserako ponpak; erreminta pneumatikoak. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

329.9 epigrafea.- Beste makina eta ekipo mekaniko batzuk egitea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,220475 euro.

Kw-ko: 4,729965 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da beste epigrafe batzuetan zehaztu gabeko makina eta ekipo mekanikoak egitea, hala nola, aparatu eolikoak; etxerako ez diren hozkailuak; airea egokitu, hoztu eta aireztatze makineria; pisatzeko aparatuak (prezisioko balantzak izan ezik); industriarako zentrifugatzeak eta iragazteko ekipoak (elikagai eta edarien industriarakoa izan ezik); elektrikoak ez diren labe industrialak; egokitu eta enbalatzeko makineria (elikagai eta edarien industriarakoa izan ezik); likido edo hautsak atomizatze ekipoa; saldu eta banatzeko aparatu automatikoak; makina txanponjaleak; automobilen zerbitzugunetako garbiketa eta olioztaketa ekipoa; suteen kontrako materiala; gerrako armamentua egitea; erlojugintzako makineria, ostalaritzako zerbitzuak emateko makineria. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

32 MULTZO OSORAKO OHARRA: Multzo honetan matrikulatutako subjektu pasiboek, inolako kuota osagarririk ordaindu beharrik gabe, berek fabrikatutako makina eta ekipo mekanikoa instala ditzakete, beti ere instalazio hori fabrikatzaileak berak egiten badu.

33 multzoa.- Bulegoko makinak eta ordenagailuak egitea (instalazioa barne).

330 TALDEA.- BULEGOKO MAKINAK ETA ORDENAGAILUAK EGITEA (INSTALAZIOA BARNE).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,845528 euro.

Kw-ko: 5,288907 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da honako hauek egitea: idazmakinak, estenotipia eta antzekoak; kalkulagailuak, batugailuak, kontatzeko makinak, erregistratzeko kutxak eta antzekoak; dokumentuak kopiatu eta erreproduzitzekoak (fotokopiagailuak izan ezik); fitzak zulatu, egiaztatu eta sailkatzeak; datuak elektronikoki prozesatzeko ekipoak, horien instalazioa barne. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

330.1 epigrafea.- Bulegoko makinak eta ordenagailuak.

330.2 epigrafea.- Bulegoko makinak eta ordenagailuak instalatzea.

34 multzoa.- Makina eta tresna elektrikoak egitea.

341 multzoa.- HARI ETA KABLE ELEKTRIKOAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da hari eta kable elektrikoak fabrikatzea (material isolagarriko zorroa duten eroaleak, eroale esmaltatuak, blindatuak edo babes berezikoak, urpeko eta lurrazpiko kableak, bobinetarako hariak, elektronika eta frekuentzia altuko kable bereziak, e.a.) eta hari eta kable telefoniko eta telegrafikoak (koaxialak eta beste batzuk).

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

341.1 epigrafea.- Komunikazioetarako hari eta kable isolatuak.

341.2 epigrafea.- Elektrizitatea garraiatzeko hari eta kable isolatuak.

341.3 epigrafea.- Bobinetarako hari eta kable isolatuak.

341.4 epigrafea.- Portalanporetako kordoi malguak eta hari isolatuak.

341.5 epigrafea.- Eraikuntzako instalazioetarako hari eta kable isolatuak.

341.9 epigrafea.- Beste hari eta kable isolatu batzuk.

342 TALDEA.- ERABILI ETA EKIPATZEKO MATERIAL ELEKTRIKOA FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: mikromotorrak, motor unibertsalak, monofaseak eta beste motor elektriko batzuk; sorgailuak; bihurtzailuak, multzo elektrogenoak; eraldagailuak, korronea zuzentzekoak; iman iraunkorrak eta tresna elektromagnetikoak; kondentsagailuak, konmutagailuak, babesgailuak; trakzio eta garraiorako ibilgailuetarako ekipo elektrikoak; makinak, komunikabideak eta orokorrean instalazioak (elektronikoak izan ezik) banatu, agindu, seinalizatu eta babesteko koadroak; dinamoak, magnetoak, buxiak, pizteko bobinak; ibilgailuetarako osagarri elektrikoak; labe industrial elektrikoak, ibilgailu industrial elektrikoak; erreminta elektrikoak; soldadura elektrikoko aparatuak, galbanoplastiako materiala, e.a. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

342.1 epigrafea.- Energia elektrikoa sortzeko eta eraldatzeko makinak eta aparatuak.

342.2 epigrafea.- Erabili eta ekipatzeko beste material elektriko batzuk.

### 343 TALDEA.- PILAK ETA METAGAILUAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da pila eta bateria oro, lehorrak eta hezeak, fabrikatzea; baita berunezko metagailuak, metagailu alkalinoak eta beste batzuk fabrikatzea ere.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

343.1 epigrafea.- Pila elektrikoak.

343.2 epigrafea.- Metagailu elektrikoak.

343.3 epigrafea.- Pila eta metagailu elektrikoen osagarriak, atalak eta pieza solteak.

### 344 TALDEA.- NEURTZEKO, KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO KONTAGAILU ETA APARATU ELEKTRIKOAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da energia elektrikoko kontagailuak, neurtzeko eraldagailuak eta presioa, tenperatura, mailak, e.a. neurtu, kontrolatu, egiaztatu, erregulatu edo aztertzeko beste tresna eta aparatu elektriko batzuk fabrikatzea.

### 345 TALDEA.- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da etxerako aparatu elektrikoak fabrikatzea, hala nola, sukaldeak, labeak, irabiagailuak, ehogailuak, parrilak, kafegailuak, lauskigailuak, latairekitzekoak eta sukaldeko beste aparatu osagarri batzuk; zurgagailuak, ekortzaileak eta ezkoztagailuak; hozkailuak, lisakinak, bizarmakinak, lehorgailuak, haizagailuak; hondakin birringailuak; garbigailuak eta ontzigarbigailuak; berogailuak eta estufa elektrikoak, burusi elektrikoak, e.a. Halaber, makina horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

- 345.1 epigrafea.- Sukaldeak, labeak, plakak eta kozinatzeko beste aparatu elektriko batzuk.
- 345.2 epigrafea.- Etxerako hozkailuak eta izozkailuak.
- 345.3 epigrafea.- Etxerako ontzigarbigailuak, garbigailuak eta arropa lehorgailuak.
- 345.4 epigrafea.- Ur-berogailu elektrikoak eta lokalen berokuntzarako aparatu elektrikoak.
- 345.5 epigrafea.- Etxerako haizagailuak eta haize-egokitzaileak.
- 345.6 epigrafea.- Sukaldeko aparatu elektriko osagarriak.
- 345.7 epigrafea.- Etxea zaintzeko eta mantentzeko aparatu elektrikoak.
- 345.8 epigrafea.- Beste etxetresna elektriko batzuk.
- 345.9 epigrafea.- Etxetresna elektrikoetako osagarriak, atalak eta pieza solteak.

#### 346 TALDEA.- LANPARAK ETA ARGITZEKO MATERIALA FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,404469 euro.

Kw-ko: 5,913959 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: goritasun, fluoreskentsia, arku, neoi gasezko lanparak, merkurio eta sodio-lurrunezko lanparak, flash erako, argi ultramore eta infragorriko bonbilak, hodiak, projektargailuak, faroak eta lanparak; elektrodoak eta erabilera elektrikoetarako ikatz eta grafitozko beste produktu batzuk fabrikatzea eta argitzeko beste material bat eta horren osagarriak fabrikatzea (kable eta hari elektrikoak eroateko hodi isolagarriak, isolatzaileak eta material isolagarria zeramika, beira eta gai plastikoetakoak izan ezik, borneak, konektargailuak, entxufeak, e.a.)

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

- 346.1 epigrafea.- Lanpara elektrikoak.
- 346.2 epigrafea.- Deskargarako intentsitate altuko argiak.
- 346.3 epigrafea.- Erabilera elektrikoetarako ikatzezko eta grafitozko produktuak.
- 346.4 epigrafea.- Argitzeko beste material batzuk.
- 346.5 epigrafea.- Lanparen eta argitzeko materialen osagarriak, atalak eta pieza solteak.
- 35 multzoa.- Material elektronikoa fabrikatzea (ordenagailuak izan ezik).

#### 351 TALDEA.- TELEKOMUNIKAZIOKO APARATUAK ETA EKIPOAK FABRIKATZEA.

351.1 epigrafea.- Aparatu eta ekipo telefonikoak eta telegrafikoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako hauek egitea: zentral telefoniko eta telegrafikoak, transmititu eta jasotzeko aparatuak eta terminal telefoniko eta telegrafikoak (telex-a barne), teleanprimagailuak, hargailu tipografikoak, irudien transmisore telegrafikoak eta beste material osagarria, pieza eta osagarri telefoniko eta telegrafikoak.

351.2 epigrafea.- Irrati komunikaziorako, irrati difusiorako eta telebistako aparatuak eta ekipoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako aparatu eta ekipo hauek egitea: irratikomunikazio, irratigida, irratilokalizazio eta irratizundaketako aparatuak eta ekipoa; irratihedapen eta telebistako ekipo igorle eta transmisoreak eta haririk gabeko komunikazioetarako beste ekipo eta aparatu batzuk. Halaber, aparatu horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

352 TALDEA.- ELEKTROMEDIKUNTZAKO ETA PROFESIONALEK ETA ZIENTIFIKOEN ERABILTZEKO APARATUAK ETA EKIPOAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da honako aparatu eta ekipo hauek egitea: diagnostikatzeko ekipo elektriko eta elektronikoa, eritasunei aurre egin, bizi-funtzioak ordezkatu, e.a. etarako aparatuak eta ekipoa; erabilera profesional eta zientifikorako aparatu eta tresna elektronikoak. Halaber, aparatu horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

353 TALDEA.- SEINALIZATU, KONTROLATU ETA PROGRAMATZEKO APARATU ETA EKIPO ELEKTRONIKOAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da honako aparatu eta ekipo hauek egitea: nabigaziorako, trenbideetako, hiribideetako, errepideetako, aireportuetako eta aire-errutetarako seinalizazio, kokapen eta programazioko aparatu eta ekipo elektronikoak; instalazio industrialak, e.a. automatikoki zaindu eta gobernatzeko ekipo elektronikoak. Halaber, aparatu horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

354 TALDEA.- OSAGAI ELEKTRONIKOAK ETA ZIRKUITU INTEGRATUAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: balbula elektronikoak (igortzekoak, ozkilagailuak, e.a.) (aparatu eta ekipoen fabrikazioa alde batera utzita), izpi katodikoak hodiak, X izpien hodiak eta beste hodi elektroniko batzuk; erdieroaleak, zirkuitu integratuak eta edozein aparatu eta ekipotarako beste osagai elektroniko batzuk.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

354.1 epigrafea.- Balbulak eta hodi elektronikoak eta X izpien hodiak.

354.2 epigrafea.- Beste osagai elektroniko aktibo batzuk.

354.3 epigrafea.- Osagai elektroniko pasiboak.

354.4 epigrafea.- Osagai elektronikoak eta zirkuitu integratuen osagarriak, atalak eta pieza solteak.

355 TALDEA.- HARGAILUAK ETA SOINUA ETA IRUDIA ERREGISTRATU ETA ERREPRODUZITZEKO APARATUAK FABRIKATZEA. DISKO ETA ZINTA MAGNETIKOAK GRABATZEA.

355.1 epigrafea.- Irrati eta telebistak, eta soinua eta irudia erregistratu eta erreproduzitzeko aparatuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da irratia, telebistak, diskojogailuak, magnetofonoak, mikrofonoak, bozgorailuak eta soinua eta irudia erregistratu eta erreproduzitzeko beste aparatu batzuk. Halaber, aparatu horietarako ekipoak, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

355.2 epigrafea.- Soinu, bideo eta informatikako euskarri grabatuen edizioa.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,522352 euro.

Kw-ko: 6,905629 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da soinu, bideo eta informatikako euskarriak grabatu eta erreproduzitzea.

36 multzoa.- Automobilak eta haien aldagaiak fabrikatzea.

### 361 TALDEA.- AUTOMOBILAK ETA HAIEN MOTORRAK FABRIKATZEA ETA MUNTATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,483550 euro.

Kw-ko: 2,554301 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da honako hauek egitea: ibilgailuetarako motorrak eta turismoak, kamioiak, traktokamioiak, furgoiak, autokarrak, autobusak, trolebusak, noranahiko ibilgailu arinak, helburu militarretarako ibilgailuak (gerra-gurdiak eta artileriako pieza autopropultsatuak izan ezik), anbulantziak, hil-autoak, suhiltzaileen ibilgailuak, patruila-autoak, karrera-autoak, e.a. Halaber, horien osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

361.1 epigrafea.- Turismoak.

361.2 epigrafea.- Autobusak eta autokarrak.

361.3 epigrafea.- Kamioiak.

361.4 epigrafea.- Beste ibilgailu automobil batzuk.

361.5 epigrafea.- Ibilgailuen motorrak.

361.6 epigrafea.- Ibilgailuen txasis motordunak.

361.7 epigrafea.- Ibilgailuen osagaiak.

### 362 TALDEA.- KARROZERIAK, ATOIAK ETA IRAULKIAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,483550 euro.

Kw-ko: 2,554301 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauek sartzen dira: turismo, autobus, kamioi eta beste ibilgailu batzuetarako karrozeriak egitea; atoi-etxebizitzak egitea eta kanpatzekoak, merkataritza-atoiak, zama bereziak garraiatzeko eta beste erabilera batzuetarako. Halaber, kamioien eta iraulkien kutxa irekiak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

362.1 epigrafea.- Ibilgailuen eta atoiaren karrozeriak.

362.2 epigrafea.- Atoiak eta iraulkiak.

363 TALDEA.- IBILGAILUETARAKO EKIPOAK, OSAGAIK, OSAGARRIAK ETA ORDEZKO PIEZAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,483550 euro.

Kw-ko: 2,554301 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: transmisioak, abiadura-kutxak, enbrageak, erradiadoreak, klimatizagailuak, norabide-mekanismoak, esekidura-sistemak, atzeko zubi osoak, irazkiak, injekzio ponpak eta sistemak, eskapeko sistemak, isilgailuak, gurpilak, galgak, motorraren eta karrozeriaren euskarriak, erregai biltontziak eta ibilgailuetarako beste ekipoak, osagarriak eta ordezeko piezak.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

363.1 epigrafea.- Ibilgailuen motorretarako ekipoa, osagaiak, osagarriak eta ordezeko piezak (ekipo elektrikoa izan ezik).

363.2 epigrafea.- Ibilgailuen karrozerietarako ekipoa, osagaiak, osagarriak eta ordezeko piezak.

363.9 epigrafea.- Ibilgailuetarako beste ekipo, osagai, osagarri eta ordezeko pieza batzuk (ekipo elektrikoa izan ezik).

37 multzoa.- Ontzigintza, itsasontziak konpontzea eta mantentzea.

371 TALDEA.- ONTZIGINTZA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,858498 euro.

Kw-ko: 1,929249 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da honako hauek egitea: trasatlantikoak, merkataritza ontziak, gerra ontziak, arrantzontziak, pakeboteak, zisterna ontziak, hozkailu ontziak, erremolkatzaileak, itsasontzi ozeanografikoak, belaontziak, itsasargi ontziak, ponpa ontziak, itsasontzi dragatzaileak, kirol eta aisiarako itsasontziak, e.a.; eta ontzietarako mota guztietako motorrak eta turbinak eta ontziei berariazko zaizkien ekipoa, makineria eta osagarriak. Horren barne sartzen dira altzairuzko, zurezko, aluminiozko eta beste material batzuekin egindako kaskoa duten ontziak.

Halaber, multzo horretan sartzen dira tramankulu flotagarriak, hala nola, buiak, biltontzi flotagarriak, barradera flotagarriak, mota orotako baltsak, e.a.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

371.2 epigrafea.- Zurezko kaskoa duten itsasontziak.

371.3 epigrafea.- Plastikozko eta beste material batzuetako kaskoa duten itsasontziak.

371.4 epigrafea.- Tramankulu flotagarriak.

371.5 epigrafea.- Itsasontzien eta ontzien motorrak, turbinak eta propulsiarako beste makina batzuk.

371.6 epigrafea.- Itsasontzi, ontzi eta tramankulu flotagarrien eta horiek bultzatzeko makinaren osagarriak, zatiak eta pieza solteak (ontzigintzarako egitura metalikoak izan ezik).

### 372 TALDEA.- ITSASONTZIAK KONPONTZEA ETA MANTENTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,858498 euro.

Kw-ko: 1,929249 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da mota orotako ontziak konpontzea eta mantentzea, bai eta zatikatzea ere.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

372.1 epigrafea.- Itsasontzi, ontzi eta tramankulu flotagarriak konpondu eta mantentzeko zerbitzuak.

372.2 epigrafea.- Itsasontzi, ontzi eta tramankulu flotagarriak zatikatzeko zerbitzuak.

38 multzoa.- Garraioko beste material batzuk fabrikatzea.

### 381 TALDEA.- TRENBIDEETAKO MATERIALA FABRIKATZEA, KONPONTZEA ETA MANTENTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,367988 euro.

Kw-ko: 1,622733 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da honako hau egitea: mota guztietako lokomotoreak egitea (lurruneoak, tenderrak, elektrikoak, dieselezkoak, gas-turbinadunak eta beste batzuk); lokomotoretako lurrun-galdarak, motoreak eta turbinak; automotoreak, tranbiak, autobiak; zerbitzu azkarra emateko, burdinbideak mantendu eta aztertzeko, e.a.etarako lur azpiko eta gaineko trenetarako auto motordunak; trenbidetarako beste material mugikorra, tranbien, hiri azpiko trenen, lur gaineko trenen, zerbitzu azkarreko trenen, e.a.en atoiak (salgaietarako eta bidaiariendako bagoiak, plataformak, bagoi bereziak, e.a.). Halaber, material hori konpondu eta mantentzea, eta material horretarako ekipoa, piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen dira.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

381.1 epigrafea.- Trenbideetako materiala.

381.2 epigrafea.- Trenbideetako materiala konpontzeko eta mantentzeko zerbitzuak.

### 382 TALDEA.- AIREONTZIAK EGITEA, KONPONTZEA ETA MANTENTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,843208 euro.

Kw-ko: 3,672184 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean honako hauek sartzen dira: mota eta erabilera orotako (norberaren erabilerarako, kirolerako, merkataritzako, gerrarako) hegazkinak eta hegazkintxoak, helikopteroak eta autogiroak; aerostatoak eta barkila duten globoak, aeromodeloak, planeagailuak, belaontziak; espazio ontziak eta projektile balistikoak; aerolabangailuak, bertikalean airetu eta lur hartzeko aireontziak, e.a.; aireontzietako mota orotako motorrak egitea (enbolodunak, turboerreaktoreak, termoerreaktoreak, turbohelizedunak, e.a.); zelulak egitea eta aireontzietarako piezak, osagarriak eta ekipoa egitea (helizeak, errotorak, lur hartzeko trenak, e.a.). Halaber, aireontziak konpontzea, berrikustea eta mantentzea ere sartzen dira.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

382.1 epigrafea.- Aireontziak eta espazioko ingenio aeronautikoak.

382.2 epigrafea.- Aireontziak konpondu, berrikusi eta mantentzeko zerbitzuak.

### 383 TALDEA.- BIZIKLETAK ETA MOTOZIKLETAK ETA HAIEN ORDEZKO PIEZAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,669864 euro.

Kw-ko: 2,428089 euro.

**OHARRA:** Talde honen barnean sartzen da honako hauek egitea: motozikletak, motonetak, ziklomotorrak, elbarriendako auto eta aulki motordunak eta pedalekin ibiltzen diren elbarriendako auto eta aulkiak, bizikletak, tandenak, trizikloak eta beste belozipedo batzuk egin eta muntatzea; garraiorako material horretarako motorrak, engranajeak, transmisio organoak eta ekipoa, piezak eta osagarriak (aulkitxoak, eskutokiak, sidekarrak, atoiak, koadroak, pedalak, galgak, gurpilak, e.a.)

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

383.1 epigrafea.- Motozikletak, scooterrak eta ziklomotorrak.

383.2 epigrafea.- Bizikletak, trizikloak eta monozikloak (haurrenak izan ezik).

383.3 epigrafea.- Propulsiarako tresnak dituzten ibilgailu bereziak.

383.4 epigrafea.- Motozikleta, scooter, ziklomotor eta ibilgailu berezietarako motorrak.

383.5 epigrafea.- Bizikleten eta motozikleten osagarriak, atalak eta pieza solteak.

### 389 TALDEA.- GARRAIOKO BESTE MATERIAL BATZUK FABRIKATZEA (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,669864 euro.

Kw-ko: 2,428089 euro.

OHARRA: Talde honen barnean garraiorako material hau sartzen da: haurrentako kotxetxoak eta aulkiak, elbarriendako auto eta aulkiak, ibiltzeko sistema mekanikorik ez dutenak, animaliek tiratutako ibilgailuak eta lerak (gurdiak eta gurditxoak, simoiak, tartanak, diligentziak, e.a.); gurditxoak eta eskuz ibiltzeko beste ibilgailu batzuk, e.a. Halaber, material horretarako piezak eta osagarriak fabrikatzea ere sartzen da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

389.1 epigrafea.- Nekazaritzako atoiak eta animaliek tiratutako ibilgailuak.

389.2 epigrafea.- Eskuz ibiltzen diren ibilgailuak.

389.9 epigrafea.- Garraiorako beste material batzuen (BISG) osagarriak, zatiak eta pieza solteak.

39 multzoa.- Doitasuneko tresnak, optikako tresnak eta antzekoak fabrikatzea.

### 391 TALDEA.- DOITASUNEKO, NEURTZEKO ETA KONTROLATZEKO TRESNAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,218155 euro.

Kw-ko: 5,415119 euro.

OHARRA: Talde honen barruan honako hauek eta beren piezak eta osagarriak fabrikatzea sartzen da: gasaren, uraren eta beste likido batzuen kontagailuak (erregaien hornigailuetarako kontagailuak barne); neurtzeko, kontrolatzeko eta erregulatzeko aparatuak (erregulatzailak, mailaren indikatzaileak, dentsimetroak, e.a.); nabigazio eta aeronautikarako aparatuak; hidrologia, geofisika eta meteorologiako aparatuak; laborategiko aparatuak; doitasuneko balantzak; doitasuneko dimentsioa neurtzeko tresnak; irudigile, delineatzaile eta pantografoendako aparatuak eta tresnak; kalkuluko tresnak; irakaskuntza eta demostraziorako materiala (anatomiko maketak, e.a.).

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

391.1 epigrafea.- Elektriakoak ez diren kontagailuak.

391.2 epigrafea.- Nabigazio eta aeronautikarako tresnak eta aparatuak.

391.3 epigrafea.- Topografia, meteorologia, hidrologia eta geofisikarako tresnak eta aparatuak.

391.4 epigrafea.- Dentsitatea, tenperatura, presioa, hezetasuna eta antzekoak neurtu, kontrolatu eta erregulatzeko tresna eta aparatuak.

391.5 epigrafea.- Materialen entseiu mekanikoetarako tresna eta aparatuak.

391.6 epigrafea.- Doitasuneko balantzak eta doitasuneko dimentsioa neurtzeko beste tresna eta aparatu batzuk.

391.7 epigrafea.- Doitasun, neurketa eta kontrolerako beste tresna eta aparatu batzuk.

391.8 epigrafea.- Doitasun, neurketa eta kontrolerako tresna eta aparatuen osagarriak,

392 TALDEA.- MATERIAL MEDIKO-KIRURGIKOA ETA APARATU ORTOPEDIKOAK FABRIKATZEA.

392.1 epigrafea.- Material mediko-kirurgikoa fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,218155 euro.

Kw-ko: 5,415119 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan medikuntza, kirurgia eta odontologiko materialak eta beren piezak eta osagarriak fabrikatzea sartzen da (ez elektrikoa, ez oftalmologikoa): elektrikoak ez diren diagnostikorako aparatuak; esterilizatu, anestesia eman eta erreanimatzeko tresnak; material eta altzari kirurgikoa; odontologiako tresna bereziak; albaitaritzako aparatuak; mekanoterapia, masaje eta psikotekniako aparatuak.

392.2 epigrafea.- Protesiak eta ortopedia aparatuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,218155 euro.

Kw-ko: 5,415119 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauek sartzen dira: aparatu ortopedikoak (kortseak, eusteko elementuak) eta begi, hartz eta entzumen protesiak fabrikatzea; esku, beso, hanka artifizialak, e.a.; eta hausturak daudenerako artikulua eta aparatuak (makuluak, besoeskarriak, eta haustura eta luxazioetarako beste aparatuak) eta aparatu horietarako piezak eta osagarriak fabrikatzea.

393 TALDEA.- TRESNA OPTIKOAK ETA MATERIAL FOTOGRAFIKO ETA ZINEMATOGRAFIKO FABRIKATZEA.

393.1 epigrafea.-Tresna optikoak eta material fotografiko eta zinematografikoa (betaurrekoetarako armazoiak izan ezik).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,218155 euro.

Kw-ko: 5,415119 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: lenteak, prismak, ispiluak, ukipen lenteak, betaurrekoak (plastikozkoak izan ezik), prismatikoak, biserak, doitasuneko tresna optikoak, tresna oftalmologikoak, teleskopioak eta astronomiako beste aparatu batzuk (erradioastronomikoak izan ezik), mikroskopioak; argazki makinak, flasheko aparatuak, fotokopiagailuak, filmagailuak eta beste material fotografikoa (projekzio pantailak, irazki

kromatikoak, hiruoinekoak); projektagailuak eta kamara zinematografikoak eta beste material zinematografikoa; tresna eta material horien piezak eta osagarriak.

393.2 epigrafea.- Betaurrekoen armazoiak fabrikatzea (plastikozkoak izan ezik).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,612083 euro.

Kw-ko: 3,113243 euro.

399 TALDEA.- ERLOJUAK ETA BESTE TRESNA BATZUK FABRIKATZEA (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,218155 euro.

Kw-ko: 5,415119 euro.

OHARRA: Talde honen barnean hauen fabrikazioa sartzen da: eskumuturreko erlojuak, poltsikokoak, hormakoak, malgukidunak, pisudunak, kordadunak, elektrikoak, kronometro-dunak, fitxatzeko erlojuak, eguna jartzeko erlojuak, zaintzeko erlojuak, erlojugintzako aparatuak; mekanismo sinkronizatzaileak, e.a.; aurreko taldean zehaztu ez diren doitasuneko beste tresna batzuk eta antzekoak.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

399.1 epigrafea.- Eskumuturreko eta poltsikoko erlojuak eta kronografoak.

399.2 epigrafea.- Erloju iratzargailuak.

399.3 epigrafea.- Hormako eta mahai gaineko erlojuak.

399.4 epigrafea.- Auto, itsasontzi, hegazkin, e.a. etarako erlojuak.

399.5 epigrafea.- Dorre, fatxada, geltokiko erlojuak eta antzekoak eta ordua bateratzeko erlojuak.

399.6 epigrafea.- Kontroleko aparatuak, denbora kontagailuak eta erlojugintzako mekanismoak dituzten beste tresna batzuk.

399.7 epigrafea.- Erloju makina muntatuak.

399.8 epigrafea.- Erloju kutxak.

399.9 epigrafea.- Erlojuen eta beste tresna batzuen (BISG) osagarriak, atalak eta pieza solteak.

4 SAILA.- BESTE MANUFATURA INDUSTRIA BATZUK.

41 multzoa.- Elikagaien eta edarien industriak.

#### 411 TALDEA.- OLIBA OLIOA EKOIZTEA ETA ONTZIRATZEA.

##### 411.1 epigrafea.- Oliba olioa ekoiztea eta ontziratzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.  
Kw-ko: 10,018872 euro.

##### 411.2 epigrafea.- Oliba olioa ekoiztea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.  
Kw-ko: 8,089623 euro.

##### 411.3 epigrafea.- Oliba olioa ontziratzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.  
Kw-ko: 8,089623 euro.

TALDE HONI BURUZKO OHARRA: Talde honen barnean sartzen dira oliba olioa erauzi ondoren gelditzen diren hondakinak.

#### 412 TALDEA.- LANDARE ETA ANIMALIA OLIOAK ETA KOIPEAK (OLIBA OLIOA IZAN EZIK).

##### 412.1 epigrafea.- Hazi oleaginosoen eta oliba laparen olioak ekoiztea eta ontziratzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.  
Kw-ko: 10,018872 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da honako hauen olioak erauztea molturazioaz, prentsaaz, disolbagailuen bidez eta beste prozedura batzuen bidez: da: kakahuetea, palma, palmistea, soja, ekilorea, kokoa, kopra, koltza, ziapea, intxaurra, sesamo eta kalamu haziak, linaza, artoa, oliba patsaren, e.a. Halaber, landare gantzak, olio opilak eta erauzketaren beste hondakin batzuk ekoiztea ere sartzen da. Gainera, olio eta hondakin horiek ontziratzea ere sartzen da.

##### 412.2 epigrafea.- Itsas animalien olioak eta koipeak lortzea eta ontziratzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 10,145084 euro.  
Kw-ko: 0,378638 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da itsas animalien olioak eta koipeak lortzea eta ontziratzea, hala nola, bakailaoaren eta beste arrain batzuen gibelego eta barrenkietako olioak, arraien gorputzen olioak, itsas ugaztunen (baleak, katxaloteak, e.a.) olioak eta koipeak, bai eta olio eta koipe horiek erauztean geratzen diren hondakinak lortzea ere.

412.3 epigrafea.- Landareen eta animalien gorputz koipetsuak fintzea, hidrogenatzea eta ontziratzea, eta antzeko beste tratamendu batzuk.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw-ko: 10,018872 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira landare eta animalia olioak eta koipeak araztea, fintzea, hidrogenatzea eta ontziratzea, eta antzeko beste tratamendu batzuk, giza kontsumorako izan zein ez.

412.4 epigrafea.- Margarina eta antzeko elikagai koipeak ekoiztea eta ontziratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,543543 euro.

Kw-ko: 10,018872 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira margarinak, gantz artifizialak eta beste koipe jakin batzuk (kozinatzeakoak, nahasiak eta testurizatuak, e.a.) ekoiztea eta ontziratzea.

413 TALDEA.- AZIENDA AKABATZEA, HARAGIA PRESTATZEA ETA ONTZIRATZEA ETA HEGAZTIAK INKUBATZEA.

413.1 epigrafea.- Azienda akabatzea eta zatikatzea, oro har.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw-ko: 11,821908 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira behi azienda, ahuntz azienda, txerri azienda, ardi azienda, untxiak, zaldi azienda, hegaztiak, ehiziak, e.a. akabatzea eta horien haragia eta barrenki freskoak, hoztuak edo izoztuak lortzea denetariko hiltegi baimenduetan.

Epigrafe honen barnean sartzen da hiltegieta odoleta edo gatzetan dauden larruak eta larrukiak, zurdak, ileak eta beste azpiproduktu batzuk (lumak, mokoak, hezurak, tripak, puxikak, tendoiak, odola, e.a.) lortzea, bai eta hiltegiei atxikitako zatikatze eta hozteko aretoak ere. Halaber, epigrafe honetan daude gantzak eta koipeak ekoiztea eta fintzea ere.

413.2 epigrafea.- Mota guztietako haragi produktuak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw-ko: 11,821908 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean daude: lureko animalien haragi onduak, gatzatuak, gatzunetakoak eta ketuak prestatzea; hestekiak, fianbreak eta antzeko beste kontserba batzuk fabrikatzea; haragiak deshidratatzea eta liofilizatzea; haragien kontserbak egitea ontziraketa hermetikoaren eta esterilizatzearen bidez (plater prestatuak barne, horien osagairik nagusiena haragia eta horren deribatuak badira); estraktuak, zukuak, gelatinak, oreak, irinak eta haragien beste preparatu eta eratorri batzuk fabrikatzea.

Epigrafe honetan dago plasmaren fabrikazioa.

413.3 epigrafea.- Haragia zatitzeko gela autonomoak eta haragizko azpiproduktuak industriako erabilerearako eta animaliek jateko aprobeztatzeko eta eraldatzeko industriak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,320748 euro.

Kw-ko: 11,821908 euro.

413.4 epigrafea.- Txita jaio berriak inkubatzea eta saltzea, arrautza ugalkorrak erosiz.

Kuota:

Jarritako inkubagailuetako 1.000 plazako edo zatikiko: 54,932506 euro.

**OHARRA:** Inkubazioa besteren kontura bakarrik egiten bada, inkubatutako unitateko ordainsari finkoa ordainduta, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren % 50 izango da.

414 TALDEA.- ESNE INDUSTRIAK.

414.1 epigrafea.- Esnea prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw-ko: 20,716887 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honen barnean sartzen da esne pasteurizatua, esterilizatua, homogeneousatua eta antzekoak prestatzea, bai eta ontziratzea ere, gero banatu ahal izateko.

Epigrafe honen barnean sartzen da esnegain freskoa, esne hartituak eta kaseina gordina prestatzea.

414.2 epigrafea.- Kontserbako esnea prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw-ko: 20,716887 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honen barnean sartzen da esne kondentsatua, kontzentratua edo lurrundua eta esne hautsa prestatzea, bai eta kontserbako esnea oinarri dela laktosa, sueroak eta beste produktu batzuk egitea ere.

414.3 epigrafea.- Gazta eta gurina egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw-ko: 20,716887 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honen barnean sartzen da gurin naturala (gozoa eta gazia) eta mota guztietako gaztak (onduak, erdionduak, bigunak eta urtuak) fabrikatzea.

414.4 epigrafea.- Izozkiak eta antzekoak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 18,913851 euro.

Kw-ko: 20,716887 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da izozkiak, zurrupakiak eta beste esnegai izoztu batzuk prestatzea esnekiak erabiliz.

415 TALDEA.- LANDARE ZUKUAK ETA KONTSERBAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,451600 euro.

Kw-ko: 6,472900 euro.

OHARRA: Talde honen barnean honako hauek sartzen dira: baratzeko fruituak eta produktuak kontserban jartzea ontziraketa hermetikoaren eta esterilizazioaren bidez (plater prestatuak barne, horien osagai nagusia baratzeko produktuak badira); fruten pulpa eta oreak prestatzea; konfiturak, mermeladak eta jaleak prestatzea; landare estraktuak eta zukuak fabrikatzea; olibak prestatzea eta betetzea; denetariko ozpinetakoak fabrikatzea; landare produktuak kontserbatzea deshidratazioaren, izozketaren eta liofilizazioaren bidez. Honako hauek ere sartzen dira: ozpinetan, oliotan, gatzunetan, azido azetikotan, alkoioletan e.a.etan dauden kontserbak; frutak eta beste landare produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea.

Halaber, talde honetan dago mahaspasak eta fruta lehorrak prestatzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

415.1 epigrafea.- Landare kontserbak.

415.2 epigrafea.- Landareen estraktuak, zukuak eta beste prestatuak batzuk.

415.3 epigrafea.- Frutak eta beste landare produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea.

416 TALDEA.- ARRAINEN ETA BESTE ITSASKI BATZUEN KONTSERBAK FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.

Kw-ko: 2,241775 euro.

OHARRA: Talde honen barruan daude: arrainak, oskoldunak, e.a. berehala izoztea; horiek ontziraketaren eta esterilizazioaren bidez kontserbatzea (oliotan, eskabetxetan, naturalean, saltsatan, baita plater prestatuak ere, horien osagai nagusia arrainkia bada); gaziketak eta eskabetxeak prestatzea; arrainak lehortzea, ketzea, prentsatzea, e.a.; itsasoko eta ur gezatako beste produktu batzuk (kabiarrak, esturioaren arrabak, igelak, salmonidoak, algak, e.a.) prestatzea, kontserbatzea eta ontziratzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

416.1 epigrafea.- Arrainen eta beste itsaski batzuen kontserbak fabrikatzea.

416.2 epigrafea.- Arraina eta itsasoko beste produktu batzuk prestatzean eta kontserbatzean sortzen diren hondakinak.

417 TALDEA.- EHOKUNTZAKO PRODUKTUAK FABRIKATZEA.

417.1 epigrafea.- Irinak eta semolak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,100273 euro.

Kw-ko: 10,145084 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira ogia egiteko irinak, industriarako irinak eta semolak fabrikatzea eta horretarako erabiltzen diren zerealak ehotzean sortzen diren hondakinak.

417.2 epigrafea.- Ehokuntzako beste produktu batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,158054 euro.

Kw-ko: 12,134434 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean daude: pureak fabrikatzea; arroza zuritzea, garbitzea eta satinatzea (arroz errotak); lekadunak, sustraiak eta beste produktu lehor batzuk zuritzea, garbitzea eta azala kentzea (kafeari azala kentzeko errotak barne).

418 TALDEA.- JATEKO PASTAK ETA PRODUKTU AMILAZEOAK FABRIKATZEA.

418.1 epigrafea.- Jateko pastak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw-ko: 7,716995 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da makarroiak, tailarinak, fideoak eta zoparako beste pasta batzuk eta pasta egosiak eta beteak fabrikatzea.

418.2 epigrafea.- Produktu amilazeoak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw-ko: 7,716995 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: artoaren, gariaren, arrozaren eta beste zereal batzuen fekulak eta almidoiak; patataren eta beste tuberkulu eta landareen (sagua, mandioka, e.a.) fekula; merkataritzako glukosa, glukosa garbia (destrosa) eta destrina; almidoiak eta fekula disolbagarri edo xigortuak eta glutena eta gluten irin xigortua zein xigortu gabea.

## 419 TALDEA.- OKINTZA, OPILGINTZA, GOZOGINTZA ETA GAILETEN INDUSTRIA.

### 419.1 epigrafea.- Okintza eta opilgintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw-ko: 7,716995 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean dago mota guztietako ogiak (moldekoa, xigortua, e.a.) eta opilak fabrikatzea.

### 419.2 epigrafea.- Opilgintza, gozogintza eta gaileten industria.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw-ko: 7,716995 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da opilak, gailetak, pastelak, tartak, pastak, bizkotxoak, e.a. prestatzea.

### 419.3 epigrafea.- Ore frijituen industriak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,882009 euro.

Kw-ko: 7,716995 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da ore frijituak (txurroak, buñueloak, e.a.) eta patata frijituak prestatzea.

## 42 multzoa.- Beste elikagai batzuen, edarien eta tabakoaren industriak.

## 420 TALDEA.- AZUKREAREN INDUSTRIA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,533002 euro.

Kw-ko: 4,231125 euro.

OHARRA: Talde honen barnean daude: erremolatxa azukrea eta kanabera azukrea ekoiztea; azukre findegiak (azukre findua egoera solidoan, aleetan, laukitxoetan, hautsean, azukre likidoa eta jarabeak, melaza finduak barne); kanabera ezitia egitea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

### 420.1 epigrafea.- Azukrea eta azukre jarabeak.

### 420.2 epigrafea.- Azukrearen industriako hondakinak.

421 TALDEA.- KAKAOAREN ETA TXOKOLATEAREN INDUSTRIA ETA GOZOGINTZAKO PRODUKTUAK.

421.1 epigrafea.- Kakaoaren eta txokolatearen industria.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,843208 euro.

Kw-ko: 3,545971 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kakaoaren edulkoratu gabeko deribatuak (kakao hautsa, kakao gurina, estalki mikatza eta kakao azaltxo) eta kakaoaren deribatu edulkoratuak (estalki gozoa, txokolatea, bonboiak eta espezialitateak) prestatzea.

421.2 epigrafea.- Gozogintzako produktuak prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw-ko: 8,648564 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da turroiak eta mazapanak, gozokiak, almendra zurituak, txikleak eta gozogintzako beste produktu batzuk (fruta azukreztatutak eta akaramelatutak, esentziak, flanak, iemak, e.a.) prestatzea.

422 TALDEA.- ANIMALIAK ELIKATZEKO PRODUKTUEN INDUSTRIAK (ARRAIN IRINAK BARNE).

422.1 epigrafea.- Animaliak elikatzeko bazka deshidratatuak, melazatuak, e.a.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira luzernaren eta beste bazka batzuen deshidratazioa eta artoa eta beste batzuk lehertzeko tokiak.

422.2 epigrafea.- Arrain irinak eta animalietatik ateratako azpiproduktuak, elikagaien hondakinak birtziklatuta eta eraldatuta sortzen diren produktuak eta pentsuak egiteko beste prestakin batzuk.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.

Kw-ko: 1,244095 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da irinak egitea arrainez, hezurrez eta beste animalia edo landare substantzia batzuez, gero animaliei jaten emateko edo haientzako elikagaiak prestatzeko.

422.3 epigrafea.- Denetariko pentsu konposatuak egitea, 422.4 epigrafekoak izan ezik.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,971740 euro.

Kw-ko: 3,732285 euro.

422.4 epigrafea.- Pentsu konposatuak egitea txakurrentzat, katuentzat eta etxeko beste animalia batzuentzat.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,708665 euro.

Kw-ko: 4,669864 euro.

423 TALDEA.- DENETARIKO ELIKAGAIK PRESTATZEA.

423.1 epigrafea.- Kafea, tea eta kafe suzedaneok prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 12,693376 euro.

Kw-ko: 15,926821 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira: kafea xigortzea; kafe disolbagarriak, deskafeinatuak, kafe estraktuak eta kafeen suzedaneok (txikoriak, e.a.) prestatzea; tea, matea, kamamilak eta infusioetarako beste belar eta espezie aromatiko batzuk prestatzea.

423.2 epigrafea.- Zopa prestatuak, estraktuak eta gozagailuak prestatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,656894 euro.

Kw-ko: 9,580133 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean honako hauek sartzen dira: prestatutako zopak, salda kontzentratuak eta beste estraktu batzuk prestatzea; mahaiko gatz xehea, pimentoia, azafraila, ziapea, mahonesa saltsa eta prestatutako saltsa batzuk eta beste onkailu batzuk, ardo edo sagardoarekin egiten ez diren ozpinak barne, prestatzea.

423.3 epigrafea.- Produktu dietetikoak eta erregimenekoak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,656894 euro.

Kw-ko: 9,580133 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean hauek prestatzea sartzen da: umeak elikatzeko produktu dietetikoak eta erregimeneko produktuak, hala nola, umeentzako eta erabilera dietetikorako irin bereziak, irin irradiatuak eta bitaminadunak eta haurren elikadurarako beste produktu batzuk edo zerealak, irinak, fekulak, almidoiak, e.a. oinarri dituzten produktu dietetikoak.

423.9 epigrafea.- Beste elikagai batzuk egitea (BISG)

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,656894 euro.

Kw-ko: 9,580133 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da beste epigrafeetan zehaztu gabeko elikagaiak prestatzea, hala nola, okindegietako legamiak fabrikatzea; izotz naturala biltzea; arrautzaren

zuringoa eta gorringoa lehortu eta bereiztea; arrautza hautsa prestatzea; esnerik ez duten izozki eta zurrupakiak fabrikatzea; plater auresukaldatau prestatuak (kontserbatan ez daudenak) prestatzea; patata frijituak, arto-krispetak eta antzekoak egitea; flan, izozki, sukaldeko gozo, e.a.etarako hauts-produktuak prestatzea.

#### 424 TALDEA.- HARTZIDURAKO ALKOHOL ETILIKOEN INDUSTRIAK.

424.1 epigrafea.- Alkoholak distilatzea eta errektifikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,494092 euro.

Kw-ko: 13,066003 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean daude nekazaritzako produktuen (erremolatxa, kanabera, frutak, zerealak, e.a.) hartziduraren bidez sortutako alkohol etiliko gordina distilatzea eta errektifikatzea.

424.2 epigrafea.- Pattar naturalak ekoiztea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,494092 euro.

Kw-ko: 13,066003 euro.

OHARRA: Epigrafe horren barnean sartzen da landare produktuen (erremolatxa, kanabera, frutak, zerealak, e.a.) hartziduraren bidez sortutako pattar naturalak distilatzea.

424.3 epigrafea.- Pattar konposatuak, likoreak eta ardotik ez datozen aperitiboak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 39,937254 euro.

Kw-ko: 32,472684 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira brandya, rona, ginebra, vodka, whiskya, anisatuak, pontxeak, kordialak eta beste pattar konposatu, likore eta aperitibo batzuk, ardotik ateratzen ez direnak, ekoiztea eta botilaratzea.

#### 425 TALDEA.- ARDOGINTZA.

425.1 epigrafea.- Ardoak egitea eta ontzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,160266 euro.

Kw-ko: 13,751157 euro.

OHARRAK:

1. Epigrafe honen barnean sartzen dira muztioak egitea (naturalak, kontzentratuak, itzaliak eta antzuak), mistelak egitea, mahaiko ardoak egitea eta apar gabeko ardoak ontzea eta kontserbatzea. Halaber, epigrafe honen barnean daude ardoak hoztea eta gasifikatzea, eta ekoizpenean bertan botilaratzea.

2. Subjektu pasiboak berak bere kontura ardoa bere uztako mahatsarekin egiten badu, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren % 25 izango da.

425.2 epigrafea.- Ardo apardunak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,333610 euro.

Kw-ko: 15,986922 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira cava eta beste ardo apardun natural batzuk egitea eta prozesu berean botilaratzea.

425.3 epigrafea.- Beste ardo berezi batzuk egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,333610 euro.

Kw-ko: 15,986922 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira ardo bereziak egitea (ardo enberatuak, txakolinak, gozoak, nobleak, generosoak, likorosoak, kinatuak, aromadunak, sendakuntzakoak, bermutak eta ardoa oinarri duten beste aperitibo batzuk) eta prozesu berean botilaratzea.

425.9 epigrafea.- Ardogintzako beste industria batzuk (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,055353 euro.

Kw-ko: 9,147404 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira ardogintzako beste produktu batzuk lortzea, hala nola, ardo-ozpinak fabrikatzea eta ardo-hondakinak (granilak, piketak, patsak, e.a.) aprobetxatzea, eta prozesu berean botilaratzea.

426 TALDEA.- SAGARDOGINTZA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 34,648348 euro.

Kw-ko: 11,323068 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen dira: sagardo naturala, sagardo apardunak eta gasifikatuak egitea; sagardo ozpinak fabrikatzea eta edariak egitea hartzitutako beste fruitu batzuekin (udare sagardoa, sakia, palma ardo, ezti ura, jenjibrea, e.a.); horiek prozesu berean botilaratzea.

Subjektu pasiboak berak bere kontura sagardoa bere uztako sagarrekin egiten badu, kuota talde honetan adierazitakoaren % 25 izango da.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

426.1 epigrafea.- Sagardoa eta antzeko beste edari hartzitu batzuk.

426.2 epigrafea.- Sagardogintzako hondakinak.

#### 427 TALDEA.- GARAGARDOA ETA GARAGARDO MALTA FABRIKATZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 7,530682 euro.

Kw-ko: 9,459931 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen dira: garagardo malta eta edari maltadunak fabrikatzea (garagardo arrunta, arina, beltza, indartsua eta beste batzuk); garagardoaren fabrikazioan azpiproduktu batzuk sortzea (garagardo legamia, lupulua, hondarrak, e.a.); garagardoaren fabrikazioarekin batera hura botilaratzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

427.1 epigrafea.- Garagardoa eta garagardo malta.

427.2 epigrafea.- Garagardoaren fabrikazioan sortzen diren azpiproduktuak eta hondakinak.

#### 428 TALDEA.- UR MINERALEN, UR GASDUNEN ETA ALKOHOLIK GABEKO BESTE EDARI BATZUEN INDUSTRIA.

428.1 epigrafea.- Ur mineral naturalak prestatzea eta ontziratzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 22,393711 euro.

Kw-ko: 27,995144 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira iturri edo iturburuetan ur mineral naturalak prestatzea (gasifikatu, e.a.) eta ontziratzea.

428.2 epigrafea.- Ur gasdunak eta alkoholik gabeko beste edari batzuk fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 29,113026 euro.

Kw-ko: 23,764019 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira: gaseosak, ur gasdunak, soda, seltza, e.a. fabrikatzea; edariak prestatzea fruta zukuekin, landare estraktuekin, e.a.ekin (limonadak, laranja urak, kolak, hortxatak); fabrikatzearekin batera edari horiek botilaratzea.

Epigrafe horretan sartzen da edari hautsak, jarabeak eta kontzentratuak egitea, bai eta edari horiek fabrikatzeko oinarriak ekoiztea ere.

#### 429 TALDEA.- TABAKOAREN INDUSTRIA.

429.1 epigrafea.- Zigarro puruak eta zigarretak eta beste tabakogai batzuk egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 27,995144 euro.

Kw-ko: 30,357121 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da bildu eta lehortutako tabako orriak eraldatzea: tabakoari nerbioak kentzea eta pikadura, pipa tabakoa, mastekatzeko tabakoa, sudurrautsa, tabako estraktu eta esentziak, e.a. egitea.

429.2 epigrafea.- Tabakoaren lehen eraldaketa, zigarro, zigarreta, tabako xehatu etab. egin gabe.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 4,856178 euro.  
Kw-ko: 1,742935 euro.

43 multzoa.- Ehungintza.

431 TALDEA.- KOTOIAREN ETA HORREN NAHASKETEN INDUSTRIA.

431.1 epigrafea.- Kotoi zuntzak prestatzea (izpi kentzea, txarrantxaketa, orrazketa).

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 3,113243 euro.  
Kw-ko: 2,987030 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kotoi zuntzak prestatzea (desmotatzea, sailkatzea, txarrantzatzea, orraztea, e.a.).

431.2 epigrafea.- Kotoia eta horren nahasketak harilkatzea eta bihurrikatzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 2,301876 euro.  
Kw-ko: 2,055461 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kotoi hariak eta horren nahasketak zuntz artifizialekin eta beste zuntz batzuekin harilkatzea, bihurritzea eta erregularizatzea.

431.3 epigrafea.- Kotoia eta horren nahasketak ehuntzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.  
Kw-ko: 5,541332 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kotoia eta horren nahasketak zuntz artifizialekin eta beste zuntz batzuekin ehuntzea.

432 TALDEA.- ARTILEAREN ETA HORREN NAHASKETEN INDUSTRIA.

432.1 epigrafea.- Artilearen zuntzak prestatzea (sailkatzea, garbitzea, txarrantzatzea, orraztea).

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 2,241775 euro.  
Kw-ko: 1,123893 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da artilean zuntzak prestatzea (sailkatzea, garbitzea, txarrantzatzea, karbonizatzea, orraztea, e.a.).

432.2 epigrafea.- Artilea eta horren nahasketak harilkatzea eta bihurrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,160374 euro.

Kw-ko: 3,239455 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da artilea eta horren nahasketak zuntz artifizialekin eta beste zuntz batzuekin haritzea, bihurritzea eta harilkatzea.

432.3 epigrafea.- Artilea eta horren nahasketak ehuntzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 5,787747 euro.

Kw-ko: 7,777097 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da artilea eta horren nahasketak zuntz artifizialekin eta beste zuntz batzuekin ehuntzea.

433 TALDEA.- ZETA NATURALAREN ETA HORREN NAHASKETEN ETA ZUNTZ ARTIFIZIAL ETA SINTETIKOEN INDUSTRIA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,926929 euro.

Kw-ko: 6,220475 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da zeta naturalaren zuntzak prestatzea (sailkatzea, estrikatzea, hijuela lortzea, e.a.), bai eta harilkatzea, bihurritzea, testura egitea, eta beste zuntz batzuekin ehuntzea ere.

Halaber, talde honetan daude nahasi gabeko zuntz artifizial eta sintetikoak eta zetazko zuntzekin nahasitakoak harilkatzea, hariak erregularizatzea eta ehuntzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera.

433.1 epigrafea.- Zeta naturalaren eta haren nahasketen industriako produktuak.

433.2 epigrafea.- Zuntz artifizial eta sintetikoak prestatzea, haritzea eta ehuntzea.

434 TALDEA.- ZUNTZ GOGORREN ETA HAIEN NAHASKETEN INDUSTRIA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 2,866828 euro.

Kw-ko: 3,239455 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da liho, kalamu, espartzu, ramio, iute, abaka, sisal, pita, koko, e.a.en zuntzak eta haien nahasketak prestatzea (sailkatzea, enriatzea, aleak ateratzea, espadatzea, arrastelatzea, e.a.), harilkatzea, bihurritzea, hariak erregularizatzea eta ehuntzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

434.1 epigrafea.- Harilketarako prestatutako zuntz gogorrak.

434.2 epigrafea.- Zuntz gogorren prestakuntzaren azpiproduktuak eta hondar produktuak.

434.3 epigrafea.- Zuntz gogorrak eta haien nahasketak harilkatzea eta bihurrikatzea.

434.4 epigrafea.- Zuntz gogorrak eta haien nahasketak ehuntzea.

435 TALDEA.- PUNTUZKO GAIEN FABRIKAZIOA.

435.1 epigrafea.- Puntuzko gaien fabrikazioa: piezak.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw-ko: 11,136754 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kotoi, artile, zeta, zuntz artifizial eta sintetiko eta beste batzuekin egindako puntuzko gaiak fabrikatzea denetariko jantziak egiteko.

435.2 epigrafea.- Galtzerdiak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw-ko: 11,136754 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da galtzerdiak (ortopedikoak izan ezik), galtzetinak eta denetariko antzeko jantziak egitea emakume, gizon zein haurrentzat.

435.3 epigrafea.- Puntuzko barne jantziak eta lo egiteko jantziak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw-ko: 11,136754 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da haria gai harturik emakume, gizon eta umeentzako barneko jantziak eta lo egiteko puntuzko jantziak fabrikatzea, hala nola, elastikoak, slipak, kortsetak, kamisoiak, txabusiak, pijamak, peieleak, e.a.

435.4 epigrafea.- Puntuzko kanpoko jantziak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,149724 euro.

Kw-ko: 11,136754 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da haria gai harturik emakume, gizon eta umeentzako kanpoko puntuzko jantziak fabrikatzea, hala nola, jertseak, jakak, soinekoak, konjuntioak, galtzak, atorrak, haurrendako jantziak, bainu eta kirol jantziak, eskuzorroak, ttattarrak, txapelak, txanoak, bufandak, e.a.

#### 436 TALDEA.- EHUNEN AKABERA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 4,231125 euro.

Kw-ko: 5,727645 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da ehunak ziritzea, tindatzea, estanpatzea, aprestatzea eta beste akabera batzuk ematea, jarduera honen sailkapena ehunen fabrikaziotik bereizita badago.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

436.1 epigrafea.- Ehun zurituak.

436.2 epigrafea.- Ehun tindatuak.

436.3 epigrafea.- Ehun estanpatuak.

436.9 epigrafea.- Ehun aprestatuak, mertzerizatuak edo beste moduren batean bukatutakoak.

#### 437 TALDEA.- ALFONBRAK ETA TAPIZAK ETA EHUN INPREGNATUAK FABRIKATZEA.

437.1 epigrafea.- Alfonbrak eta tapizak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw-ko: 7,903309 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da alfonbrak, tapizak, esterak eta denetariko zuntzez egindako antzeko beste produktu batzuk fabrikatzea.

437.2 epigrafea.- Ehun inpregnatuak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 8,275937 euro.

Kw-ko: 7,903309 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da olio lehortzaileak oinarri harturik ehun inpregnatuak fabrikatzea (ehun iragazkaiztuak, olioztatuak, bernizatuak, huleak eta tela argizariztatuak, e.a.); zelulosaren edo erretxina sintetikoen deribatuekin egindako ehun inpregnatuak; linoleoa eta antzeko beste lur-estalki batzuk (plastikoarekin egindakoak izan ezik); kolan, gai amilazeoetan inpregnatutako ehunak; pinturarako telak, kalkorako telak, tela engomatuak, e.a.

#### 439 TALDEA.- EHUNGINTZAKO BESTE INDUSTRIA BATZUK.

##### 439.1 epigrafea.- Sokagintza.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,924609 euro.

Kw-ko: 3,924609 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da kalabroteak, zirgak, sokak, kordelak, kableak, sareak, arrantzako hariak eta sokagintzako beste gai batzuk fabrikatzea.

##### 439.2 epigrafea.- Feltroak, tulak, farfailak, eskudelak e.a. egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 3,924609 euro.

Kw-ko: 3,924609 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barruan hauke egitea sartzen da: gakorraz edo presio bidezko feltroa, ehun feltrozatuak, tulak, farfailak, brodatu mekanikoak eta antzeko artikulak; ehundu gabeko oihalgintza; ehunezko tutu, feltro, gerriko eta zingilak; zintak, lazoak, kordonak eta eskudelak, etab.

##### 439.3 epigrafea.- Ehunak berreskuratutako zuntzez fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 1,496520 euro.

Kw-ko: 1,742935 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da ehunak fabrikatzea zuntz berreskuratuz (birsortutakoak eta hondakinak) fabrikatzea: berreskuratutako zuntzak prestatzea, harilkatzea eta ehuntzea.

##### 439.9 epigrafea.- Ehungintzako beste industria batzuk (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 6,100273 euro.

Kw-ko: 6,100273 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da ehungintzako beste gai batzuk fabrikatzea, hala nola, ehun elastikoak, goata, borra, miraguanoa, klina, ehun artekoak eta tapizak betetzeko eta beste erabilera batzuetarako beste gai batzuk, e.a.

43 MULTZOARI BURUZKO OHARRA: Subjektu pasiboek multzo honetako jardueraren bat egiten dutenean, bakar-bakarrik hirugarrenentzat eta enkarguz, behargin kopurua 10 baino txikiagoa dela, kuota errubrikari esleitutakoaren % 25 izango da; beharginak 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiago badira, kuota errubrikari esleitutakoaren % 50 izango da.

44 multzoa.- Larruaren industria.

441 TALDEA.- LARRUA LEUNTZEA ETA ONTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 17,916171 euro.

Kw-ko: 10,577813 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da larrua lantzeko prestatzea; larrua ontzea, adobatzea, txarolatzea, tindatzea eta dekoloratzea, bai eta larruaren eta larru sintetikoaren aglomeratuak fabrikatzea ere.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

441.1 epigrafea.- Bukatu gabeko larruak.

441.2 epigrafea.- Bukatutako larruak.

441.3 epigrafea.- Erregeneratutako larruak eta landu ondoren gelditutako azpiproduktuak eta hondakinak.

442 TALDEA.- LARRUZKO GAUZAK ETA ANTZEKOAK EGITEA.

442.1 epigrafea.- Larruzko gauzak eta bidaietarako gauzak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 24,761699 euro.

Kw-ko: 34,029305 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da boltsoak, karterak, gerrikoak, zigarrontziak, diruzorroak, estutxeak, maletak, maletatxoak, poltsak eta larruzko beste gauza batzuk eta bidaietarako gauzak egitea larruz edo larruaren suzedaneok erabiliz.

442.2 epigrafea.- Larruzko eskuzorroak fabrikatzea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 24,761699 euro.

Kw-ko: 34,029305 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da jantzi eta babesteko larruzko eskuzorroak eta mitoiak eta kiroletako eskuzorro bereziak fabrikatzea.

442.9 epigrafea.- Larruzko beste produktu batzuk fabrikatzea (BISG).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 19,785318 euro.

Kw-ko: 27,249889 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da beste epigrafeetan zehaztu gabeko larruzko gauzak fabrikatzea: industriarako larrugaiak (hedeak, takoak, tiratakoak, e.a.); hedegaiak (hederiak,

albardoiak, zaldi zelak, zigorrak eta ustak); zahatogintzako gaiak (zahatoak eta koranbreak); talabarteria, ekipo militarra, kirolgaiak, e.a.; larruaren ordezkoeekin egindako gaiak.

442 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Talde honetako jardueraren bat hiru behargin edo gutxiagorekin egiten duten subjektu pasiboek epigrafeari dagokion kuotaren % 50eko zerga ordainduko dute.

45 multzoa.- Oinetakogintza eta jantzigintza eta beste ehungintza batzuk.

451 TALDEA.- OINETAKOAK SERIEAN EGITEA (KAUTXOZKOAK ETA ZUREZKOAK IZAN EZIK).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 11,196856 euro.

Kw-ko: 10,704026 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen dira denetariko oinetakoak seriean fabrikatzea (jantzekoak, kirolekoak, lanekoak, baletakoak, e.a.), larruzkoak zein nagusiki larruzkoak, telazkoak edo suzedaneo batez egindakoak, bai eta mota guztietako espartinak eta zapatilak, botak, txapinak, e.a. ere, eta oinetakoen atalak eta osagarriak fabrikatzea.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

451.1 epigrafea.- Oinetakoak fabrikatzeko eta akabera zerbitzuetarako tarteko produktuak.

451.2 epigrafea.- Kaleko oinetakoak seriean fabrikatzea.

451.3 epigrafea.- Etxeko zapatilak, oinetako bereziak, txapinak eta antzekoak seriean fabrikatzea.

451.4 epigrafea.- Denetariko larruen ebakinak eta hondakinak.

452 TALDEA.- ARTISAU OINETAKOAK ETA NEURRIRAKO OINETAKOAK EGITEA (OINETAKO ORTOPEDIKOAK BARNE).

Kuota:

Langile bakoitzeko: 13,066003 euro.

Kw-ko: 12,567163 euro.

OHARRA: Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

452.1 epigrafea.- Eskuz eta neurrira egindako oinetakoak.

452.2 epigrafea.- Oinetako ortopedikoak.

453 TALDEA.- DENETARIKO JANZKIAK ETA HAIEN OSAGARRIAK SERIEAN EGITEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,577813 euro.

Kw-ko: 11,821908 euro.

## OHARRAK:

### 1. Talde honetan daude:

- Gizonen kanpoko jantziak seriean egitea, hala nola, berokiak, kapak, txaketoiak, txabusinak, jakak, prakak, janzkiak, bainu jantziak, ehunkiekin egindako puntuzkoak, e.a.; andreendako kanpoko jantziak seriean egitea, hala nola, berokiak, kapak, txaketoiak, txabusinak, brusak, gonak, prakak, janzkiak, bainu jantziak, jantziak, ehunkiekin egindako puntuzkoak, e.a.; haurren denetariko jantziak egitea.
  - Alkandorak, galtzontziloak eta antzekoak seriean egitea, pixamak, zaiazpikoak, konbinazioak, kuleroak, faxak, ditizorroak eta mihiseriako beste gai batzuk, ehunkiekin egindako puntuzkoak barne seriean egitea.
  - Laneko jantziak, uniformeak, larruzko jantziak eta antzekoak, euritarako jantzi bereziak, jositakoak edo soldatutako plastikozkoak, jantzi militarrik, kirol jantziak, apaiz jantziak, erlijioso jantziak, antzerkiko jantziak, e.a. seriean egitea.
  - Txano, gorra, tokatu eta antzekoetarako kaskoak eta zerrendak seriean egitea.
  - Aterkiak, bastoiak eta itzaltxoak; ttattarrak, txalak, tokilak, errezelak, mantelinak eta mokanesak; gerrikoak, boltoak eta telazko eskuzorroak; modako lore eta lumak; ditizorroen tiranteak; abanikoak, e.a. seriean egitea.
  - Eredu eta patroiak diseinatzeko lanak, makinaz josteko lanak, bainiak, plisatuak eta beste epigrafeetan zehaztu gabeko jantzigintzari atxikitako beste jarduera batzuk egitea.
- Halaber, multzo horren barnean sartzen da enbalatzeko zakuak, tela feldrodunak eta poltsa zentrifugoak seriean egitea.

2. Subjektu pasiboek talde honetako jardueraren bat egiten dutenean, bakar-bakarrik hirugarrenentzat eta enkarguz, behargin kopurua 10 baino txikiagoa dela, kuota taldeari esleitutakoaren % 25 izango da; beharginak 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiago badira, kuota taldeari esleitutakoaren % 50 izango da.

## 454 TALDEA.- JANTZIAK ETA HAIEN OSAGARRIAK NEURRIRA EGITEA.

Kuota: 115,08 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da emakume, gizon eta haurren kanpoko eta barneko jantziak neurritara egitea (neurrian egindako janzkiak, goi joskintzako lantegiak, neurritara egindako joskintza, e.a.), bai eta kapelak eta jantzien beste osagarri batzuk neurritara egitea ere.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

454.1 epigrafea.- Neurritara egindako jantziak.

454.2 epigrafea.- Neurria egindako kapelak eta jantzien osagarriak.

## 455 TALDEA.- BESTE GAUZA BATZUK EHUNEZ EGITEA.

455.1 epigrafea.- Etxerako ehunezko gauzak eta tapizak egitea.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 13,685046 euro.

Kw-ko: 15,055353 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da ohe, mahai, apaintokiko ehunkiak eta antzekoak egitea; artilezko matalazak, kortxoa, e.a.; kortinak, bisiloak, e.a. tapizatu eta egitea.

455.9 epigrafea.- Ehungintza: beste batzuk (BISG)

Kuota:

Langile bakoitzeko: 10,577813 euro.

Kw-ko: 11,821908 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da beste epigrafe batzuetan zehaztu gabeko ehunez gauzak egitea, hala nola, lonazko gauzak (zakuak, dendak, olanak, belak, e.a.), estandarteak, banderak, elizako apaingarriak, intsigniak, brodatuak eta beste apaingarri batzuk, jausgailuak, kotoi hidrofiloa, esterilizatu gabeko bendak eta gasak, e.a.

455 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Subjektu pasiboek talde honetako jardueraren bat egiten dutenean, bakar-bakarrik hirugarrenentzat eta enkarguz, behargin kopurua 10 baino txikiagoa dela, kuota taldeari esleitutakoaren % 25 izango da; beharginak 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiago badira, kuota taldeari esleitutakoaren % 50 izango da.

456 TALDEA.- LARRUGINTZA.

456.1 epigrafea.- Larrugintza naturala.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 66,874617 euro.

Kw-ko: 93,499453 euro.

456.2 epigrafea.- Larrugintza artifiziala.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 50,142440 euro.

Kw-ko: 70,108062 euro.

456 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Talde honen barnean sartzen da jantziak, kapelak, estolak eta jantzien beste osagarri batzuk, alfonbrak, estalkiak eta larru fin arruntak eta horien ordezkioak edo larruaren imitazioak oinarri dituzten beste gai batzuk (larrugintza fiktizioa) eta larru hondakinen eraldaketa espezializatua.

659.1 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: bildumagileentzako zigilu, moneta, oroi domina eta billeteak, artelanak eta antzinako gauzak, bildumetako edo banakako mineralak, fosilak, intsektuak, maskorrek, landareak eta animalia diseatuak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 150,25 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 114,19 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 90,15 euro.
- Gainerako herrietan: 66,11 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du bertan sailkatutako gauzak handizka saltzeko, artelanak eta antigoaleko gauzak izan ezik.

659.2 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: bulegoko altzariak eta bulegoko makinak eta ekipoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 192,83 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 143,07 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 105,75 euro.
- Gainerako herrietan: 74,65 euro.

659.3 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: medikuntzako, ortopediako, optikako eta argazkigintzako aparatuak eta tresnak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 155,51 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 118,19 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 93,31 euro.
- Gainerako herrietan: 68,43 euro.

OHARRA: epigrafe honetan sailkatuta egonik argazkigintzako materiala saltzen duten subjektu pasiboek ahalmena dute argazki bobinak jaso eta berena ez den laborategi batek errebelatutako argazkiak emateko.

659.4 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: liburuak, egunkariak, paper gauzak, idazteko gauzak, marrazteko gauzak eta arte ederretako gauzak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 149,29 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 111,97 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 85,84 euro.
- Gainerako herrietan: 62,20 euro.

OHARRAK:

1. Epigrafe honek ahalmena ematen du mekanikoak, elektrikoak edo elektronikoak ez diren jostailuak txikizka saltzeko.

2. Epigrafe honetan sailkatuta daude "prentsako kioskoak" deritzenak, alegia, jarduera nagusitzat honako hauen txikizkako merkataritza duten establezimenduak: prentsa eta aldizkariak, bai eta kioskoetan ohiko salmenta duten gaiak ere, hala nola, gozokiak, litxarrerriak, fruitu idorrek, izozkiak, garraio publikoko txartelak, telefono txartelak eta antzekoak, e.a.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren subjektu pasiboek txikizka saldu ahalko dituzte kiosko horietan "cd-rom", zinta magnetoskopiko eta magnetofoniko, "compact-disc" eta halako euskarrietan dauden agerkariak eta bildumak, gai osagarri moduan eta kuota gehigarriak ordaindu gabe.

659.5 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: bitxiak, erlojuak, zilarrezko gauzak eta bisuteria

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 404,33 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 311,02 euro.

- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 217,72 euro.

- Gainerako herrietan: 124,41 euro.

**OHARRAK:**

1. Epigrafe honek ahalmena ematen du bertan zehazten diren gauzak establezimenduan bertan konpontzeko.

2. Imitaziozko bitxien txikizkako merkataritzan aurreko kuoten % 50 ordainduko da. Murriztapen bera aplikatuko zaio erlojugintzako gaien txikizkako merkataritzari.

3. Epigrafe honek ahalmena ematen du kristalezko objektuak, brontzezkoak edo beste metaletakoak eta ispiluak, armiarmak, lanparak, kandelak eta beste apaingarri batzuk establezimenduan berean saltzeko.

659.6 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: jostailuak, kirol gaiak, kirol janzkiak (jantziak, oinetakoak eta kapeluak), armak, kartutxoak eta pirotekniako gaiak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 174,17 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 133,12 euro.

- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.

- Gainerako herrietan: 68,43 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honen barnean sartzen da haurrentzako parkeetarako gaien txikizkako salmenta, hala nola, txirristak, ziburuak, e.a.

659.7 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: haziak, ongarriak, loreak eta landareak eta animalia txikiak

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 149,29 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 111,97 euro.

- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 87,09 euro.

- Gainerako herrietan: 62,20 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du lorezaintzarekin, lore dendeekin eta animalia txikien zainketarekin lotutako mota guztietako produktu kimikoak eta gauzak txikizka saltzeko.

659.8 epigrafea.- Txikizkako merkataritza: "sex-shop" deritzona.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 192,83 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 143,07 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 105,75 euro.
- Gainerako herrietan: 74,65 euro.

OHARRAK:

1. Establezimendu horietan masajeak, saunak, projekzio-kabinak, e.a. egiten badira, epigrafe horren kuota % 75 handituko da.

2. Aipatu zerbitzu horien prestazioak, txikizkako merkataritzarik gabekoak, epigrafe horretan sailkatuko dira eta 180,30 euroko kuota ordainduko da.

659.9 epigrafea.- Multzo honetan zehaztu gabeko beste produktu batzuen txikizkako merkataritza, 653.9 epigrafean sailkatu beharrekoak izan ezik.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 485,20 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 373,23 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 261,26 euro.
- Gainerako herrietan: 149,29 euro.

64 ETA 65 MULTZOEI BURUZKO OHARRA:

64 eta 65 multzoetan sailkatutako jarduerak egiten diren lokalen azalera konputagarria 50 metro karratu baino txikiagoa bada, talde edo epigrafeen kuota % 50 murriztuko da.

Azalera konputagarria 50 - 70 metro karraturen artekoa bada, talde edo epigrafeen kuota kasu bakoitzean ezarritakoaren % 80 izango da.

66 multzoa.- Salmenta misto edo integratua; establezimendu finkotik kanpoko txikizkako salmenta (salmenta ibiltaria, azoka txikiak eta noizean behingo edo aldizkako azokak); biltegi erakusketa erregimeneko eta aparatu automatikoen bidezko salmenta; posta eta katalogo bidezko zenbait ekoizkinen txikizkako salmenta.

661 TALDEA.- EROSTETXE HANDIETAKO MERKATARITZA MISTOA EDO INTEGRATUA

661.1 epigrafea.- Biltegi handietako merkataritza, hau da, sail askotan aurkeztutako produktu gama batzuen (batez ere etxea hornitzeko gaiak, jantziak, oinetakoak, lurrinak, elikagaiak, e.a.) aukera handia eta, orokorrean, zabala eskaintzen duten establezimenduak, orokorrean saltzaileen laguntza dutenak eta horiez gain bezeroen esku zenbait zerbitzu jartzen dutenak.

Kuota:

10.000 m<sup>2</sup> arte: 1,682834 euro m<sup>2</sup>-ko  
10.001 - 20.000 m<sup>2</sup>: 1,628743 euro m<sup>2</sup>-ko  
20.001 - 30.000 m<sup>2</sup>: 1,412378 euro m<sup>2</sup>-ko  
30.001 - 40.000 m<sup>2</sup>: 1,352277 euro m<sup>2</sup>-ko  
40.001 - 50.000 m<sup>2</sup>: 1,286166 euro m<sup>2</sup>-ko  
50.001 - 60.000 m<sup>2</sup>: 1,129903 euro m<sup>2</sup>-ko  
60.001 - 70.000 m<sup>2</sup>: 1,051771 euro m<sup>2</sup>-ko  
70.000 m<sup>2</sup>-tik gora: 0,450759 euro m<sup>2</sup>-ko

661.2 epigrafea.- Hipermerkatuko merkataritza, halakotzat joz nagusiki autozerbitzuan eskaintzen dutenak asko saltzen diren elikagai eta elikagaiez besteko produktuen aukera zabal bat, eta, eskuarki, aparkalekuak izaten dituztenak eta bezeroen eskura hainbat zerbitzu jartzen dituztenak.

Kuota:

10.000 m<sup>2</sup> arte: 1,400358 euro m<sup>2</sup>-ko  
10.001 - 20.000 m<sup>2</sup>: 1,340257 euro m<sup>2</sup>-ko  
20.001 - 30.000 m<sup>2</sup>: 1,244095 euro m<sup>2</sup>-ko  
30.000 m<sup>2</sup>-tik gora: 1,111872 euro m<sup>2</sup>-ko

661.3 epigrafea.- Herri saltokietako merkataritza. Herri saltokiak dira hainbat sailetan eta autozerbitzuan edo alde zuzeneko hautaketan aukera handi samar baina erabatekotasun gutxikoan kontsumorako gaiak, prezio gama apalean eta zerbitzu murriztarekin.

Kuota:

1.500 m<sup>2</sup> arte: 0,655103 euro m<sup>2</sup>-ko  
1.501 - 3.000 m<sup>2</sup>: 0,595002 euro m<sup>2</sup>-ko  
3.001 - 5.000 m<sup>2</sup>: 0,528891 euro m<sup>2</sup>-ko  
5.000 m<sup>2</sup>-tik gora: 0,468789 euro m<sup>2</sup>-ko

661.9 epigrafea.- Azalera handietan integratutako edo beste merkataritza misto bat, hau da, jendearentzako erakusketarako eta salmentarako 2.500 m<sup>2</sup> edo gehiagoko azalera erabilgarria duten establezimenduetan modu espezializatuan egindakoa, hala nola brikolajearekin eta etxeko ekipamenduarekin, etxeko eta bulegoko altzariarekin, artikulua elektronikoekin eta etxetresna elektronikoekin, automobilerako artikuluekin, kirolerako artikuluekin edo bestelakoekin lotutakoak.

Kuota:

10.000 m<sup>2</sup> arte: 1,443036 euro m<sup>2</sup>-ko.  
10.001 - 20.000 m<sup>2</sup>: 1,391499 euro m<sup>2</sup>-ko.  
20.001 - 30.000 m<sup>2</sup>: 1,288425 euro m<sup>2</sup>-ko.  
30.000 m<sup>2</sup>-tik gora: 1,185351 m<sup>2</sup>-ko.

Oharra: Publikoarentzako erakusketarako eta salmentarako azalera erabilgarritzat hartuko da zuzenean saltzeko artikulua erakusten dituen, estalirik egon edo ez, eta kontsumitzaileak benetan erabil dezakeena.

#### TALDE HONI BURUZKO OHARRAK:

1. Talde honetan matrikulatutako subjektu pasiboek kuota gehigarririk ordaindu gabe handizkako eta txikizkako merkataritza egin dezakete eta horrekin batera horri dagozkion jarduera guztiak, hala nola, aparkalekua, kafetegi-jatetxea, ileapaindegi eta edergintzako saloiak, bidai agentzia, neurrira egindako jantziak, horien gaien muntaketa eta kolokazioa, hozkailuak, elikagaiak landu eta prestatzea, e.a. Gainera, edozein titulu edo kontraprestazioren bidez ekonomia jarduerak egiteko lokalaren barneko guneen erabilpena hiru garrenei laga diezaiekete.

2. Talde honetako kuotak kalkulatzeko, establezimenduaren azalera osoa zenbatuko da (biltegi handia, hipermerkatua, herri biltegia edo beste azalera handi bat), bulegoetarako, aparkaleku estaliatarako, biltegiatarako eta abarretarako eremuak barne. Halaber, hirugarrenek erabilera lagapenaren edo beste edozein tituluren bidez okupatutako eremuak ere zenbatuko dira. Hala ere, estali gabeko eremuetako azalera ez dira zenbatuko, xedea gorabehera.

3. Erabilera lagatzearen ondorioz edo beste edozein tituluren bidez ekonomia jarduerak egiteko establezimenduetan guneak okupatzen dituztenek egindako jarduerari dagokion kuota ordainduko dute. Gune horiek ez dira lokalak izango zergaren ondorioetarako.

4. Talde honen barnean ez da sartzen tabakoaren salmenta.

## 662 TALDEA.- BESTELAKO TXIKIZKAKO MERKATARITZA MISTOA EDO INTEGRATUA.

662.1 epigrafea.- Denetariko gaien txikizkako merkataritza ekonomatoetan eta kontsumoko kooperatibetan.

Kuota: 653,15 euro.

662.2 epigrafea.- 661 taldean eta 662.1 epigrafean zehazten ez diren establezimenduetan mota guztietako artikulua (jangaia edo edariak barne) txikizka saltzea.

Kuota: 404,33 euro.

OHARRA: Establezimendua zuzenbideko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerriri batean bada, 37,32 euroko kuota edukiko du.

## 662 TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Talde honetan sailkatutako jarduera egiteko erabiltzen diren lokalen azalera konputagarria 50 metro karratu baino txikiagoa bada, zergadunak dagokion kuotaren % 50 ordainduko du.

Azalera konputagarria 50-70 metro karratu bitartekoa bada, zergadunak dagokion kuotaren % 80 ordainduko du.

2. Talde honen barnean ez da sartzen tabakoaren salmenta.

## 663 TALDEA.- TXIKIZKAKO MERKATARITZA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRETIK KANPO (IBILTARIA, MERKATU TXIKIAK ETA NOIZEAN BEHINGO EDO ALDIZKAKO MERKATUAK).

663.1 epigrafea.- Janarien txikizkako merkataritza (edariak eta izozkiak barne) merkataritzako establezimenduetatik kanpo.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 102,02 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 76,51 euro.

- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.

- Gainerako herrietan: 51,01 euro.

Probintziako kuota: 317,24 euro.

Estatuko kuota: 447,87 euro.

OHARRA: Merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo ore frijituak (estalgari edo betegarriekin zein halakorik gabe), patata frijituak, aperitiboak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatea eta edari freskagarriak txikizka saltzen dituztenek txurro dendako produktuak eta patata frijituak instalazioa edo ibilgailuan bertan egin ditzakete, baldin eta salmenta instalazioan bertan merkaturatzen badira.

663.2 epigrafea.- Merkataritza establezimendu finko batetik kanpo egiten den txikizkako merkataritza: ehungintza gaiak eta jantzigintza gaiak.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 102,02 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 76,51 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.
- Gainerako herrietan: 51,01 euro.

Probintziako kuota: 317,24 euro.

Estatuko kuota: 447,87 euro.

663.3 epigrafea.- Txikizkako merkataritza merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpo: oinetakoak, larrukiak eta larruzko gauzak.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 102,02 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 76,51 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.
- Gainerako herrietan: 51,01 euro.

Probintziako kuota: 317,24 euro.

Estatuko kuota: 447,87 euro.

663.4 epigrafea.- Txikizkako merkataritza merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpo: drogeriako gaiak, kosmetikako gaiak eta produktu kimikoak, oro har.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 102,02 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 76,51 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.
- Gainerako herrietan: 51,01 euro.

Probintziako kuota: 317,24 euro.

Estatuko kuota: 447,87 euro.

663.9 epigrafea.- Beste salgai batzuen (BISG) txikizkako merkataritza merkataritzako establezimenduetatik kanpo.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 102,02 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 76,51 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.
- Gainerako herrietan: 51,01 euro.

Probintziako kuota: 317,24 euro.

Estatuko kuota: 447,87 euro.

OHARRA: Jarduera jarraigabeko edo denboraldiko azoka batean (Eguberriko merkatuak, liburu azoka...) baino egiten ez duten subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordainduko dute, soilik jarduera honen ondorioetarako: 37,32 euro.

664 TALDEA.- BILTEGI ERAKUSKETA ERREGIMENEN ETA APARATU AUTOMATIKOEN BIDEZKO SALMENTA.

664.1 epigrafea.- Denetarikoz gauzak saltzea biltegi erakusketa erregimenean.

664.11 azpiepigrafea.- Udal kuota, establezimenduaren titularrak.

Udal kuota, gutxienez: 4,976380 euro erakusleihoko.

Kuota hau erakusleihoa dagoen establezimenduaren edo lokalaren titularrak bakarrik ordainduko du.

664.12 azpiepigrafea.- Estatuko kuota, erakusleihoren jabeak.

Estatuko kuota:

- 500 erakusleihora arte 187,92 euro
- 1.000 erakusleihora arte 375,84 euro
- 2.000 erakusleihora arte 563,77 euro
- 4.000 erakusleihora arte 751,75 euro
- 6.000 erakusleihora arte 939,67 euro
- 8.000 erakusleihora arte 1.127,59 euro
- 8.000 erakusleiho baino gehiago 1.315,51 euro

Kuota hau erakusleihoen jabeak bakarrik ordainduko du.

OHARRA: Erakusleihoak jarrita dauden establezimendu edo lokaletako titularrek establezimendu edo lokal horietan egiten duten jarduera nagusiari dagokion kuotari azpiepigrafe honetan ezartzen den udal kuotaren zenbatekoa gehituko diote.

Zergaren likidaziorako, Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 3/2021 Foru Dekretu

Araueamalearen 10. artikuluan ezartzen den udal indizea subjektu pasiboaren jarduerari dagokion tarifaren kuota gehituaren zatiari bakarrik aplikatuko zaio; beraz, lokalean jarritako erakusleihoei dagokien zatiari ez zaio aplikatuko

664.2 epigrafea.- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak.

Udal kuota, gutxienez: 13,976834 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.

Kuota hau kargatzeko puntua dagoen establezimenduaren edo lokalaren titularrak bakarrik ordainduko du.

Estatuko kuota: 13,976834 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.

Kuota hau kargatzeko puntuen jabeak bakarrik ordainduko du.

664.9 epigrafea.- Denetariko produktuen (BISG) txikizkako merkataritza aparatu automatikoen bidez, elikagaien, edarien eta tabakoarena izan ezik.

664.9.1 azpiepigrafea.- Udal kuota, establezimenduaren titularrak.

Udal kuota, gutxienez: 13,564843 euro aparatu automatikoko.

Kuota hau aparatu automatikoa dagoen establezimenduaren edo lokalaren titularrak bakarrik ordainduko du.

664.9.2 azpiepigrafea.- Estatuko kuota, apartatuaren jabeak.

Estatuko kuota: 13,564843 euro aparatu automatikoko.

Kuota hau aparatu automatikoen jabeak bakarrik ordainduko du kuota.

665 TALDEA.- ASKOTARIKO PRODUKTUEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA POSTA EDO KATALOGO BITARTEZ.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 149,92 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 112,59 euro.

- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 83,98 euro.

- Gainerako herrietan: 65,32 euro.

Probintziako kuota: 751,43 euro.

Estatuko kuota: 3.005,73 euro.

**OHARRAK:**

1. Katalogo bidezko salmentaren jarduera egiten duen subjektu pasiboarekin lankidetzan aritzen direnek haren eskura bere biltegi edo biltokiak, garraioko elementuak eta handizkako merkataritari berezko zaizkion gainerako instalazio eta zerbitzuak jartzen badituzte, multzo horren arabera ordainduko dute, behar den kuotaren % 50, alegia.

2. Katalogo bidezko salmentaren jarduera egiten duen subjektu pasiboarekin lankidetzan ari direnek, jendeari irekitako lokalak utzi, eskaerak hartu, salgaiak entregatu, salgaiak itzuli, produktuen prezioa hartu edo horien erakusgaiak eta horien katalogoak erakutsiz, multzo horren arabera ordainduko dute, behar den kuotaren % 25, alegia. Zergaren zenbatekoa 37,32 euro baino gutxiago bada, subjektu pasiboaren kuota zero izango da.

67 multzoa.- Elikadura zerbitzua.

671 TALDEA.- JATETXEETAKO ZERBITZUAK.

671.1 epigrafea.- Bost sardexkakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 342,13 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 255,04 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 189,10 euro.
- Gainerako herrietan: 111,97 euro.

671.2 epigrafea.- Lau sardexkakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 243,84 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 174,17 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 130,63 euro.
- Gainerako herrietan: 85,84 euro.

671.3 epigrafea.- Hiru sardexkakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 194,70 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 146,18 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 108,86 euro.
- Gainerako herrietan: 74,65 euro.

671.4 epigrafea.- Bi sardexkakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 149,29 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 111,97 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 85,84 euro.
- Gainerako herrietan: 62,20 euro.

671.5 epigrafea.- Sardexka batekoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 133,12 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 77,13 euro.
- Gainerako herrietan: 58,47 euro.

672 TALDEA.- KAFETEGIETAN.

672.1 epigrafea.- Hiru kizarakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 194,70 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 146,18 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 108,86 euro.
- Gainerako herrietan: 74,65 euro.

672.2 epigrafea.- Bi kizarakoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 149,29 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 111,97 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 85,84 euro.
- Gainerako herrietan: 62,20 euro.

672.3 epigrafea.- Kikara batekoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 133,12 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 77,13 euro.
- Gainerako herrietan: 58,47 euro.

673 TALDEA.- KAFETEGIAK ETA TABERNAK, JANARIA EMAN ZEIN EZ.

673.1 epigrafea.- Katetoria berezikoak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 342,13 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 255,04 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 189,10 euro.
- Gainerako herrietan: 111,97 euro.

673.2 epigrafea.- Bestelako kafetegi eta tabernak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 133,12 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 77,13 euro.
- Gainerako herrietan: 58,47 euro.

**OHARRA:** Multzo honen barnean sartzen dira taberna deritzenak.

671, 672 ETA 673 TALDEEI BURUZKO OHARRA: Talde horietako epigrafeetan matrikulatutako subjektu pasiboek ahalmena dute zerbitzuko produktuak establezimenduan bertan saltzeko.

672 ETA 673 TALDEEI BURUZKO OHARRA: Erakunde publikoei atxikitako adineko pertsonen zentroetako kafetegi eta taberna zerbitzuak emakida araubidean ematen dituzten subjektu pasiboek dagokien kuotaren % 50 ordainduko dute.

674 TALDEA.- JATETXE, KAFETEGI ETA KAFE- TABERNETAKO ZERBITZU BEREZIAK.

674.1 epigrafea.-Trakzio mekanikoko ibilgailuen bidezko zerbitzuak

Estatuko kuota: 155,511882 euro ibilgailuko.

674.2 epigrafea.- Mota guztietako trenbideetako zerbitzua.

Estatuko kuota: 211,496160 euro treneko.

-674.4 epigrafea.- Aireontzietako zerbitzua.

Estatuko kuota: 155,511882 euro aireontziko.

674.5 epigrafea.- Elkartean, zirkuluetan, kasinoetan, klubetan eta antzeko establezimenduetan ematen diren zerbitzuak.

Udal kuota, gutxienez:

- 100 bazkide edo afiliatu arte: 51,63 euro.
- 500 bazkide edo afiliatu arte: 70,29 euro.
- 1.000 bazkide edo afiliatu arte: 93,93 euro.
- 1.000 bazkide edo afiliatu baino gehiago: 116,94 euro

674.6 epigrafea.- Antzokietako zerbitzuak eta gainerako ikuskizunak, ikuskizunaren orduetan soilik irekita daudenak, dantzak eta antzekoak izan ezik.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 104,50 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 79,62 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 59,72 euro.
- Gainerako herrietan: 44,79 euro.

674.7 epigrafea.- Tarifen 1. ataleko 989.3 epigrafean sailkatutako azoka parkeetan edo guneeetan ematen diren zerbitzuak.

Udal kuota, gutxienez: 105,75 euro.

675 TALDEA.- MERKATUETAN EDO ABASTOKO PLAZETAN, BIDE PUBLIKOAN EDO LORATEGIETAN AIRE LIBREAN DAUDEN KIOSKO, KUTXA, BARRAKA EDO ANTZEKO BESTE LOKALETAKO ZERBITZUAK.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 130,63 euro.

- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 74,65 euro.
- Gainerako herrietan: 55,98 euro.

OHARRA: Talde honetan sailkatutako kioskoak eta bestelako establezimenduak urtean sei hilabete edo gutxiago irekita badaude, dagokien kuotaren erdia ordainduko dute.

676 TALDEA.- TXOKOLATE DENDA, IZOZKI DENDA ETA HORTXATA DENDETAKO ZERBITZUAK.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 130,63 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 99,53 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 74,65 euro.
- Gainerako herrietan: 55,98 euro.

OHARRA: Talde honetan sailkatutako establezimenduak urtean sei hilabete edo gutxiago irekita badaude, dagokien kuotaren erdia ordainduko dute.

677 TALDEA.- 67 ETA 68 MULTZOETAKO 671, 672, 673, 681 ETA 682 TALDEETAN SAILKATUTAKO ESTABLEZIMENDUEK EMANDAKO ZERBITZUAK, ESTABLEZIMENDU HORIETATIK KANPO EGINAK. BESTE ELIKADURA ZERBITZU BATZUK.

677.1 epigrafea.- 67 eta 68 multzoetako 671, 672, 673 eta 682 taldeetan sailkatutako establezimenduek emandako zerbitzuak, establezimendu horietatik kanpo eginak.

Kuota:

- Zerbitzuak establezimendua matrikulatutako udalerraren barnean ematen badira: Establezimendua sailkatutako epigrafeari dagokion kuotaren % 10.
- Zerbitzuak establezimendua matrikulatutako udalerritik kanpo baina Arabako Lurralde Historikoaren barruan ematen badira: Establezimendua sailkatutako epigrafeari dagokion kuotaren % 20.
- Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikotik kanpora ematen badira: Establezimendua sailkatutako epigrafeari dagokion kuotaren % 30.

677.9 epigrafea.- Jatetxe arloko berezko beste elikadura zerbitzu batzuk.

Udal kuota, gutxienez:

- 100.001 - 500.000 biztanleko herrietan: 242,60 euro.
- 40.001 - 100.000 biztanleko herrietan: 180,39 euro.
- 10.001 - 40.000 biztanleko herrietan: 136,85 euro.
- Gainerako herrietan: 87,09 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira elikadura zerbitzuak, hau da, elikagaiak prestatzen diren tokitik kanpo anoatan edo handizka kontsumitutako elikagaiak ondu eta saltzen dituztenak, baita "catering" zerbitzurako edo kolektibitateetarako erabiltzen diren produktu prestatuak ere.

68 multzoa.- Ostatu zerbitzua.

681 TALDEA.- HOTEL ETA MOTELETAKO OSTATU ZERBITZUA.

Kuota:

Bost izarreko hotelak («Luxu handikoak»): 24,881901 euro logelako.

Bost izarreko hotelak: 17,417331 euro logelako.

Lau izarreko hotelak: 9,952760 euro logelako.

Hiru izarreko hotelak eta motelak: 5,601433 euro logelako.

Bi izarreko hotelak eta motelak: 4,357338 euro logelako.

Izar bateko hotelak eta motelak: 3,425769 euro logelako.

OHARRA: Urtean zortzi hilabete baino gutxiago irekita dauden hotel eta motelen kuota talde honetan ezarritakoaren % 70 izango da.

682 TALDEA.- HOSTAL ETA PENTSIOETAKO OSTATU ZERBITZUA.

Kuota:

Hiru izarreko hostalak eta pentsioak: 4,357338 euro logelako.

Bi izarreko hostalak eta pentsioak: 2,987030 euro logelako.

Izar bateko hostalak eta pentsioak: 2,488190 euro logelako.

OHARRA: Urtean gutxienez zortzi hilabete irekita dauden hostal eta pentsioen kuota talde honetan ezarritakoaren % 70 izango da.

683 TALDEA.- OSTATU ETA APOPILO ETXEETAKO ETA NEKAZARITZAKO TURISMO ETXEETAKO OSTATU ZERBITZUA.

683.1 epigrafea.- Ostatuak eta apopilo etxeak.

Kuota: 1,622733 euro logelako.

683.2 epigrafea.- Nekazaritzako turismo etxeak.

Kuota: 1,622733 euro logelako.

683.2 EPIGRAFEARI BURUZKO OHARRA: 7,81 eurotik beherako kuota duten subjektu pasiboen karga zero kuotaren arabera izango da.

684 TALDEA.- HOTEL-APARTAMENTUETAKO OSTATU ZERBITZUA.

Kuota:

Lau izarrekoak: 9,952760 euro logelako.

Hiru izarrekoak: 5,601433 euro logelako.

Bi izarrekoak: 4,357338 euro logelako.

Izar batekoak: 3,425769 euro logelako.

OHARRA: Urtean zortzi hilabete baino gutxiago irekita dauden hotel-apartamentuen kuota talde honetan ezarritakoaren % 70 izango da.

#### 685 TALDEA.- HOTELEZ KANPOKO TURISMO OSTATUAK.

Kuota:

Lau giltzakoak: 8,462250 euro ostatuko.

Hiru giltzakoak: 4,790066 euro ostatuko.

Bi giltzakoak: 3,732285 euro ostatuko.

Giltza batekoak: 2,987030 euro ostatuko.

OHARRA: Urtean zortzi hilabete baino gutxiago irekita dauden hotelez kanpoko turismo ostatuen kuota talde honetan ezarritakoaren % 70 izango da.

#### 686 TALDEA.- APARTAMENTU PRIVATUAK AGENTZIA EDO ENPRESA ANTOLATUAREN BIDEZ USTIATZEA.

Udal kuota, gutxienez: 248,82 euro.

Probintziako kuota: 622,05 euro.

Estatuko kuota: 1.555,12 euro.

#### 687 TALDEA.- TURISMO KANPALEKUAK, GUTXIENeko OSASUN ZERBITZUAK EMATEN DITUZTENAK, HALA , NOLA EDATEKO URA, KONKETAK, HARRASKAK, ETAB.

687.1 epigrafea.- Luxuzko kanpalekuak.

Kuota: 0,871468 euro plazako.

687.2 epigrafea.- Lehen kategoriako kanpalekuak.

Kuota: 0,564951 euro plazako.

687.3 epigrafea.- Bigarren kategoriako kanpalekuak.

Kuota: 0,378638 euro plazako.

687.4 epigrafea.- Hirugarren kategoriako kanpalekuak.

Kuota: 0,312526 euro plazako.

#### TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Urtean zortzi hilabete baino gutxiago irekita dauden turismo kanpalekuen kuota talde honetan ezarritakoaren % 70 izango da.

2. Kanpalekuetako titularrek beren kabuz, eta hirugarrenak tarteko ez direla, beste jardueraren bat eginez gero (kafetegiko, ostatuko eta jatetxeko zerbitzuak, elikagai eta edarien txikizkako

merkataritza zerbitzuak, e.a.), subjektu pasiboek jarduera horri dagokion kuotaren % 25 ordainduko dute.

#### 67 ETA 68 MULTZOEI BURUZKO OHARRA:

67 eta 68 multzoetan sailkatutako subjektu pasiboek beren lokaletan "A" eta "B" motetako josteta makinak eta makina txanponjaleak badituzte, beren jarduerari dagokion kuotari 969.4 epigrafean makina bakoitzari esleitutako zenbatekoa gehituko diote eta ez dute azkeneko hori dela eta altarik eman beharko.

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, Ekonomia jardueren gaineko zergari buruzko uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan ezartzen den udal indizea subjektu pasiboaren jarduerari dagokion tarifaren kuota gehituaren zatiari bakarrik aplikatuko zaio; beraz, lokalean jarritako makinei dagokien zatiari ez zaio aplikatuko.

69 multzoa.- Konponketak.

#### 691 TALDEA.- ETXEKO TRESNA ELEKTRIKOAK, IBILGAILU AUTOMOBILAK ETA KONTSUMOKO BESTE ONDASUN BATZUK KONPONTZEA.

691.1 epigrafea.- Etxeko tresna elektrikoak konpontzea.

Udal kuota, gutxienez:  
Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.  
Kw-ko: 9,766447 euro.

Probintziako kuota: 155,51 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da irratiak, telebistak, etxetresna elektrikoak eta etxean eta norberak erabiltzeko beste material elektriko batzuk konpontzea eta mantentzea.

691.2 epigrafea.- Ibilgailu automobilak, bizikletak eta beste ibilgailu batzuk konpontzea.

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 28,181458 euro.  
Kw-ko: 12,194536 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen da automobilak, kamioiak, autobusak, erabilera berezietarako automobilak, atoiak, txasisak, karrozeriak, motozikletak eta bizikletak konpondu, aztertu eta mantentzea.

691.9 epigrafea.- Kontsumoko beste ondasun batzuk konpontzea (BISG)

Kuota:  
Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.  
Kw-ko: 9,766447 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan aurreko epigrafeetan zehaztu ez diren kontsumorako ondasunak konpontzea sartzen da, eta, besteak beste, honako hauek: oinetakoak, larruzko artikuluak, eta antzekoak konpontzea, eta gauzak kopuru txikietan saltzea (oinetakoentzako betunak, kremak,

txirikordatxoak, barne zolak, oinetakoak sartzekoak eta antzeko efektuak, gomazko zolak eta takoiak), erlojuak konpontzea, arte lanak eta antigoaleko objektuak zaharberritzea, idazteko makinak, josteko makinak eta puntua egiteko makinak konpontzea eta zaintzea, argazki makinak eta optikako makinak, musika tresnak, jostailuak, aiztoak, artaziak, aterkiak, luma estilografikoak, altzariak eta abar konpontzea eta zaintzea. Era berean, epigrafe honek giltzak kopiatzeko ahalmena ematen du.

Erlojuak bakarrik konpontzen dituzten establezimenduek aurreko kuoten % 50 ordainduko dute.

#### 692 TALDEA.- INDUSTRIAKO MAKINAK KONPONTZEA.

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.

Kw-ko: 9,766447 euro.

OHARRA: Talde honetan sartzen da makineria industrial ororen konponketa, fabrikaziorako dibisioren batean berariaz sailkatutako makineriaren konponketa izan ezik.

#### 699 TALDEA.- BESTE KONPONKETA BATZUK (BISG)

Kuota:

Langile bakoitzeko: 15,554193 euro.

Kw-ko: 9,766447 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da tarifetan berariaz sailkatu ez den beste edozein konponketa.

#### 6 SAILARI BURUZKO OHARRAK:

1. Sail honetan sailkatutako jarduerak egiten diren lokaletan, udal kuota ordaintzen dutenetan, behar den hirigintza lizentzia lortzea beharrezkoa duten obra nagusiak egiten badira eta obra horiek egiteko hiru hilabete baino gehiago behar badira eta horiek direla eta lokalak itxita egoten badira, behar den kuota murriztuko da lokala itxita egonen den egun kopuruaren arabera.

Subjektu pasiboak eskatu beharko dio Udalari aurreko paragrafoan aipatzen den murriztapena eta, hala behar denean, behin eman ondoren, behar gabe jasotako kopuruak itzuli beharko dizkio, murriztapenaren zenbatekoa, hain zuzen ere.

2. Hiru hilabete baino gehiago irauten duten obrak bide publikoetan egiten badira eta sail honetan sailkatutako jarduerak, udal kuota ordaintzen dutenak, egiten diren lokalak ukitzen badituzte, subjektu pasiboek udalari kuotaren % 80 arteko murriztapena egiteko eskatu ahal izango diote, eta hark obrek lokala ukitzen duten mailaren arabera onartuko du eskaera. Murriztapena eman ondoren subjektu pasiboak behar gabe jasotako sarrerak itzultzeko eskatu ahal izango du, murriztapenaren zenbatekoa, hain zuzen ere.

#### 7 SAILA.- GARRAIOA ETA KOMUNIKAZIOAK.

71 multzoa. Trenbideko garraioa.

#### 711 TALDEA.- TRENBIDEKO GARRAIOA (BIDE ARRUNTA).

Estatuko kuota:  
Bideko km-ko: 16,485762 euro.

OHARRA: Talde honetan dago zabalera arrunteko bideetatik egindako pertsonen eta salgaien trenbide garraioa (estatukoa: 1,674 m; Europakoa: 1,435 m).

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

711.1 epigrafea.- Bidaiarien trenbideko garraioa (bide arrunta).

711.2 epigrafea.- Salgaien trenbideko garraioa (bide arrunta).

712 TALDEA.- TRENBIDEKO GARRAIOA (BIDE ESTUA).

Probintziako kuota:  
Bideko km-ko: 16,485762 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen da pertsonak eta salgaiak garraiatzea bide estuko trenean (ez estatukoa, 1,674 m, ez Europakoa, 1,435 m).

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

712.1 epigrafea.- Bidaiarien trenbideko garraioa (bide estua).

712.2 epigrafea.- Salgaien trenbideko garraioa (bide estua).

72 multzoa.- Lurreko beste garraio batzuk.

721 TALDEA.- BIDAIARIEN GARRAIOA.

721.1 epigrafea.- Hiri garraio kolektiboa.

Kuota:  
Udal kuota, gutxienez:  
Ibilgailuko: 67,806186 euro.

Probintziako kuota:  
Ibilgailuko: 135,606361 euro.

OHARRA: Epigrafe honen barnean sartzen dira pertsona kategoria batzuentzat (langileak, eskola umeak, hegazkin konpainietako bidaiariak, e.a.) ezartzen diren hiriko garraio kolektiboak (autobusa, tranbia, trolebusa...), pertsona horientzat baino ez direnean.

721.2 epigrafea.- Taxi garraioa.

Estatuko kuota:  
Ibilgailuko: 74,645703 euro.

**OHARRA:** Epigrafe honen barnean sartzen da taximetroak dituzten ibilgailuetan eta gidaria duten alogerako beste ibilgailu batzuetan, auto puntudunetan, e.a. (taxiak, turismo handiak, e.a.) bidaiariak garraiatzea.

721.3 epigrafea.- Bidaiaren errepideko garraioa.

Kuota:

Probintziako kuota:

- Gehienez 20 bidaiari eraman ditzakeen ibilgailuko: 54,740182 euro.
- 21 - 40 bidaiari eraman ditzakeen ibilgailuko: 82,176385 euro.
- 40 bidaiari baino gehiago eraman ditzakeen ibilgailuko: 113,026336 euro.

Estatuko kuota:

- Gehienez 20 bidaiari eraman ditzakeen ibilgailuko: 115,238061 euro.
- 21 - 40 bidaiari eraman ditzakeen ibilgailuko: 170,879762 euro.
- 40 bidaiari baino gehiago eraman ditzakeen ibilgailuko: 237,315640 euro.

**OHARRAK:**

1. Epigrafe honen barnean sartzen da errepideko garraio erregularra, aldiorokoa edo noizbehinkakoa (baita gidaria duten autokarren alojera ere) eta bidaiari eta salgaien garraio mistoa.
2. Lurralde kuota ordaintzeak ahalmena ematen du jarduera probintzia edo lurralde historiko mugakide guztietan egiteko. Ibilgailuak autonomia erkidegoak emandako baimen erregionala badauka, aurrekoa ez da aplikatuko, eta horrelakoetan probintziako kuota ordaintzeak ahalmena emango du Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aritzeko.
3. Bidaiariaren kopuruan enpresaren langileak ere sartuko dira.
4. Errepideko garraioari buruzko egungo araudiaren arabera trafiko txikiko edo landa eremuko trafikokotzat jotzen diren zerbitzuak egiten dituzten ibilgailuek kuotaren % 50 ordainduko dute.

721.4 epigrafea.- Anbulantzia bidezko osasun garraioa.

Estatuko kuota:

Ibilgailuko: 74,645703 euro.

**722 TALDEA.- SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOA.**

Kuota:

Udal kuota, gutxienez:

- Tona batera arteko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 26,751049 euro.
- Tona bat baino gehiago baina lau baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 52,877045 euro.
- Lau baino gehiago baina hamar baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 59,097520 euro.
- Hamar tona baino gehiagoko karga ahalmena duen ibilgailuko:

Hamar ibilgailura arte: 66,874617 euro.  
Hurrengo hogeit hamar ibilgailuak: 62,204753 euro.  
Hurrengo hogeita hamar ibilgailuak: 57,540899 euro.  
Gainerako ibilgailuak: 46,656570 euro.

Probintziako kuota:

- Tona batera arteko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 62,204753 euro.
- Tona bat baino gehiago baina lau baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 105,748080 euro.
- Lau baino gehiago baina hamar baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 118,189030 euro.
- Hamar tona baino gehiagoko karga ahalmena duen ibilgailuko:

Hamar ibilgailura arte: 133,743224 euro.  
Hurrengo hogeit hamar ibilgailuak: 124,409506 euro.  
Hurrengo hogeita hamar ibilgailuak: 115,081798 euro.  
Gainerako ibilgailuak: 93,307129 euro.

Estatuko kuota:

- Tona batera arteko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 130,629981 euro.
- Tona bat baino gehiago baina lau baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 222,073973 euro.
- Lau baino gehiago baina hamar baino gutxiagoko karga ahalmena daukan ibilgailuko: 248,199969 euro.
- Hamar tona baino gehiagoko karga ahalmena duen ibilgailuko:

Hamar ibilgailura arte: 280,858966 euro.  
Hurrengo hogeit hamar ibilgailuak: 261,259962 euro.  
Hurrengo hogeita hamar ibilgailuak: 241,666967 euro.  
Gainerako ibilgailuak: 195,947976 euro.

## 722 TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Talde honen barnean sartzen da salgaien garraioa (erregularra edo ez erregularra, hirikoa edo herriartekoa), kamioietan edo antzeko ibilgailuetan egindakoa, baita etxe aldatetako zerbitzuak ere.
2. Probintziako kuota ordaintzeak ahalmena ematen du jarduera probintzia edo lurralde historiko mugakide guztietan egiteko. Ibilgailuak autonomia erkidegoak emandako baimen erregionala badauka, aurrekoa ez da aplikatuko, eta horrelakoetan probintziako kuota ordaintzeak ahalmena emango du Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aritzeko.

## 729 TALDEA.- LURREKO BESTE GARRAIO BATZUK (BISG)

Udal kuota, gutxienez: 590,95 euro.

OHARRA: Talde honen barnean sartzen dira beste inon sartu gabeko lurreko garraioak, hala nola, tren kremaile radunarekin, teleferikoekin, funikularrekin, e.a.ekin egindako garraioa.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

729.1 epigrafea.- Tren kremaileradunarekin egindako garraio zerbitzuak.

729.2 epigrafea.- Teleferiko eta funikularrekin egindako garraio zerbitzuak.

729.3 epigrafea.- Lurreko beste garraio zerbitzu batzuk (BISG).

73 multzoa.- Itsasoko garraioa eta lehorreko bide nabigarrietako garraioa.

731 TALDEA.- NAZIOARTEKO ITSASOKO GARRAIOA (PETROLIO GORDINAK ETA GASAK IZAN EZIK).

731.1 epigrafea.- Bidaiarien nazioarteko itsasoko garraioa.

Estatuko kuota:

Itsasontziko eta bidaiari plazako: 3,239455 euro.

731.2 epigrafea.- Salgaien nazioarteko itsasoko garraioa.

Estatuko kuota:

Itsasontziko eta tonako, tonajea 2.500 tona gehienez: 0,498840 euro.

731 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Itsasontzi berean egiten bada bidaiarien eta salgaien garraio mistoa, jarduera bakoitzak bere aldetik ordainduko ditu zergak eta salgaien garraioaren ahalmen osoari itsasontziak duen plaza bakoitzari arauz esleitzen zaion ekipajearen garraio ahalmena kenduko zaio.

732 TALDEA.- PETROLIO GORDINEN ETA GASEN ITSASOKO GARRAIOA.

Estatuko kuota:

Itsasontziko eta tonako, tonajea 2.500 tona gehienez: 0,498840 euro.

732 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Talde honen barnean sartzen da petroliogai eta gas likuatuen itsas garraioa, kabotajeko ibilbide luzeetan edo barneko bide nabigarrietan egindakoa.

Argibide gisa, subjektu pasiboak egiten dituen jarduerak aitortuko ditu ondoko epigrafeetako sailkapenaren arabera:

732.1 epigrafea.- Petroliogaien eta gasen nazioarteko itsasoko garraioa.

732.2 epigrafea.- Petroliogaien eta gasen kabotajeko garraioa.

732.3 epigrafea.- Petroliogaien eta gasen garraioa lehorreko bide nabigarrietatik.

733 TALDEA.- KABOTAJEKO GARRAIOA ETA LEHORREKO BIDE NABIGAGARRIETAKOA (PETROLIO GORDINA ETA GASA IZAN EZIK).

733.1 epigrafea.- Bidaiarien kabotaje garraioa eta lehorreko bide nabigagarrietakoa.

Estatuko kuota:

Itsasontziko eta bidaiari plazako: 3,239455 euro.

733.2 epigrafea.- Salgaien kabotaje garraioa eta lehorreko bide nabigagarrietakoa.

Estatuko kuota:

Gabarra, itsasontzi edo baltsako: 970,394144 euro.

733.1 ETA 733.2 EPIGRAFEEI BURUZKO OHARRAK:

1. Itsasontzi berean bidaiari eta salgaien garraio mistoa egiten bada, jarduera bakoitzak bere aldetik ordainduko ditu zergak.

2. 733.3 epigrafean adierazitako itsasontziek ez dute 733.1 eta 733.2 epigrafeen arabera ordainduko zerga.

733.3 epigrafea.- Transbordadore, ferry, boat eta antzeko zerbitzuak.

Estatuko kuota:

Ontziko eta tonako: 1,123893 euro.

733 TALDEARI BURUZKO OHARRAK:

1. Talde honen barnean sartzen da bidaiarien, salgaien edo garraio mistoaren kabotajeko garraioa eta barneko bide nabigagarrietan egindakoa, linea erregularretan edo aldian aldikoan egiten bada.

2. Kanarietako garraioa talde honetako epigrafe egokietan sailkatuko da.

74 multzoa.- Aireko garraioa.

741 TALDEA.- AIREKO GARRAIO ERREGULARRA.

741.1 epigrafea.- Bidaiarien aireko garraio nazionala (zerbitzu erregularrak).

Kuota:

Probintziako kuota:

Aireontzi eta plazako: 6,286587 euro.

Estatuko kuota:

Aireontzi eta plazako: 18,042383 euro.

741.2 epigrafea.- Salgaien aireko garraio nazionala (zerbitzu erregularrak).

Kuota:

Probintziako kuota:

Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 1,809046 euro.

Estatuko kuota:  
Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 3,732285 euro.

741.3 epigrafea.- Bidaiarien nazioarteko aireko garraioa (zerbitzu erregularrak).

Estatuko kuota:  
Aireontzi eta plazako: 18,042383 euro.

741.4 epigrafea.- Salgaien nazioarteko aireko garraioa (zerbitzu erregularrak).

Estatuko kuota:  
Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 3,732285 euro.

741 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Aireontzi berean egiten bada bidaiarien eta salgaien garraio mistoa, jarduera bakoitzak bere aldetik ordainduko ditu zergak eta salgaien garraioaren ahalmen osoari aireontziak duen plaza bakoitzari arauz esleitzen zaion ekipajearen garraio ahalmena kenduko zaio.

742 TALDEA.- AIREKO GARRAIOA, ERREGULARRA EZ DENA.

742.1 epigrafea.- Bidaiarien aireko garraio nazionala (erregularrak ez diren zerbitzuak).

Kuota:

Probintziako kuota:  
Aireontzi eta plazako: 6,286587 euro.

Estatuko kuota:  
Aireontzi eta plazako: 18,042383 euro.

742.2 epigrafea.- Salgaien aireko garraio nazionala (erregularrak ez diren zerbitzuak).

Kuota:

Probintziako kuota:  
Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 1,809046 euro.

Estatuko kuota:  
Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 3,732285 euro.

742.3 epigrafea.- Bidaiarien nazioarteko aireko garraioa (erregularrak ez diren zerbitzuak).

Estatuko kuota:  
Aireontzi eta plazako: 18,042383 euro.

742.4 epigrafea.- Salgaien nazioarteko aireko garraioa (erregularrak ez diren zerbitzuak).

Estatuko kuota:

Aireontziaren garraio ahalmeneko 100 kiloko edo zatikiko: 3,732285 euro.

742 TALDEARI BURUZKO OHARRA: Aireontzi berean egiten bada bidaiarien eta salgaien garraio mistoa, jarduera bakoitzak bere aldetik ordainduko ditu zergak eta salgaien garraioaren ahalmen osoari aireontziak duen plaza bakoitzari arauz esleitzen zaion ekipajearen garraio ahalmena kenduko zaio.

741 ETA 742 TALDEEI BURUZKO OHARRA: Aireontzi berean aireko trafiko zerbitzu erregularrak eta ez erregularrak egiten badira, soilik aireko garraio erregularren arabera ordainduko da zerga.

75 multzoa.- Garraioei lotutako jarduerak.

751 TALDEA.- LURREKO GARRAIOARI LOTUTAKO JARDUERAK.

751.1 epigrafea.- Ibilgailuak estalitako garajeetan eta lokaletan gordetzea eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako erabiltzen den azalerako 350 metro karratura arte: 239,86 euro.

Aurreko mugatik gorako 50 metro karratuko edo zatikiko: 39,811042 euro.

Jarduera horretarako erabiltzen den eremuko azalera neurtzeko, hauek denak kenduko dira: sarbideak, arrapalak, barruko bideak, eta eremuak eta elementu osagarri guztiak.

OHARRA: Kuota horiek ez dute baimenik ematen ordu batzuetan bakarrik gordetzen diren autoak egunez zaintzeko, nagusiki gauez gordetzen direnekin txandakatuz.

Zaintza mota hori egiten bada, kuotak % 25 igoko dira.

751.2 epigrafea.- Ibilgailuak lurpeko aparkalekuetan edo "parkinetan" gordetzea eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako erabiltzen den azalerako 250 metro karratura arte: 202,17 euro.

Aurreko mugatik gorako 50 metro karratuko edo zatikiko: 49,763802 euro.

Jarduera horretarako erabiltzen den eremuko azalera neurtzeko, dauden solairu guztiak hartuko dira kontuan eta aurreko epigrafean ezartzen diren murrizketak egingo dira.

751.3 epigrafea.- Ibilgailuak eraiki gabeko orube edo lursailetan gordetzea eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako erabiltzen den azalerako 250 metro karratura arte: 74,65 euro.

Aurreko mugatik gorako 50 metro karratuko edo zatikiko:

- Zuzenbideko 100.000 biztanle baino gehiago dauden udalerrriak: 11,196856 euro.

- Zuzenbideko 100.000 biztanle edo gutxiago dauden udalerrriak: 5,601433 euro.

751.4 epigrafea.- Ordainpeko autobideak, errepideak, zubiak eta tunelak ustiatzea.

Kuota:

Udal kuota, gutxienez: 43,543327 euro kilometroko.

Probintziako kuota: 136,850456 euro kilometroko.

751.5 epigrafea.- Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea.

Kuota:

Hornitegiko: 186,614258 euro.

751.6 epigrafea.- Salgaien zamalanetako zerbitzuak.

Kuota:

Abeltzaintza independentea egiten den ustiategiko ondasun higiezinak eta instalazioak ez dira lokaltzat hartuko foru arau honen III. eranskineko jarraibideko 6. arauan xedatzen denaren ondorioetarako. Halaber, jarraibide honetako 4. arauaren 2. apartatuaren hirugarren paragrafoan aipatzen diren biltegiak eta gordailuak ere ez dira lokaltzat hartuko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, abeltzaintza independentean aritzen direnen kuotak kalkulatzeko, ez da aplikatuko foru arau honen III. eranskineko jarraibideko 14.1.F) arauan arautzen den zerga elementua, eta kuotei ez zaie aplikatuko uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 11. artikuluan ezartzen den indizea.

7. araua.- Kuoten araubidea.

1. Tarifetan bildutako abeltzaintza independenteko jarduerari dagozkien kuota guztiak gutxieneko udal kuotak dira, eta foru arau honen III. eranskineko jarraibideko 10. arauan xedatzen dena aplikatuko zaie.

2. Abelburuen kopurua zerga elementua kalkulatzeko, ustiategiaren urte batean daudenak hartuko dira kontuan, alde batera utzita aldi horren barruan gertatzen diren ekoizpen zikloen ondorioz elkarren segidan ustiatzen diren abelburuak.

3. Zerga elementuetan gertatzen diren % 20ko eta hortik beherako gorabeherak ez dute aldatuko zerga ordaintzeko aplikatzen diren kuoten zenbatekoa. Aipatu gorabeherak % 20tik gorakoak direnean, aldakuntzat hartuko dira uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 13.2 artikulua bigarren paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako. Nolanahi ere, aldakuntza horiek bost urterik behin bakarrik jakinarazi beharko dira, zergadunek ekitaldi bakoitzerako beren borondatez egiten dituzten alta edo baja aitortpenak gorabehera.

4. Abeltzaintzako ustiategi batean epai debekua, sutea, uholdea, amiltzea, instalazioetako ekipoen matxura larria edo izurria edo epizootia gertatzen denean, interesdunak horren berri emango diote zerga kudeatzen duen administrazioari, foru arau honen III. eranskineko jarraibideko 14. arauaren 4. zenbakian ezartzen diren ondorioetarako.

### III. ERANSKINA

ENPRESA JARDUEREN TARIFAK (ABELTZAINZA INDEPENDENTEKO JARDUERENAK IZAN EZIK), JARDUERA PROFESIONALEN TARIFAK ETA JARDUERA ARTISTIKOEN TARIFAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEA

#### I. KAPITULUA

##### XEDAPEN OROKORRA

1. araua.- Tarifen aplikazio eremua eta edukia

1. Arabako Lurralde Historikoan egiten diren ekonomia jarduerak jasaten duten ekonomia jardueren gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoko udalek ordainaraziko dute, 17. arauan eta ondoko arau hauetan ezartzen denari jarraikiz:

a) Gutxieneko udal kuotak edo kuota aldatuak, Arabako Lurralde Historikoko udalerrien alde sortzen direnean.

b) Probintziako kuotak, jarduera Arabako Lurralde Historikoan egiten denean.

c) Jarduera probintzia batean baino gehiagotan egiteko ahalmena ematen duten kuotak, subjektu pasiboaren ohiko egoitza edo zerga egoitza (kasuan kasukoa) Araban dagoenean. Kuota hau ordaintzeak jarduera lurralde erkidean eta foru lurraldean egiteko ahalmena ematen du.

2. Ekonomia jardueren gaineko zergaren tarifetan honako hauek zehazten dira:

a) Ekonomia jardueren deskribapena eta edukia. Ekonomia jarduerak honela sailkatzen dira: enpresa jarduerak, lanbide jarduerak eta arte jarduerak.

b) Jarduera bakoitzaren kuota. Kuotak tarifetan eta jarraibide honetan arautzen diren zerga elementuak aplikatuz kalkulatu dira.

#### II. KAPITULUA

##### JARDUEREN ARAUBIDEA

2. araua.- Zergapeko jarduerak egitea.

Tarifetan zehaztutako ekonomikoa jarduera bat (edo haietan zehaztu gabeko enpresa, lanbide edo arte jardueraren bat) egiteak alta aitortzea aurkeztu eta zerga ordaindu beharra ekarriko du, jarraibide honetan besterik xedatu ezan.

3. araua.- Jarduera ekonomikoen kontzeptua:

1. Enpresa, lanbide edo arte jarduera guztiak ekonomia jarduerak dira. Horretarako, jarduera bat enpresa jarduera, lanbide jarduera edo arte jardueratzat hartuko da produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) norberaren kabuz antolatzen direnean ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoarekin.

2. Zerga honen ondorioetarako, enpresa jardueratzat joko dira meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak (tarifen lehen atalean daude sailkatuta).

3. Lanbide jardueratzat joko dira tarifen bigarren atalean sailkatuta daudenak, pertsona fisikoek eginez gero. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatutako pertsona juridiko edo entitate batek tarifen bigarren atalean sailkatutako jarduera bat egiten

duenean, tarifen lehenengo ataleko jarduera korrelatibo edo kidekoari dagokion matrikula egin behar du eta horren arabera ordaindu behar du zerga.

4. Arte jardueratzat joko dira tarifen 3. atalean sailkatuta daudenak.

5. Ez da ekonomia jardueratzat hartuko norbere garraio bideak erabiltzea, ez eta horiek norbere lantegietan konpontzea ere, batzuen eta besten bidez hirugarrenei zerbitzurik ematen ezean.

4. araua.- Ahalmenak.

1. Oro har, jarduera bati dagokion kuota ordaintzeak jarduera hori bakarrik egiteko ahalmena emango du, zergaren foru arauan, tarifetan edo jarraibide honetan besterik xedatu ezean.

2. Hala ere:

A) Meatzaritzako eta industriako jarduerak (tarifen lehen ataleko 1 - 4 sailak) egiteko kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du handizkako eta txikizkako salmentan aritzeko, bai eta jardueren ondorioz sortzen diren gaiak, produktuak, azpiproduktu eta hondakinak esportatzeko ere.

Halaber, letra honen lehen paragrafoan aipatzen diren kuoten ordainketak ahalmena ematen du jarduera egiteko behar diren lehengaiak eskuratzeko Arabako lurraldean zein kanpoan, eta are atzerrian ere, baldin eta lehengai horiek ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzen badira.

Industria jarduera eginez gero, kuotak ordaintzeak lehengaiak erauzteko ahalmena ematen du, beti ere lehengai horiek ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzen badira eta erauzketa jarduera eta industria jarduera udal mugarte berean egiten badira.

Letra honetan aipatzen diren jardueretan aritzeko, bai eta bertan arautzen diren ahalmenak garatzeko ere, subjektu pasiboek jendearentzako itxita dauden biltegiak edo gordetegiak eduki ahal izango dituzte. Nolanahi ere, biltegien edo gordetegi horien azalera kontuan hartuko da 14. arauko 1. ataleko F) letran xedatzen denaren ondorioetarako.

B) Eraikuntzako jardueren (tarifen lehen ataleko 5 saila) kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du jarduera egiteko behar diren lehengaiak eta gauzak eskuratzeko Arabako lurraldean zein kanpoan, eta are atzerrian ere, baldin eta lehengai eta gauza horiek ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzen badira.

Letra honetan aipatzen diren jardueretan aritzeko, bai eta bertan arautzen diren ahalmenak garatzeko ere, subjektu pasiboek jendearentzako itxita dauden biltegiak edo gordetegiak eduki ahal izango dituzte. Nolanahi ere, biltegien edo gordetegi horien azalera kontuan hartuko da 14. arauko 1. ataleko F) letran xedatzen denaren ondorioetarako.

C) Handizkako merkataritzako jardueren kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du txikizkako salmentan aritzeko, bai eta haien xede diren gaiak edo produktuak inportatzeko eta esportatzeko ere.

Ekonomia jardueren gaineko zergaren ondorioetarako, handizkako merkataritza da:

a) Hornidurarako birsalmentan diharduten establezimendu eta biltegietan egiten dena.

b) Industria enpresa guztietan egiten dena, beren ekoizpideen barruan sartu behar diren elementuei dagokienean, kontratu mota edozein dela ere. Horren ondorioetarako, industria enpresak dira gai edo produkturen bat industriarako ekoizten, eraldatzen edo prestatzen dutenak.

c) Indar Armatuekin eta Merkataritzako Ontzidiarekin egiten dena, beti.

Hala ere, 618.1 epigrafeko subjektu pasiboan ahalmenen araubidea epigrafe horren oharretan ezarritakoa izango da.

Halaber, merkataritza handizkakatzen hartzeko, nahikoa izango da transakzioak edo igorpenak egitea, nahiz eta establezimendurik ez biltegerik ez eduki, edo salgaiak hornitzaileen eskuetan edo besteren biltegian gordailu modura utzi gordailugilearen aginduren eta borondatearen pean.

D) Txikizkako merkataritzako jardueren kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du haien xede diren gaiak edo produktuak inportatzeko.

Ekonomia jardueren gaineko zergaren ondorioetarako, txikizkako merkataritzat hartuko da zuzeneko erabilera edo kontsumorako egiten dena. Helburu berarekin biltegerik eta establezimendurik gabe egiten dena ere horrelakotzat hartuko da, eta nahikoa izango da transakzioak egitea edo salgaiak hornitzaileen esku edo beste baten biltegian gordailugilearen agindu eta borondatearen arabera gordailu gisa artatzea.

Letra honetan aipatzen diren jardueretan aritzeko, bai eta bertan arautzen diren ahalmenak garatzeko ere, subjektu pasiboek jendearentzako itxita dauden biltegiak edo gordetegiak eduki ahal izango dituzte. Nolanahi ere, biltegien edo gordetegi horien azalera kontuan hartuko da 14. arauaren 1. apartatuaren F) letran xedatzen denaren ondorioetarako.

E) Zerbitzugintzako jardueren kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du jarduera egiteko behar diren gaiak edo produktuak eskuratzeko Arabako lurraldean zein kanpoan, eta are atzerrian ere.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren jarduerak egiteko eta ahalmenak erabiltzeko, subjektu pasiboek jendearentzako itxita dauden biltegiak edo gordetegiak eduki ahal izango dituzte. Nolanahi ere, biltegien edo gordetegi horien azalera kontuan hartuko da 14. arauaren 1. apartatuaren F) letran xedatzen denaren ondorioetarako.

F) Ostatu zerbitzuak egiten dituzten subjektu pasiboek zerbitzu osagarriak eskaini ahal izango dituzte kuota gehigarririk ordaindu gabe, hala nola ileapainketa eta edergintza aretoak, jantzi eta oinetakoen garbiketa, garaje eta kirol instalazioak, moneta trukea, egunkari eta postalen salmenta, kirol instalazio eta elementuen alogera, etab., baldin eta zerbitzu horiek berek zuzenean ustiatzen badituzte eta establezimenduko bezeroek bakarrik erabiltzen badituzte. Hala ere, aipatu zerbitzuak ematen diren lokalen azalera 14. arauaren 1. apartatuaren F) letran xedatzen diren ondorioetarako zenbatuko da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren zerbitzu osagarriak publikoari eskaintzen zaizkionean, subjektu pasiboek haietarako bakoitzari dagokion kuotaren % 50 ordaindu beharko dute, nahiz eta berek ustiatu zuzenean.

Zerbitzu osagarri horiek ustiategiaren titularra ez den beste pertsona edo entitate batek ematen baditu, pertsona edo entitate horrek zerbitzuei dagozkien kuoten % 100 ordainduko du, zerbitzuak norentzat diren gorabehera, establezimenduko bezeroentzat zein normahirentzat.

G) Garraio jardueren kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du zerbitzu lagungarriak emateko: postuak gordetzea eta txartelak aurretik saltzea, salgaien lotura, fakturazio eta bidalketa zerbitzu elkartuak, erreklamazio zerbitzuak, eta abar.

Zerbitzuak ematen diren lokalen azalera 14. arauaren 1. apartatuaren F) letran xedatzen diren ondorioetarako zenbatuko da.

H) Diskoteka eta dantza aretoetan aisialdiko zerbitzuak emateko kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du lokaletan edariak zerbitzatzeko.

J) Arau honen 4. apartatuan xedatzen dena gorabehera, tarifetako errubrika guztiek ahalmena ematen diete subjektu pasiboari "cashback" zerbitzua emateko 811 eta 812 taldeetan sailkatutako jarduera egiten duten finantza entitateen kontura (eskudirua ateratzeko eta eskuratzen diren ondasunak edo zerbitzuak ordaintzeko zerbitzu konbinatua).

3. Ekonomia jardueren gaineko zergaren ondorioetarako, "biltegi eta gordetegiak" esamoldeak biltegi frigorifikoak ere hartzen ditu.

4. Matrikulan izena emanda egoteak edo ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeak ez du ahalmena ematen jarduera batean aritzeko, indarreko xedapenetan beste betebeharrak batzuk ezartzen badira.

5. araua.- Jarduerak egiten diren tokia.

1. Ekonomia jardueren gaineko zergak enpresa, lanbide eta arte jarduerak egitea kargatzen du, lokal jakinean egin zein ez.

2. Enpresa jarduerak egiten diren tokia honako hau izango da:

A) Jarduerak lokal jakin batean eginez gero, lokala dagoen udal mugartea.

Horretarako, ondoko jarduerak lokal jakin batean egiten dira:

a) Industria jarduerak, oro har.

b) Merkataritza jarduerak, oro har, baldin eta subjektu pasiboak establezimendua badauka.

c) Zerbitzuak emateko jarduerak, oro har, baldin eta zerbitzuak establezimendu batetik ematen badira.

Horretarako, zerbitzu bat ez da ematen establezimendu batean, hura emateko elementu materialak erabiltzen badira, hala nola trakzio mekanikozko ibilgailuak, trenak, ontziak, hegazkinak, autopistak, jolas makinak, ur, gas eta elektrizitate neurgailuak. Halaber, tarifen arabera establezimendu iraunkorrik gabe emateko diren zerbitzuak ere honelakotzat hartuko dira.

Letra honetan aipatzen diren jardueren titularrek egiten dituzten jarduketa guztiak lokaletan egintzat hartuko dira.

b) Jarduerak ez badira egiten toki edo lokal jakin batean, udalerria izango da jarduerak egiten diren tokia, letra honetan ezartzen denaren arabera.

Hori dela eta, ondoko jarduerak ez dira egiten lokal jakinean:

a) Meatzaritzako jarduerak eta erauzte jarduerak, oro har, ura hartzekoak barne. Jarduera horiek meatzea edo ustiatzea dagoen udal mugartean egiten dira.

c) Energia elektrikoa ekoizteko jarduera. Jarduera hau zentrala dagoen udal mugartean egiten da.

d) Energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko jarduerak, eta baita petrolio krudo, gas natural, hiri gas eta lurrinaren banaketa ere. Jarduera horiek horniketa sarearen, oleobidearen, gasodiaren edo dena delakoaren hegaldura, lurzorua edo lurpean dagoen udal mugartean egiten dira.

e) Hirigunetarako ura banatzeko eta tratatzeko jarduerak. Jarduera horiek ura banatzen den udal mugartean edo ura tratatzeko araztegia edo instalazioa dagoen udal mugartean egiten dira.

f) Eraikuntza jarduerak. Jarduera horiek obrak, instalazioak eta muntaketak egiten diren udal mugartean egiten dira.

g) Merkataritza jarduerak, establezimendurik ez daukaten subjektu pasiboek eginak. Jarduera horiek eragiketak egiten diren udal mugartean egiten dira.

Halaber, postaz edo katalogoz saltzeko jarduera saltzen diren gaiak heltzen diren udal mugartean egiten dira.

f) Zerbitzuak emateko jarduerak, establezimendu batetik ematen ez direnean. Hori dela eta, zerbitzuak ez dira ematen establezimendu batetik elementu materialak erabiltzen direnean, hala nola trakzio mekanikozko ibilgailuak, trenak, ontziak, hegazkinak, autopistak, jolas makinak, ur, gas eta elektrizitate neurgailuak. Halaber, tarifen arabera establezimendu iraunkorrik gabe ematen diren zerbitzuak ere halakotzat hartuko dira. Jarduera horiek zerbitzuak egiten diren udal mugartean egiten dira.

Ondasun higiezinak alokatzeko edo saltzeko jarduerak ondasuna dagoen udal mugartean egiten dira. Ondasun higiezinak alokatzen dituen subjektu pasiboek honela ordainduko dute zerga:

- Etxebizitza modura erabiltzen diren hiriko ondasun guztiak biltzen dituen kuota bakarra, ondasun guztien katastro balioak batuta.
- Industria lokal modura erabiltzen diren hiriko ondasun guztiak eta alokatzen diren gainerako guztiak biltzen dituen kuota bakarra, ondasun guztien katastro balioak batuta.
- Landako ondasun higiezin guztiak biltzen dituen kuota bakarra, ondasun guztien katastro balioak batuta.

3. Lanbide jarduera egiten den tokia:

a) Jarduera lokal jakinean eginez gero, lokala dagoen udal mugartea.

b) Jarduera lokal jakinean egiten ez bada, subjektu pasiboaren zerga egoitza dagoen udal mugartea.

4. Arte jarduerak subjektu pasiboaren zerga egoitza dagoen udal mugartean egiten dira.

6. araua.- Jarduera egiten den lokalaren kontzeptua.

1. Ekonomia jardueren gaineko zergaren ondorioetarako, enpresa edo lanbide jarduera bat egiteko erabiltzen diren eraikuntzak, eraikinak eta instalazioak eta eremu estaliak zein estali gabeak, publikoarentzat irekita daudenak zein itxita daudenak, lokaltzat hartzen dira.

Hala ere, zerga honen ondorioetarako, ez dira lokalak:

b) Meatzaritzako jarduerak egiten diren ustiategiak.

Meatzaritzako ustiategiaren perimetroaren barruan subjektu pasiboak prestatze jarduera edo zergaren tarifen arabera egin dezakeen bat egiten badu, jarduera hori egiten den eraikinak edo instalazioak lokaltzat joko dira.

c) Petrolioa edo gas naturala erauzteko edo ura hartzeko jarduerak egiten diren ustiategiak.

d) Energia elektrikoak ekoizten duten zentralak.

e) Energia elektrikoak garraiatzeko eta banatzeko jarduerak egiten diren hornidura sareak, oliobideak, gasbideak etab. (transformazio estazioak barne), eta petrolio gordina, gas naturala, hiri gasa eta lurruna banatzekoak Halaber, ura hirigunetan banatzeko hornidura sareak eta gainerako instalazioak ere ez dira lokaltzat hartuko, eta ta ura tratatzeko araztegiak eta instalazioak ere ez.

e) Eraikuntza jarduerak egiten diren obrak, instalazioak eta muntaketak, barne direla bulegoak, barrakoiak eta obran diren gainerako eraikin aldi baterakoak, obrak, instalazioak edo muntaketak iraun bitartean soilik erabiltzen direnak.

f) Alokatu, irakurri eta kontserbatzen diren ur, gas eta elektrizitate neurgailuak dauden higiezinak, aipatu jardueren ondorioetarako bakarrik, eta higiezinok beste jarduera batzuen ondorioetarako daukaten izaera gorabehera.

g) Makina edo aparailu automatikoak, depositoko erakustegiak, jolas makinak eta antzekoak jartzen diren higiezinak, aipatu elementuen bitartez egiten diren jardueren ondorioetarako bakarrik, eta higiezinok beste jarduera batzuen ondorioetarako daukaten izaera gorabehera.

h) Alokatzan eta saltzen diren ondasun higiezinak, landakoak zein hirikoak. Higiezinaren sustapenaren xede diren ondasun higiezinetan dauden informazio bulegoak ere ez dira lokaltzat joko.

i) Saripeko autobideak, errepideak, zubiak eta tunelak, haien ustiapena zergapeko jarduera bada.

j) Aireratzeko pistak eta hangarrak, eraikuntzak izan ezik.

Ondorioz, aurreko letretan zehaztutako instalazioak ez dira kontuan hartuko jarraibide honen 14.1.F) arauan arautzen den azalerako zerga elementuaren ondorioetarako, ez eta uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 11. artikuluan ezartzen den indizeen ondorioetarako ere.

2. Hain zuzen ere, eta jarraibide honen 5. arauaren 2.A) apartatuan ezartzen denaren ondorioetarako, lokal berezizat hartuko dira:

a) Kaleek, bideek edo pasatzeko tarterik gabeko hormek banatzen dituztenak.

b) Eraikin berean edo aldamenekoetan daudenak, jendeari zerbitzua emateko ate bereziak dituztenean eta nabarmena denean bananduta daudela, nahiz eta jabearentzat barrutik lotuta egon.

c) Lokal bateko departamentuak edo atalak, bananduta daudela agerikoa izanik, erraz bakartu ahal badira beste jarduera batean aritzeko.

d) Eraikuntza bateko solairuak, barrutik komunikaturik egon zein ez, titularrak denetan jarduera bera egiten duenean izan ezik.

e) Azoka, merkatu edo erakusketa iraunkorretako postuak, kajoiak edo konpartimentuak, bereizita edo bakartuta badaude salgaiak jartzeko eta saltzeko, nahiz eta denek eduki sarrera-irteera bera.

Zerga Administrazioak lokalak bereizitzat joko ditu lokal batean titularrak zenbait jarduera egiten baditu, bakoitzak bere administrazioa edo kontabilitatea daukala.

Fabrikatzaile batek produktu jakin baten fabrikazioaren faseak esparru berean ez dauden instalazioetan egiten baditu, baina instalazioek, hala ere, ustiapen unitatea osatzen dutela, horiek guztiak lokal bakartzat hartuko dira, baldin eta fabrikazio fase bakoitza ez bada bereizita zergapetzen den jarduera bat. Lokal bakarraren irizpide bera aplikatuko da ostatu edo kirol establezimendu baten instalazioak esparru berean ez daudenean ere.

3. Ondasun bat aldi berean erabiltzen bada etxebizitzarako eta zergapeko jarduera baterako, jarduera egiten den ondasunaren atala bakarrik joko da lokaltzat zergaren ondorioetarako.

7. araua.- Fabrikazio jarduerak batera egitea.

Subjektu pasibo batek zergapeko zenbait fabrikazio jarduera egiten baditu aldi berean, hain zuzen ere produktu nagusiaren fabrikazio prozesu berean sartuta dauden zenbait jarduera (lehengaiak edota tarteko produktuak prestatzea edo ateratzea), jarduera horien kuotetatik altuena ordainduko da eta gainerako kuoten % 50, baldin eta tarteko produktuak saltzen ez badira. Tarteko produktuak saltzen badira, subjektu pasiboak osorik ordainduko ditu kuota guztiak. Bidezko zerga elementuak fabrikazio prozesuko jarduera bakoitzari egotziko zaizkio.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren ondorioetarako, tarteko produktuak dira sortzen diren moduan saldu ahal izan arren merkatuaren arabera oso-osorik prozesu berean ondoren eraldaketa baterako lehengai modura erabiltzen direnak.

Arau honen lehen paragrafoan ezartzen dena ez da aplikatuko:

- a) Ekoizpen guztiak fabrikazio prozesu berean ez daudenean.
- b) Epigrafe berean sailkatutako zenbait produktu fabrikatzen direnean.
- c) Produktu guztiak prozesu berean sartu arren, bakoitza lokal batean egiten denean, lokal guztiak subjektu pasibo berarenak izan zein ez.

8. araua.- Tarifetan zehaztu gabeko jardueren tributazioa.

Tarifetan zehaztu gabeko enpresa, lanbide eta arte jarduerak izaeraz hurbilen dauden beste inon sailkatu gabeko (BISG) jardueren taldean edo epigrafean sailkatuko dira behin-behinean, eta horren kuotaren arabera zergapetuko dira.

Aurreko paragrafoan ezarritako sailkapena egiterik ez badago, tarifetan zehaztu gabeko jarduerak izaeraz hurbilen dauden jardueren taldean edo epigrafean sailkatuko dira behin-behinean, eta horren kuotaren arabera zergapetuko dira.

### III. KAPITULUA KUOTEN ARAUBIDEA

9. araua.- Kuota motak.

Tarifetako kuotak honela sailkatzen dira:

- a) Gutxieneko udal kuotak.
- b) Probintziako kuotak, hau da, Arabako Lurralde Historikoan jarduteko ahalmena ematen dutenak.
- c) Estatuko kuotak, hau da, probintzia batean baino gehiagotan jarduteko ahalmena ematen dutenak.

#### 10. araua.- Gutxieneko udal kuotak

1. Gutxieneko udal kuotak dira tarifetan izen horrekin berariaz ageri direnak (behar denean, kargatutako jarduera egiten den lokalen azalera elementua gehitu behar da), bai eta tarifetan probintzia kuota edo estatu kuota gisa berariaz ageri ez diren beste guztiak ere.

Halaber, gutxieneko udal kuotak dira 14.1.F) arauan xedatutakoaren arabera zenbatekoa eragiten duen zerga elementu bakarra azalera den kuotak.

2. Gutxieneko udal kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du dena delako jarduera egiteko udal mugartean, jarraibide honen 5. arauan ezartzen den bezala.

3. Jarduera bat zenbait lokaletan egiten bada, subjektu pasiboak gutxieneko udal kuota bat ordaindu behar du jarduera egiten duen lokal bakoitzeko, uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauaren 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren koefizienteak aplikatuz gehituta. Lokal batean zenbait jarduera egiten badira, gutxieneko udal kuota bat ordaindu behar da jarduera bakoitzeko, nahiz eta jardueren titularra pertsona edo entitate bera izan.

4. Profesionalek jarduera egiten duten lokala dagoen udal mugartetik kanpo egiten dituzten jarduketengatik ez da ordaindu behariko kuotarik, ez gutxieneko udal kuotarik, ez probintziakorik, ez estatukorik.

5. Jarduerak lokal jakin batean egiten ez dituzten profesionalek, bai eta artistek ere, jarduerak egiten dituzten tokiko kuota ordainduko dute, eta handik kanpo egin ahal izango dituzte jardueri dagozkien jarduketa guztiak.

#### 11. araua.- Probintziako kuotak.

1. Probintziako kuotak dira tarifetan izen horrekin berariaz ageri direnak.

2. Probintziako kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du dena delako jarduera egiteko Arabako Lurralde Historikoan gutxieneko udal edo probintzia kuotarik ordaindu gabe.

#### 12. araua.- Estatuko kuotak.

1. Estatuko kuotak dira tarifetan izen horrekin berariaz ageri direnak.

2. Estatuko kuotak ordaintzeak ahalmena ematen du dena delako jarduera egiteko foru lurraldean eta lurralde erkidean gutxieneko udal edo probintzia kuotarik ordaindu gabe.

13. araua.- Tributazioa gutxieneko udal kuota, probintziako kuota edo estatuko kuota ordainduta.

Egiten den jarduerak 9. arauan aipatzen diren kuota motetako bat baino gehiago badauka esleituta, subjektu pasiboak horietako edozein ordaintzea hautatu ahal izango du, aurreko 10., 11. eta 12. arauetan aipatzen diren ahalmenekin.

14. araua.- Zerga elementuak.

1. 1. arauaren 2.b) zenbakian ezartzen denaren ondorioetarako, zerga elementuak dira jardueraren indize moduluak, tarifetan edo arau honetan kuotak zehazteko eraturakoak.

Ondoren zerga elementu nagusiak azalduko dira:

A) Potentzia instalatua.

Potentzia instalatu zergapegarritzat jotzen da, tipifikatutako arauen arabera, industria ekipa menduari lotutako energia elementu elektriko edo mekanikoen potentzia nominalen baturatik ateratzen dena.

Beraz, ez dira zenbatuko hurrengo elementuen potentziak: berogailuak, argiak, aire egokitua, kutsaduraren aurkako instalazioak, langileen igogailuak, gizarte zerbitzuak, osasunekoak eta, oro har, ekoizpenari zuzenean loturik ez dauden guztiak, energia elektrikoa eraldatzeko eta errekitektu katzeko direnak barne.

Halaber, aipatutako ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko erregai solido, likido edo ga seosoz dabilzan labeak eta galdarak, ez eta labe eta galdara elektrikoak ere.

Industriaren kuotak kalkulatzeko erabiliko den potentzia fiskala instalatutako potentzia konputagarri osoa kilowattetara pasatzearen emaitza matematikoa izango da, honako baliokideta sun hau aplikatuta:  $ZP 1 = 0,736 \text{ kW}$ .

Instalatutako benetako potentziaren ehuneko 10 kontuan hartuko da proba bankuetan, saia- kuntza plataformetan eta antzekoetan instalatutako potentzia zenbatzeko.

Fabrika instalazioetako erreserba ekipoen ez dira zerga elementu baldin eta hala aitortuta badaude zerga administrazioan.

B) Langileen kopurua.

Langileen kopuruan enpresaren ekoizpenari zuzenean atxikitako ofizio profesionalak, espezialistak eta peoiak sartzen dira.

Beraz, kopuru horretan ez dira sartuko honako hauek, besteak beste: zuzendariak, administrari teknikariak, merkataritzakoak, banatzaileak, gidariak, zaindariak, mandatarariak, aprendizak eta pintxeak. Azken bi kategoria bietako langileak gehienez langile konputagarri guztien % 15 izan daitezke.

Langile batzuk fabrikari ari badira lanean eta beste batzuk beren etxean fabrikaren kontura, azken horiek plantillako langileekiko baliokidetasuna aplikatuz zenbatuko dira. Horretarako, osagarri bat kalkulatu da, alegia, hurrengo zatidura osoa, gutxienez borobildua: etxean ari direnek sortutako balio ekonomikoa zati dagokion espezialitateko urteko batez besteko lansari unitario eta haztatua, legearen arabera egoki izan daitezkeen kopuru osagarriak barne.

Behin-behineko langileen eta aldizkako langile finkoen kopuruak ere langile finkoekiko baliokidetasuna aplikatuz zenbatuko dira: haiek lan egindako egunak urteko lanegunen guztirako kopuruaz zatitzearen emaitza (zatidura osoa).

Lanaldi partzialeko kontratudun langile finkoen kopurua honelako kalkulatu da: urtean lan egindako egunen kopurua lanaldi osoko kontratuen arabera lan egin beharreko eguneko kopuruaz zatitzearen emaitza (zatidura osoa).

C) Eguneko lan txandak.

Zergaren kuotek ahalmena ematen dute jardueran aritzeko, lan txanden kopurua gorabehera.

D) Zuzenbidezko biztanleria.

Udalerriko zuzenbidezko biztanlerian udal erroldan inskribatuta dauden egoiliar guztiak daude, bertan daudenak zein kanpoan daudenak. Pertsona bat egoiliar bihurtzen da udal erroldan inskribatzen denean.

E) Ikuskizunetarako lokalen edukiera.

Ikuskizunak egiten diren areto edo barrunbeen edukiera dauden tokien guztirako kopurua izango da, zenbakituta egonez gero.

Lerroetan banatutako eserleku luzeak edo zutik egoteko zenbaki gabeko tokiak dauden ikuskizunetan eragiketa hau egingo da: eserleku edo toki bat luzerako 50 cm-ko.

F) Lokalen azalera.

a) Tarifetako lehenengo atalari buruzko oharrean eta bigarren atalari buruzko bigarren oharrean aipatzen den azalera elementua aplikatzeko, zergapeko jarduerak egiten diren lokalak dira jarraibide honen 6. arauan hala zehazten direnak.

b) Horretarako, lokal baten azalera izango da haren poligonoaren barruan dagoen guztia, metro karratuetan adierazita, eta, behar denean, solairu guztien azaleren batura.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, azaleratzat honako hau bakarrik hartuko da:

1. Lehengaien edo denetariko produktuen biltegi gisa, estali gabeko idortegi gisa, ur biltegi modura eta, oro har, jarduerako edozertarako erabiltzen diren eraiki edo estali gabeko eremuen azalaren % 20. Aurrekoa gorabehera, zergapeko jarduera bati edo haren alderdi bati zuzenean atxikitako kirol instalazioen azalaren % 5 baino ez da zenbatuko. Salbuespena: kirol ikuskizuna ikustera doan jendea hartzeko harmailek, mailadiak eta gainerako instalazio iraunkorrek hartzen duten azalaren % 20 zenbatuko da.

Ondorioz, jarduera edo haren alderdiren bat zuzenean egiteko erabiltzen ez diren eraiki edo estali gabeko eremuen azalera ez dira zenbatuko: bideak, lorategiak, segurtasun guneak, aparkalekuak eta abar.

2. Denboraldiko jardueretarako erabiltzen den bide publikoetako azalaren % 40 (postuak eta antzekoak).

3. Kirol instalazio eta zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetarako lokal mota ororen azalera estali edo eraikiaren % 10. Salbuespena: kirol, zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetara joaten

den jendea hartzeko harmailek, mailadiak eta eserlekuek eta gainerako instalazio finkeok hartzen duten azaleraren % 50 zenbatuko da.

4. Irakaskuntzarako (maila guztiak) erabiltzen diren lokalen azaleraren % 50, jarduera salbuetsirik ez badago.

5. Denetariko biltegi eta gordetegien azaleraren % 55.

6. Aparkaleku estalien azaleraren % 55.

c) Aurreko b) letrako arauak aplikatuz kalkulatzen den metro karratuen guztirako kopurutik % 5 kenduko da zergapeko jarduerari zuzenean atxikita ez dauden hutsune, enpresa jantoki, igogailu, eskailera eta gainerako elementuengatik.

Ostatu jardueran, aurreko paragrafoan aipatzen den kenkaria % 40koa izango da, baina ostatu jarduera nagusirako zuzenean erabiltzen den azalera eraikiko metro karratuen guztirako kopuruari bakarrik aplikatuko zaio.

d) Honako taula hauek erabiliko dira azalera elementua zenbatzeko:

1. I. taula: Taula hau aplikatuko da tarifetako lehenengo ataleko 1 - 6 bitarteko sailetan eta 9 sailean eta bigarren atalean bildutako jarduerak egiten diren lokalen azalera kalkulatzeko.

Euroak metro karratuko.

LOKALAREN AZALERA	ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA				
	100.001 - 500.000 biztanle	50.001 - 100.000 biztanle	20.001 - 50.000 biztanle	5.001 - 20.000 biztanle	500.000 biztanle baino gutxiago
0 - 500 m <sup>2</sup>	0,504850	0,330557	0,204344	0,102172	0,042071
500,1 - 3.000 m <sup>2</sup>	0,390658	0,252425	0,150253	0,078132	0,036061
3.000,1 - 6.000 m <sup>2</sup>	0,312526	0,210354	0,126213	0,066111	0,030051
6.000,1 - 10.000 m <sup>2</sup>	0,270455	0,162273	0,108182	0,060101	0,030051
10.000 m <sup>2</sup> baino gehiago	0,234395	0,150253	0,090152	0,048081	0,024040

2. II. taula: Taula hau aplikatuko da tarifetako lehenengo ataleko 7 sailean bildutako garraio eta komunikazio jarduerak egiten diren lokalen azalera kalkulatzeko.

Euroak metro karratuko.

LOKALAREN AZALERA	ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA				
	100.001 - 500.000 biztanle	50.001 - 100.000 biztanle	20.001 - 50.000 biztanle	5.001 - 20.000 biztanle	500.000 biztanle baino gutxiago
0 - 500 m <sup>2</sup>	0,378638	0,246415	0,144243	0,078132	0,036061
500,1 - 3.000 m <sup>2</sup>	0,288486	0,192324	0,114192	0,060101	0,030051
3.000,1 - 6.000 m <sup>2</sup>	0,240405	0,156263	0,096162	0,054091	0,024040
6.000,1 - 10.000 m <sup>2</sup>	0,204344	0,132223	0,084142	0,048081	0,024040
10.000 m <sup>2</sup> baino gehiago	0,186314	0,120202	0,072121	0,042071	0,018030

3. III. taula: Taula hau aplikatuko da tarifetako lehenengo ataleko 8 sailean bildutako finantza entitateen jarduerak, seguru jarduerak, enpresentzako zerbitzuak eta alokairuak egiten diren lokalen azalera kalkulatzeko.

Euroak metro karratuko.

LOKALAREN AZALERA	ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA				
	100.001 - 500.000 biztanle	50.001 - 100.000 biztanle	20.001 - 50.000 biztanle	5.001 - 20.000 biztanle	500.000 biztanle baino gutxiago
0 - 500 m <sup>2</sup>	1,196014	0,781316	0,468789	0,240405	0,096162
500,1 - 3.000 m <sup>2</sup>	0,919549	0,601012	0,366617	0,186314	0,078132
3.000,1 - 6.000 m <sup>2</sup>	0,739245	0,480810	0,288486	0,144243	0,060101
6.000,1 - 10.000 m <sup>2</sup>	0,625053	0,408688	0,246415	0,126213	0,054091
10.000 m <sup>2</sup> baino gehiago	0,540911	0,348587	0,216364	0,108182	0,048081

Azalera elementuaren guztirako zenbatekoa kalkulatzeko, lokaleko azalera tarte bakoitzaren balio partzial guztiak batu behar dira. Beste alde batetik, balio partzial horiek kalkulatzeko, tarte bakoitzeko metro karratuen kopurua lokala dagoen udalerriko zuzenbideko biztanleriaren arabera tarteari esleitutako euroen kopuruaz biderkatu behar da.

e) Azalera elementuaren guztirako zenbatekoa, aurreko d) letrako taulak aplikatuz kalkulatu, hurrengo taulako koefiziente zuzentzaile egokiaren bidez haztatuko da, subjektu pasiboak egiten duen jardueraren eta azalera elementua kontuan hartu aurretik tarifak aplikatuz kalkulatu den subjektu pasiboaren kuotaren arabera.

Kuotaren zenbatekoaren eta jardueraren arabera aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak.

KUOTA TARTEAK EUROAK	1. ATALA, 1 - 7 SAILAK ETA 9 SAILA; 2. ATALA	1. ATALA 8 SAILA
37,32 - 622,05	1,0	0,5
622,06 - 1.244,10	1,5	0,5
1.244,11 - 3.110,24	2,0	1,0
3.110,25 - 6.220,48	2,5	1,5
6.220,48 baino gehiago	3,0	2,0

f) Lokal batean zenbait jarduera egiten badira (subjektu pasibo bat zein bat baino gehiago), jarduera bakoitzari zuzenean okupatzen duen azalera egotziko zaio, bai eta amankomunean okupaturiko lokaletik dagokion zati proportzionala ere. Aurrekoa ezinezko denean, jarduera bakoitzari lokalaren guztirako azalera jardueren kopuruaz zatitzearen emaitzako azalera (metro karratuak) egotziko zaio.

g) Probintziako kuotak eta estatuko kuotak kalkulatzeko, kontuan hartuko da, beti ere, jarduerari zuzenean zein zeharka atxikitako lokal guztien azalera elementuaren balioa.

Balio hori kalkulatzeko, aurreko a), b) eta c) letretan agertzen diren arauen arabera zenbatu beharreko metro karratu guztiak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

PROBINTZIAKO KUOTAK ETA ESTATUKO KUOTAK	
0 - 500 m <sup>2</sup>	2,337937 EURO
500,1 - 3.000 m <sup>2</sup>	1,712884 EURO
3.000,1 - 6.000 m <sup>2</sup>	1,400358 EURO
6.000,1 - 10.000 m <sup>2</sup>	1,153943 EURO
10.000 m <sup>2</sup> baino gehiago	0,997680 EURO

h) Gutxieneko udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboek beren jarduerak zuzenean egiten ez dituzten lokal bakoitzeko (ahalmenduta dagoen zuzendaritza zentroak, administrazio bulegoak, kalkulu zentroak, biltegiak edo gordetegiak...) 10. arauaren 1. apartatuaren bigarren paragrafoan

ezartzen diren gutxienerako kuota bakoitzean aurreko d) letrako tauletatik behar dena aplikatuz kalkulatu den zenbatekoa bakarrik sartuko da. Zenbateko hori ez da haztatu behar e) letrako taulako koefizientea aplikatuz.

i) Gutxienerako udal kuota ordaintzen denean 1991ko abenduaren 31n egoitzaren gaineko udal zerga aplikatzen ez zen udalerriri batean, lokalaren azalera zerga elementuari dagokion kuota zatia honako portzentaje hauek aplikatuz murriztuko da:

- a) 1992an, % 80.
- b) 1993an, % 60.
- c) 1994an, % 40.
- d) 1995ean, % 20.

i) F) letra honetan arautzen den zerga elementua ez da aplikatuko kuota kalkulatzeko kasu honetan: kuota kalkulatzeko zergaren tarifetan berariaz kontuan hartu bada zerga elementu gisa jarduera egiten den lokalaren azalera (metro karratuak).

Aurrekoaren ondorioz, tarifetako epigrafe batzuen deskribapenerako tauletan aipatzen diren azalera (metro karratuak), esaterako lehenengo ataleko 647.2, 647.3 eta 647.4 epigrafeetan aipatzen direnak, haietan bildutako jarduerak zehazteko eta sailkatzeko bakarrik aipatzen dira, eta inolaz ere ez dira hartu behar kuota osatzen duen zerga elementutzat. Hortaz, kasu horietan ez da aplikatu behar aurreko paragrafoan xedatutakoa.

## 2. Zerga elementuak aplikatzeko arau orokorrak.

Zerga elementuetan gertatzen diren % 20ko eta hortik beherako gorabeherak ez dute aldatuko zerga ordaintzeko aplikatzen diren kuoten zenbatekoa. Erreferentziazko gorabeherak hortik gorakoak izanez gero, aldakuntzatzat hartuko dira uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 13.2 artikulua bigarren paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako.

## 3. Krisi adierazpena duten sektoreak.

Krisi adierazpena dutela, lan planen birmoldaketa onetsi zaien sektoreetako zergaren ordainketa aldatu da, funtzionamendu erritmo berriari egokitzeko. Horretarako, ondoko arauak aplikatuko dira zerga elementuak zehazteko:

a) Tarifako kuota lotutako langileen kopurua kalkulatzeko, eragiketa hauek egin behar dira: urtebetean benetan lan egindako orduen kopurua aldi berean lanaldi arruntarekin lan egingo litzatekeen orduen kopuruaz zatitu, eta horren emaitza plantillan benetan dauden langileen kopuruaz biderkatu.

b) Zergapeko potentzia instalatuko kilowattei dagokienez, horiek gabe kontsumituriko batez besteko potentziako kilowattak hartuko dira kontuan. Kopuru hori kalkulatzeko, urteko kilowatt-orduen kontsumoa benetan lan egindako orduz zatitu behar da.

c) Aurreko letrak aplikatzeko, urte jakin batean aplikatuko diren zerga elementuak kalkulatzeko, aurreko ekitaldiko datuak hartuko dira oinarritzat.

## 4. Industriak geldiaraztea.

Industrietan eragozpen judizialen, suteen, uholdeen, hondoratzearen, indar eragile gisa erabilitako ur emariaren erabateko gabeziaren edo industria ekipamenduaren matxura larrien kasuetako bat gertatzen denean, interesdunek horren berri eman behar diote zergaren kudeaketaz arduratzen den Administrazioari, eta, guztiz egiaztatzen bada hogeita hamar egun baino gehiagoko eragozpen bat izan dela edo industriaren ezbeharra edo geldialdia gertatu dela, kuotaren zati proportzionalaren beherapena lortu ahal izango dute, industriak funtzionatzeari utzi dion denboraren arabera.

Aurrean ezarritako murrizketa ez zaie aplikatuko kuota funtzionamendu denboraren arabera ezartzen den industriei.

15. araua.- Zero kuotako tributazioa.

1. Tarifan arabera zergaren kuota zero bada, subjektu pasiboak ez dauka ezer ordaindu beharrik, ez eta aitorpenik aurkeztu beharrik ere.

2. Arabako Foru Aldundiak ezarri ahal izango du zero kuota dutela etekin ekonomikoen urritasuna dela eta zergarengatik ezer ordaindu behar ez duten jarduerak edo jarduera modalitateek. Hala gertatuz gero, subjektu pasiboek ez dute edukiko aitorpenik aurkeztu beharrik.

3. Aurreko apartatuan ezartzen dena gorabehera, tarifetako lehenengo ataleko 508 taldeko interes ekonomikoko taldeak eta aldi baterako enpresa elkarteak matrikulan alta emanda egon behar dira.

16. araua.- Kuoten gutxieneko zenbatekoa.

Aurreko arauko kasuan izan ezik, kuoten gutxieneko zenbatekoa 37,32 euro izango da.

17. araua.- Kuoten ordainarazpena eta banaketa.

Kuotak hurrengo zenbakietan ezartzen diren arauetara jarraikiz ordainaraziko dira. Nolanahi ere, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 8. artikuluan aipatzen duen lankidetzara aplikatuko da.

1. Gutxieneko udal kuotak jarduerak egiten diren udalerriko udalak ordainaraziko ditu.

Lokalak, edo lokaltzat hartzen ez diren instalazioak (jarraibide honen 6.1 arauaren bigarren paragrafoan aipatzen direnak), udalerrira batean baino gehiagotan badaude, lokal edo instalazioen zatirik handiena dagoen udalerriko udalak ordainaraziko du kuota. Nolanahi ere, udal horrek kuota horren zenbatekoa beste udal guztien artean banatu beharko du erregelamenduz ezartzen den bezala.

2. Jarduera Arabako Lurralde Historikoan eginez gero, probintziako kuotak Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu.

Foru Aldundiak kuota horien zenbatekoa Lurralde Historikoko udalerrira guztien artean banatuko du erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorritik.

3. Subjektu pasiboaren ohiko egoitza edo zerga egoitza Araban badago, estatuko kuotak Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu.

Estatuko kuoten zenbatekoa Arabako Lurralde Historikoko udalerrira guztien artean banatuko da erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorritik.